

**SALBADOR ZAPIRAIN**  
« A t a ñ o »

**ESPETXEKO NEGARRAK**

# ESPETXEKO NEGARRAK

Auspoa Liburutegia  
(179)

---

Auspoa Liburutegia  
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa  
Tel. (943) 671282

**SALBADOR ZAPIRAIN**  
**« A t a ñ o »**

**ESPETXEKO**  
**NEGARRAK**

Auspoa Liburutegia  
1984

# **Azalean: Bordazar baserria**

© Auspoa Liburutegia

Fotokonposatzalle: Cometip, Barañain, Iruñe

Moldiztegia: Gráficas Lizarra, S. L., Estella, Navarra

Depósito Legal: NA. 1.300-1984

ISBN 84-7158-123-X

## ARKIBIDEA

Ataria .....	9
Etsaien sarrera .....	23
San Markos .....	37
Udaletxera .....	45
Donostia .....	57
Ondarreta .....	61
Banaketa .....	75
Lenengo bixita .....	79
Moldaketak .....	83
Itzultzalea .....	89
Zai .....	97
Fiskala .....	109
<i>Consejo de guerra</i> .....	117
Gau ta egun gogoangarriak .....	125
Sinistu bearra .....	135
Larriak .....	143
Gau tristea .....	169

## ATARIA

Lagun maite bat banin, beste askoren artean, nerekin ibiltzen zana. Guda aurretik mendirik mendi ta erriz erri amaika txango egiñak giñun. Euskalerrian ez uan izango guk zapaldu gabeko mendirik. Erririk ere ez noski, guk ikertxo bat egin gabekorik. Mitiña non, an giñun gu. Inguru xamarrekoa bazan, beti oñez. Eiztari-bota iltzedun oiek oñetan, gorosti-makil bana eskuan, arraidun galtza txurixtak, iru margoko gerrikoa ikurrintzat, gerriaren bi aldeetan parpallak zintzilik, gizon-txapel beltz bat buruan, gozoak joaten giñun gu, mendigoizale omen giñala-ta.

Ginjoazen leku guzietara pakea geramaken, ordea. Pakea ta euskera. Gure artean ez uan besterik itzegiten. Bear-bearrean izan ezik, ori uan gure betiko izkuntza.

Guk ez genin iñora okasiorik eramaten. Erasotzen baziguten ere, askotan, aurreregi ez sar-tzeagatik, ez baita atzeratzen errexa izaten or-

duan, ez ikusia edo ez entzuna egin ta aurrera. Ori izan uan gure elburua: euskera ta pakea. Gaurko egunean biak palta zaizkiguk, zoritxarrez.

Aietako asko orain aurrean zebiltzaken. Beste batzuk oraindik etxeetan, ezin ausarturik, gu bezela. Ez genin oraindik gora-beera garbi ikusten. Nik ez beñepin. Egia esan nai badet, bi aldeak itun gaixtoak Gipuzkoa'n. Gero, baña beranduan, ederki ikasi nin gure bidea non zegoen.

Alderdi guziak bat egin ta danen etsaiari arpegi emateko asmoan zebiltzanak, ez itun konpontzen. Etsaia aurrera zetorrela ikusita ere, elkar iltzen ari itun. Zer etorkizun zegoken aiekin? Apaizak ere banaka-banaka ari itun erortzen, legez fuera zebiltzanen eskuetan. Denak zekiteken dena ta denak agindu nai ziteken. Armarik ere etzegoken. Nere anaia zebillen sallow, amalau zebiltzaken zazpi pusillekin. Orregatik, aurrera joango zan gazte asko, bertan geratu uan, gu bezela. Bi aurrera joan itun. Besteak aitaren ondoan geratu giñun, zoritxarrez. Larrutik pagatu genin gure ausardirik eza. Ez genin asmatu.

Gero Bilbo'n jarri zan Jauralaritza emen jarri balitz, amaika geiagok igesi egingo zin.

Lagun maite ori bakarra geratu zitzaidaken, inguru xamarrekoa uan-ta. Igandero gure base-rrira etorri gabe ezin etsi zuen oietakoa. Ez baigeneukan txango luzeak egiteko aukerik. Mendiak gudariz beteak zeudeken. Batzuetan,



etsaiak. Aien eskuetan erori ezkeru, jakiña uan gure azkena: bi tiro eman ta zulora.

Gure aldekoak zeuden lekuan ere, erne ibilli bearra zegoken. Ez itun denak guretzat aingeruak izango.

Txoritokieta deritzaion mendixkara igoko giñun beti. An ere, ordea, erne ibilli bearra zegoken. Bestean etsaiak bazebiltzan, emen ere asko itun gure etsaiak. Lekukorik gabe aien eskuetan erortzen bagiñan, etziguteken musu emango. Bi bider pentsatu gabe josiko giñuzteken berunez. Iñon etzegoken bat seguru.

Antxe, Donosti aldera begira, igarotzen genizkin arratsaldeak, elkar-izketan, Euskadi'ko larritasunak kontatuz, etorkizunaren itxaropetan.

Gipuzkoa'ko azken egunak urbiltzen ari itun. Tristura ta larritasuna zegoken bazterretan.

Euskaldun geienon biotzetan beñepin bai. Etsaia beti aurrera ta zerekin eutsirik ez.

Oraindik gogoan zeukat gure azken arratsaldea. Oso naigabeturik etorri giñun etxera, ez giñala noski geiago tontor artara igoko, ia inguraturik geunden-ta.

Laguna, ni baño urte batzuk zaarragoa uan. Bere karrera ikasia gañera. Errian bizi zana. Nik baño obeto zeramakiken gudaren martxa. Andik Dónosti aldera begira geundela, ala esan zidaken:

—Orra illunabarra; eguzkiaren sarrera.

—Baita zoragarria gañera —erantzun nioken.

–Bai dizdizlaria dagola Donosti ta bere inguru guzia!

–Ederra dek orratik Euskadi –nioken zoramenez lagunari.

–Bai; ederregia. Orregatik gabiltzak, gabiltzan bezela.

–Ederra dalako, alegia, datozela erlemandoak gure eultzera, diok?

–Bai; arrazoi bat beñepin ori ditek. Etzigitek beren ukabilpetik ertetzen utziko. Onez-onean ez beñepin.

–Polliki-polliki ederki berpixten ari zana...

–Ori dek, bada, datozen etsai auen beldurra. Orrek ematen zidak neri negargurea.

Bitartean, urruntzen ari uan eguzkia. Gure biotzak ere naigabetzen, maite genuz guzia galtzera zijoakiguen-ta.

–Olaxe ziak gure aberria ere illunpera –batbatean esan zidaken–. Aurki illunduko dik eta jakin ez noiz arte.

–Baña berriro azalduko zaiguk eguzkia biar goizean.

–Bai. Eguzkiak ez dik utsegingo. Baña gure aberriak bururik jasoko al dik berriz? Ori dek nere galdera. Ikusten al dituk erri auek denak? Pake-pakean bizi itun. Etziteken gudarik maite. Gure eriotza orrek zekarrek. Orain alde guzietatik inguratuak gaudek, artzairik gabeko artalde bat bezela. Aurrera datozen oiek aingeru batzuk diralakoan, ez ditek arraixkurik ikusten; eta badakik otsoak artaldean zer egiten duten: bear dituzten baño ardi geiago txikitu ta ondatu. Orixe berbera gertatuko dek emen. Zaldizka

zekartek auek gorrotoa, urteetan trinko-trinko egiña. Gorrotoa ta ezin ikusia. Ez omen gerala gu oiek bezelakoak, zioek jendeak, batez ere atzerritarrak. Beste enda bat omen gera; langille ta elizkoiagoak.

Orduan ala uan Euskadi: benetan sinismendun ta paketsua. Munduan zan eliz-barrutirik onenetakoa, aitortu zin bein Don Mateo Mujika'k, bertako gotzaiak.

–Baña barrun alde ortan –jarraitu zin nere lagunak–, denak erre ta kixkaltzen ari dituk. Emen, berriz, etzebillek ezereen iskanbillik. Igande ta jaietan, eliz guziak beteak zeudek. Orregatik artu zigutek bekaizkeri gaitza; eta ortik zetorrek oien ezin ikusia: gu baño eskaxagoak diran uste ori. Berak diotenez, katolikoen izenean erlijioa salbatu nairik aizkatu zaizkiguk. Jakiña, ori aitzaki artuta. Oiek gogorkerizaleak dituk eta indarrez zapaldu nai ditek erria, Euskalerria. Au ia erabat katolikoa dek. Ez izenez bakarrik; izanaz ere bai. Eta, oien aurka jarri geralako, suminduak zetoze. Etzekit aurki zer ikusteko gauden. Azkena ikusteko suertea duanak esango dik ori. Guda zibillean, baitu orde, il egiten dizkitek. Gorrotoak agintzen baitu.

–Orduan i ziur ago auek sartuko dirala?

–Egun batzun gora-beera. Ez ametsik egin, lagun maitea. Irun'go gañera sartu dituk. Orio aldean itxasoa jo ditek. Uraren jabe, berriz, zalantzik gabe berak dituk. Or zebiltzak urruti gabe itxasoan, gure begien aurrean. Igesbiderik gabe inguratuak gaudek ia. San Markos

gain au artzeko moldaketak egiten ari dituk. Aste au bukatu baño len, berena ditek Donosti. Guda nork irabaziko duen, zalla dek jakiten. Oraindik barruti asko ta erririk aundienak zeuzkatek artzeko.

–Leku onean geratuko gaituk orduan.

–Bai; deabruen atzaparretan. Pake-egillei Jainkoaren seme deitzen bazaie, gudazaleei zailantzik gabe deabruaren seme deitu bearko. Erriko garbiketak egiten asten diranean, auek etziotek ezeri begiratuko. Sartzen diran agintariak, asko il eraziko dizkitek. Ori izango dek salatzalleen uzta. Gizon on ta mazalak badituk militarretan. Baña kontzientzi gabeko jendea ere ugari badek oien artean. Ezin ikusiak eramango dizkik majiña bat erru gabeko gizon. Andregaiarengatik il eraziak ere izango dituk. Auzitako barrutiengatik ere bai. Zorrak ez ordaintzeagatik ere, ez nitek esango ezetzik. Kontzientzi gabeko gizonak ez ditek egokiera ori galduko. Militarrek, berriz, umeen antzekoak dituk: oso sinisberak. Salatua ez bada beren iritzikoa, an joango dek ankaz gora. Baña, alare, asko izango dituk beren eskuz mendekoa egingo dutenak. Espetxeratu ta agintarien berririk gabe, non ez dakitela, amaikatxok galdu bear dik. Ortarañokoxeko ezin ikusi ta gorrotoa sartua zegok, len nai zutena egiten oituak zeuden biotzetan. Badakik esaera zar ura: ibai naasia, arrantzaleen irabazia, esaten ditek erdalduinak. Amaika negar egingo dik Euskalerrriak. Amaika malko ixil ixuriko dituk euskal sukaldeetan. Gudan dabiltzanak, gorroto gaitza zio-

tek bata besteari; eta, lekukorik ez dan lekuan, legeak ez dik aginduko. Zerbait egin dutenak aurrera joango dituk, eta bertan txoro-txoro geratu geran askok pagatu bearko diagu. Odol ixuri gabe ez dituk geratuko auek.

–Ai zer etorkizun tristea igertzen dioken Euskadi'ri!

–Orain arteko kondaira irakurtzea aski dek, nik esaten detana sinisteko. Prantzi'ko Matxiñada sonatuan berdin-berdin izan uan. Emen, bi aldeetakoak, ez dituk aiek baño santuagoak izango. Emen ere asko dituk ixillean beren justizia egiñak. Non ez dirala galduak, espetxetik atera ta illak ere ez gutxi. Oien ordaña norbait tek jaso bearko dik.

–Eta erri erailte onen ondoren, esnatuko ote da berriz Euskadi?

–Ori Jainkoak bakarrik zekik. Aren eskue-tan zegok. Nere iritzia baiezkoa dek. Baña ez orain bezin elizkoi ta paketsua. On izanak etzigu mundu ontarako ezeren aurrerapenik ekarri, ta datozen gazteak txorotzat joko ditek gure joera. Berak, berriz, beste bidetik joango dituk; indarkeritik, alegia. Altzairuak, zenbat eta geiago zapaldu, ez bada austen beñepin, orduan ta jauzi aundi ta biziagoa egiten dik. Eliza bera ere militarren mende geratuko dek. Baña garbi emango dit nere iritzia: ez gaitzik ez folklore, ikurrin ta armak gaizkatuko; euskerak bakarrak salbatuko gaitzik. Ori errian bizirik dabillen arte, erri bat izango gaituk. Gure eginkizun garrantzitsuena ortan zegok: euskera bizi erazten. Bestela, agur betiko Euskalerrri maiteari.

Goibel-goibel ta erasoaren beldurrak, baña etorkizunaren itxaropenetan, gure baserri xarrera jetxi giñun. Egoaize-naia zebileken, garai ortan askotan oi duen bezela. Tristura ematen ziguken, anaiak elkar iltzen ari zirala igerriz.

Mendi-zulo guzietatik tirotsak zetozen. Eundoko oiak ere entzuten genizkin. Elkarri soma-alak esaten ari itun.

–Entzuten al dituk oiek? –esan zidaken lagunak.

–Bai, zoritxarrez.

–Garaille jartzen danak, zer etziok égingo mendekoari? Erromatarrak ziotena: *Vae victis!* Ai menderatu oik! Kontzientzirik ez daukaten artean izugarria izango dek. Emengoak ere ez gaituk bestelakoak izango.

Esku emanaz agurtu giñun, «Datorren igandera arte, Jainkoak nai badu» esanaz.

–Baña ez aberri askatuan –erantzun nioken.

–Zer egingo diagu, bada? Etzegok gure eskuetan –erantzun zidaken.

Erdiz-erdi asmatu zin. Asteazkenean sartu itun eta iganderako ni baitua negoken. Ura aske zegoken oraindik. Etzeukaken aurrera deituko zuten beldurrik ere, adiña bazin-ta. Baña laxter negar-zotiñen etxean alkarganatu giñun. Ondarrera'ra eramén ziteken ura ere.

\*  
\*\*

Emengo azken agurra egin ta inpernu batean bost urte igaro ondoren, orain lenengo igonauk gure mendixkara.

Au len bezelaxe zegok, ez txikiago ta ez aundiago. Baña bost urte auetan gauzak ederki aldatu dituk Euskalerrian. Etzegok lengo umorerik. Baserri auk ixilik zaudek, baña triste. Amaika semeren utsuna bazegok oietan. Erriak ere zearo zapalduak, euskera galerazia, erdi us-tuak. Amaikak, dena zegon bezela utzita, igesi egin baidute. Atzerri alde ortan or ibilliko dituk, non kokatu ez dakitela. Besteren errukian jarri bear itxaropena, Ori ere gogorra dek, bada, emen ezereen larritasunik gabe bizi zan bantentzat. Au ez dek guda bakarra izan; erri erailtze gaixtoa ari ditek auk.

Bost urteren buruan igo nauk, baña bakarrik. Nere lagun maite ura etzeukat ondoan, biok, erriaren ondamendi au ikusita, Jeremias'ek bezela negar egiteko. Ura joan uan betiko. Dagon lekuan dagola, arek ez dik naigaberik edukiko. Oñaze ontatik iges egin dik. Au guretzat geratu dek. Arek Ondarreta'n aberriaren maitasunagatik ixuri zin bere odola. Aberrian egongo dek nonbait eortzia. Baña iñork etzekiagu non. Jainkoak diola betiko atsedena.

Erdiz-erdi asmatu zin gertatu zana, txarra beñepin. Ai, asmatuko balu berpizkundera ere! Aitagure bat errezatu nin bere alde.

Etxera nentorrela, gazte batekin topo egin nin. Nonbaitik ikasi zin etorriak giñala ta berriro nerekin adiskidetasunak egin ta nere lagun izateko asmoan etorria izango uan, berak an bertan aitortu zidanez. Ez alperrik!

Len, garai batean, oraingo elkar iltze au etorri baño len, gure sallekua uan. Baña ez nin

beñere gogozkoa izan. Andik edo emendik beti sortzen zin norbaitekin okasioa, eta pakea nai gendunok naasten gaitziken bere iskanbillan.

Bein, Ordizi'ra mitin bat entzutera joan giñanean, an itun Errenteri'ko karlista batzuk ere. Etzekit nola, aiek zeramaten bandera kendu ta erre egin zin. An sortu zan zalaparta! Gu ez bagiñan tartean sartu, txikituko ziteken.

Auek sartu ziranean, berriz, auetara biurtu uan, eta bere lagunak ori izan ziteken etsairik gaiztoena. Nere lagun maite arek ere, onek salatu ote zuen susmurrak zeuzkaken.

–Kaixo, Salvador! –esan zidaken–. Garai bateko lagun zaarra, etorri al zerate?

Berari esku emanaz:

–Bai. Bizi dana nonbaitik azaltzen omen dek, eta gu ere, noizbaiten buruan, baitu giñuzten etxera biurtu gaituk, bidean bi galdu baditugu ere. I eztaietan biziko intzan?

–Eztaietan ez nauk bizi izan. Baña laxter antz eman nioken non zegon nere bidea. Zuek, zoritxarrez, etzenuten asmatu.

–Etzekit asmatu gendun edo ez. Bost urte inpernu berean igaro dizkiagu, ta emen ere espetxean bizi gaituk.

–Edorrek nai dekalako. Lengoa uan inpernua, ura! Au besterik dek. Igualako pakean bizi gaituk orain. Ez dek len bezelako oiurik entzungo, ez.

–Orduko oiua baño okerragokoak entzuten dizkit nik. Iretzat zer dek pakea?

–Gaur daukagun au dek benetako pakea.

–Ori dek zapaltzalle ta zapalduena. Batzuk



nai duten guzia zeukatek, eta nai dutena egiten ditek. Besteak etzeukatek ezereen eskubiderik. Galdeio, etxean bizi dan alargunari, zuek senarra ilta beltzez jantzia etxe-txuloan bizi danari, ea pakean bizi dan. Galdeio, saskitxoa eskuan egunero Ondarreta'ra dijoan emazte gaixoari, senarra espetxean daukalako ura ezin pozturik dabillen gaixoari, ea pakean bizi dan. Galdeio, semea espetxean daukalako aronera dabillen amari, ea pakean bizi dan. Galdeio, bere bizitzarako aukeratu duen laguna espetxean daukalako, aren maitasuna gorde nairik, ari ona nola egin ezin asmaturik dabillen neskatx gazteari, ea pakean bizi dan. Galdeio, dana utzita igesi joan diran aiei, non beren bizilekua ipiñi ezin billaturik dabiltzan aiei, ea pakean bizi diran. Galdeio, bost urte espetxean erru gabe igaro arren oraindik guardiazibilletara agertu bear detan oni, eta ate askotan jo arren lanik ezin billatu detan oni, ea pakean bizi naizen. Galdeio, beren mantenurako bear dutena indarrean kentzen dieten baserritar auei, ea pakean bizi diran. Nik emen ez dit besterik ikusten: zapaltzalleak eta zapalduak; eta orrela etzegok pakerik. Oiekin osatzen dek erria.

–Bai; baña oiek bakar batzuk dituk.

–Euskadi'do eunetik larogei ta amar.

–Ik ere, ez badek lanik billatzen, nai ez dekalako dek.

–Amaika ate jo dizkit eta danetan *excombattente* naizen galdetzen zidatek. Nik ez baidaramat olako agiririk, kalera botatzen niotek.

-Nai badek, nik konponduko dit ori.  
-Bejondeikela, motel! Esaidak nola.  
-Sartu adi falanjean eta ate guziak zabalik ikusiko dituk.

-Adiskide, prezio aundiegia eskatzen didak. Bordaxar'ko Joxeren semerik ez dek ortaraño makurtuko. Naiago dit mina-zulo batean lan egin. Nonbait guretzako ere izango al dek zer-bait. Ez gaituk goseak ilko.

-Ori edorrek ikusi. Aukera oberik ez dek aurkituko.

-Ez nauk batere arritzen, gure sallean ama-bostetatik bat billaua ateratzea. Jesusek ere amabitatik bat billaua zin. Kalte aundia egin diek lengo lagunei. Permiñek ere ala esan zidaken: bera ere ik salatu ote uan kezketan zegoken. Neronek ere badizkit zalantzak, ez ote intzan Ondarreta'ra nere billa joan. Olako arratsetan atera nioteken kanporaño. Eskerrak zaindarien burua oartu zan. Bat neri eltzen asi zanean, arek sartu nioken barrura. Eundoko biraua bota zin arek orduan. Baña nik ez ezagutzearren aren atzean gorde zan batek, isekaz ala esan zin: «Utziok. Urrengoan etorriko dek ori.» Oso oker ez banago, ire abotsa uan.

-Ametsak dituk oiek denak.

-Pakean bizi gerala esango didak, bada, neri? Gaur goizean bertan entzun dizkit tiro-otsak Bidebieta'n, eta eiztariak etzebiltzak pagusotan. Ez dek garaia. Gizajoren bat il dezute gaur ere. Oa, oa nigandik, anaien odol-usaia daramak-eta! Lagun gutxi geratzen zaizkidak, baña bai piñak. Erria zapaldua ta supritzen ixi-

lik zegok, baña ez etsia, egokiera on baten zai,  
altzairuak bezela jauzi bat egin ta berea iristeko.

Laguna agurtu ere gabe, sumindua etxera  
joan niñun.

## ETSAIEN SARRERA

Nere lagun maitea agurtu ta irugarren egunerako sartu itun Donostia'n.

Tiro bat sutu gabe artu zizkiteken gure aurreko bi mendiak. Bietan guda-zale oien kabiak zeudek; gaztelu edo fuerteak, alegia. Txorito-kieta'k ezer gutxi balio dik, goraño dena arkaitza ta txara besterik ez dik-eta. Bera babestea zalla dek oso. Baña San Markos, gaztelu aundia ez bada ere, ongi egiña. Inguru guzia garbi, ta aldapa ere sollean igaro bearra.

Inguruko baserritarrak uste ziteken, eta guk ere bai, ari eusten asten baziran ixtillu gaixtoak ikusi bearako ote giñuzen. Ordurako Jaizkibel artua zin etsaiak eta mendean artzen zin. Alare, San Markos artzezkeroz, etziteken nolanai jo bearako.

Guk ia etsia artu genin, gure etxeko beiak aien janari izan bearako zutela; luzatzen bazuen, nonbaitik bearako ziteken zer jana-ta.

Zoritxarrez edo zorionez, bakoitzak nondik

begiratzten diogun, San Markos'era eraso baño len, etsaiak Orio alde ortan ia itxas-bazterrera iritxiak itun. Irun, berriz, beren mende zeukateken. Donostia zearo inguratua geratu baño len, emengo agintariak dana utzi ta aldegiteko agindua eman ziteken. Bereala utzi ziteken San Markos, eta ustu itun bere barruan arrapatzen zitun erri guziak. Donosti ere berdin.

Emengo agintari burugabeak etziteken gudaren martxa zuzen eramateko algorik izan. Elkarrekin ezin konponduak eta armarik ezak ekarritako okerrak.

Zemairik gaixtoenak egiñaz joan itun gure etxe ondoan beera. Berriz etortzen ziranean, etzutela bat bakarrik bizirik utziko. Baña, ordukoz, iñori ezer egin gabe joan itun. Eta, ez bazuten obeto elkar artzen, aiek berriro etorriko ziran beldur aundirik etzegoken. Sartzeko zai zeudenak izan balira, ez itun ain paketsu joango noski. Nai zutenean sartu, bideak aske zeuzkateken. Etzeukateken presik.

Urrengo egunean, Agorrillak amairu, sartu itun Donostia'n. Bide txigor guzietan beera ikusten genizkin endanaka-endanaka jexten. Gure etxe inguruan beera, garai bateko bide xaarretik. Au uan antziñako bidea. Oiartzun'dik eta Errenteri'tik zetozen bideak, gure etxe aurrean egiten ziteken bat; eta emendik, Konkorene'n beera, Donosti'ra jexten uan. Auek ere, bide txigor askotatik, baserri-atarietatik, erreka xigorak ibai aundira bezela, bide ortara ertetzen itun. Gure etxera orduko, gudarozte polita osatu ziteken.

Batzuk oiuka, besteak ixilik, joan itun aurrera; baña pakean. Amaikak ase ziteken beren egarria gure atariko iturrian, on egiñaren eskerrik emango ez baziguten ere gero.

Geienak aurrera jarraitu ziteken sail batean. Baña baitun banaka batzuk gero etorri ziranak. Bost erriberatarrek gure etxean jan ziteken, berak nonbaitik lapurtutako ollo zar bat. Agian gure etxekoa. Eman zioteken anaiari maneatzeko ta uraxe jan ziteken; jakiña, etxeko sagardoa edanaz.

Beren armakin itun ta ez giñun geiegi ausartu. Odol-usai pixarren bat ote zekarten iruditu zitzaidaken, aien elkar-izketa entzunda.

Gizarajoak, aspertu ta etsiak zetozen. Ez baiziran ogei urteko mutillak.

–Noiz eroriko ote da Madrid? –zioteken. *Paseo militar* bat egitera zijoaztela, lau eguneko lana guzia. Madrid'era joan bear zutela, an beren agermena egiteko, esan omen zieken. Baña bi illabete joan itun eta oraindik, esate baterako, ez itun etxetik atera.

Aien etxera itzuli-naiak etzeukaken neurririk. Dena erabat utzita ertenak itun eta, bein izena eman zuten ezkerro, militarrei lotuak zeudeken. Aurrera joan bear. Aiei orduan aukera eman balie, Donosti'tik txuxenean pozik etxera itzuliko itun. Auek beñepin adin xamarrekoak itun.

Beren ollo ta sagardo asekada egin zutenean, pake-pakean aurrera jarraitu ziteken, banaka-banaka atzetik zetozenekin bat eginta.

Geiago ere etorri itun auen atzetik. Aien

artean, leitzar euskaldun bat. Arekin, bai, itze-  
gin genin, bera zabaldu zitzaiguen galdezka-ta.

–Gu pakean gatozik –esan ziguen–. Etze-  
kargu inor iltzeko asmorik, gogorik ain gutxi,  
orain zuen etxetik erten diran oiek bezela. Gizo-  
nak iltzea, gosari goxoena baño naiago ditek  
oiek. Piatzen al zerate oiekin?

–Berak etorri zaizkiguk, bada, ta armatuak.  
Guk zer egin bear diagu? Datorrena maitasunez  
artu. On egiñaren truke, ez dituk tiroka asiko.

–Alare, auek baño okerragoak etorriko zaiz-  
kizute. Auek, beñepin, beren bizia gurekin ba-  
tera arraixkuan jartzen ditek. Baña badituk,  
guk artzen degun lekura atzetik automobillean  
datozenak. Oiek dituk gaixtoak; oiek beldurga-  
rriak. Oiek etzekitek errukitzea zer dan. Barea  
baño otzagoak dituk. Beren paperetan zekartek  
guzia idatzita: zein il bear dituzten, nori multa  
kendu bear dieten... Denaren kontuak aterata  
zetozek. Jakiña, denak ez dizkitek arrapatuko.  
Etzekiagu orduan zer asmatuko duten. Mende-  
koaren onerakorik ez beñepin. Auek odola ixu-  
ri nai ditek, erria beldurrak aidean jartzeko.  
Bost urte auetan gizon-iltze au pentsatua, ge-  
roztik polliki-polliki beren ixpien bitartez eder-  
ki egosi ta antolatuta ertenak dituk.

Rekete onek asko zekiken. Oien berri ondo  
ikasia uan.

Auek, gure iturriko uretan beren egarria ase  
ta aurrera joan itun. Guri naiko zer pentsatua  
utzi ziguteken beñepin.

Eraso txarraren beldurrak gure baserrira  
etorri ziranak, San Markos arunzko nekazariak,

beren bei ta trasteak artu ta joan itun, etxekoak bakarrik gelditzen giñalarik aitaren ondoan. Baña kezketan, urrengo egunean zer gertatuko ote zan.

Bordazar gure baserria erri aundietatik urruti zegoken. Ori bentaja aundia uan guretzat. Baña, zoritxarrez, mendi batzun erdian; eta mendi oietan bi guda-gaztelu. Inguru artan, berriz, etzegoken urik, gurean bestetan.

Txoritokieta utsik geratu uan. Baña ez San Markos. Konpañi bat osoa geratu uan emen. Naiko jana bazeukateken, gorriak eraman ta ara bildua. Batez ere, konserba-gauzatik aukera. Edena emana zegon edo ez, arraixkurik gabekoa. Baña ala ere edaria palta.

Egunsentia nabarmendu ezkerro, asi itun gain-beera, beren ontziak bizkarrean zituztela, gure etxe aldera ur eske. Batzuk, iñori ezer esan gabe, atariko kanillatik artuko ziteken eta pakean joango itun.

Beste batzuk, lotsa gutxikoak, txuxenean sukaldera sartzen itun, noski, zer ikusi. Ortan, guardiazibillak itun okerrenak.

Amaikak alde ortan, guardiazibil zikoitz oietako bat txuxenean sukalderaño sartu uan ixil-ixilik. Arek jarri zuen muturra, bein garrafoia bete zuenean! Itz bat bederenik aterazitzen ote genion, nai bazuen edan sagardo bikaña bageneukala eskeñi genioken.

Erantzun orde, purrustada batekin aldegin ziguken. Aitak esan ere bai:

—Orixe dek Kaipas illuna!



Erdaldunai *kaipasa* esateko oitura zeukaken.

Gu artan geratu giñun. Alakoa izango zala bera; edo, jende asko ikusi zuelako, izututa aldegingo zuela.

Bederatzi anai bizi giñun aitarekin. Amar gizonaeko, emakumerik gabe. 1919'garrena ezkerro, ez uan gure etxean emakumerik, eta gertakari auek ogei ta amaseikoak dituk. Zaarrenak ogei ta amar urte beteak zizkin; gazteenak, berriz, amasei. Etxea bete gizon, gudateak batera irauten bazuen, denok, deitzen zituzten kintetan, arrapatzeko arraixkuan. Azkenean, zaarrena ez besteak arrapatu gaitziken.

Guardiazibil erretxin ura etorri zanean, bada, gu bost-sei izango giñun sukaldean. Orrekin izututa joana ote zan pentsatu genin; denak ez giñala etxeakoak izango irudituko zitzaiola.

Ori ortan igaro uan. Guk zer txarrik pentsatu bear genin? On egiten zien etxe bat ondatzera ez al itun etorriko.

Egoarte guzia lanean igarota, ordubiak aldean bazkaltzera bildu giñanean, ez genin bazkari aberatsa: babarrun-saldarekin zopa; gero, babarruna; ondoren, etzekit zer gendun. An etzegoken kaperik; postrerik ain gutxi. Gu lanari erantsiak bizi giñun. Ori uan gure eguneroko ogia: lana galanki egin ta beartsu bizi. Jan da jantzi ta zorrik ez bagendun, zoriontsu. «Zorionekoak beartsuak» iñorentzat izatezkeroz, gu erdiz-erdi arrapatzen gaitziken Jesusen goratzarre orrek. Etziguteken, ordea, orixe ere jaten utzi.

Etxean sartu giñaneko eta gure mai xaarrera zortzirok urbildu, ate itxia azpikoa, gañekoa ez, egun aietako gora-beerak esaten ari giñala ta iltzea baño geiago pentsatzen ez gendun orduan, ostiko batekin ateko maratilla bere errotik aidatu zin purrustadan lenengo sartu zanak. Ate gañekoarekin buruko ederra eman zidaken neri, ni bainengon sarreran.

Jauzi batean aurrean txutik jarrita, pistola txar bat eskuan, «*¡Manos arriba!*» oiu egin zigukenen erdera latzean.

Alako ustegabekoa uan, zer pentsatu ez genekila geratu giñun, elkarri begiraka, gorriak edo beltzak zer ziran ezin ezaguturik, «Bertan txikituko al degu?» esan nairik bezela.

Baña etzegoken txarrean asterik. Atez kanpora ari zuten elkar-izketa nabaitu genin. Ez uan bakarrik etorritako txororen bat.

–*¡Manos arriba he dicho!* –oiu egin zigukenen berriz.

Bazkaltzen asi berriak giñun. Zegon bezela mai gañean utziz, aita aurretik besoak jasoz, zazpi semeok ondoren, gerea gendun etxetik aurrean atera gaitziken. Kanpora orduko ikasi genin sartu berri ziran oietakoak zirala. An bai zeuden zai, atarian, bi txapelgorri ta bi palanje. Aiek izan baziran, ez uan goxoa izango. Baña aukerak beldurgarriagoak itun oraindik. Aixa agindu ziteken besteren etxean.

–*¿Dónde está la escopeta?* –lepoko zañak eten zori, oiu egin zigukenen uretara etorri ta zeero zapuztua joan zitzaigun guardiazibil erre arek.

–Ori al zuen guzia? –genioken guk elkarri.

Itz bat esatea aski ta dena konpondua zegoken. Eskatu izan baligu, berari emango genioken. Guk ez genin aren bearrik. Aiek, ordea, etzebiltzaken konponketa on baten billa.

Eskopeta ura auzokoa uan. Bi illabete aietan metapean ezkutuan edukia. Erdoi-erdoi egiña. Etzizkin orduko amar pezeta balio. Arek emango zizkioken alako larriak, urketara etorri zan ero ari. Emendik asi uan gure gurutz-bidea.

Eskopeta eskuan artu zuanean, lasaitu uan gure guardiazibilla.

Gu atarian rekete txiki baten mende utzita, olloak baratzara bezela, etxeko bazter guziak aztertzeraz sartu itun.

Iru eskopeta bagenizkin gure-gureak, erriko lengo agintarien baimenez geratuak, berdin aita-semeak guziak eiztariak giñun-ta. Baña legez zeudenak, beren gia ta bear ziran pase edo lizentziarekin. Auetako bost baitun etxean. Iru eskopeta itun eta bost lizentzi. Ez gebiltzaken, bada, kontrabanduan. Beste perdigoimordoska bat ere bai, porrot egin zuen leku batetik ekarriak. Auek, San Marko'ra ezkerre, polbora biurtu itun. Baña ontatik etziteken ezertxo ere arkitu. Eizeko kartutxoren batzuk beteak. Beste gañerako guzia, txatarra. Deitu zuten *maestro armero* batek *consejo de guerra*'n esan zuen bezela: *Pura chatarra*.

Denak kanpora ekarri zizkiteken. Baita garai batean anaiak soldaduzkan ibillitako kartutxerak ere. Autsa kendu ta garbi-garbi eginta, atarira ekarri zizkiteken aiek ere.

–Norenak dituk auek denak? –oiu egin ziguteken.–Oiek denak gureak, legez daudenak, beren gia, lizentzi ta guzi.

Aientzat etziteken olako arrazoiak balio. Aiek erreak, suminduak zeudeken, mendian ainbeste lagun galdu zituztelako, ta ordañak jaso nai zizkiteken.

Baña norbaitek salatuak izatea ere zitekena uan. Berdin auzo askok zekiteken gu eiztariak giñala ta, nai ta nai ez, eskupetak izan bear genitula. Auzoko mutil bat etxetik iges eginta baizebillen San Markos'ko rekete aien artean. Kontzientzi gutxi xamarreko gizona gañera. Dana dala, beñepin guri ori gertatu zitzaigukun eta gure atarian ez uan atsegin.

Aietako palanje gazte batek ala zioken, lelo bat bezela:

–*¡Todos habéis de morir!*

An zebiltzaken atzera-aurrera, zer erabaki etzekitela. Orduan bati bururatu zitzaiokeen:

–Zuek, gañera, etzerate denak sendi ontakoak.

–Bai, bai. Gu denok aita onen semeak gaituk.

Orduan zieken auzoko baserritar bat sarraskira. Bere buruan besterik pentsatzen etzuana, ez uan arentzat guda gaizki etorri. Ezkerreko besoa non daraman ez dakiten oietakoa, baño eskubitarra ixilka. Guk bagenekiken. Ondo ezaguna genin. Bere petralkeri ta berekoikeri guzien gañetik, gure maitea uan eta beti sarrera aske zeukana. San Markos'era zieken gurdiarekin, sarraskira alegia, gorriak an utzi zituzten

gauzen billa: koltxoi, manta, batez ere jakia, kontserbakoa... Len ere esan dit: ez baizan guda danentzat gaizki etorri. Beste auzo bat ere bagenin, guda bukatu zanean naigabez esan zuena:

–Lastima guda au bukatzea, diru egiten bapo ari giñun-ta.

Ura gurdiaekin gora ikusi zutenean, laxterka arengana joan itun eta ala galdetu zioteken: ea etxe ortan bagiñan zazpi senide.

–Bai, bai. Zazpi ezik, bederatzi ere badituk.

–Non dizkitek, bada, beste biak?

–Aurrera joanak noski.

–Armetan diok?

–Bai, bai, zalantzik gabe. Auek ere abertzale beroenetakoak dituk, inguru auetako baserri-tarrrik geienak bezela.

Aien galderai erantzun bearrean, ajola gabe gu abertzalerik beroenetakoak giñala salatzeak, ordu artan naiko lanak eman zizkiguken. Bizirik utzi giñuztenean ez giñun asarre.

Goxoak jetxi itun. Amorratuak, beren onetatik atereak, amar metrora aurrean jarri zitzaizkiguken, beren armak gure aldera zuzenduz. Guk etsi genin gure azkenak etorri zirala.

Gazte arek, berriz, eten gabean lelo bat bezela zioken:

–*¡Todos habéis de morir!*

–Bai, motel, bai. Oraintxe sinisten diagu, txorakeritan ez zabilzatela.

Batek oiu bat egin, besteak bestea, ezin itun aiek ere elkarrekin konpondu.

Oraindik palta zizkitek bi aiek, etxe ba-

rruan zebiltzaken. Baña ez arma billa, guardia-zibil ta palanje erre aiek bezela. Aiek, atsegin zitzaien edaria billatu zutenean, zoriontsuak itun. Botilla sagardoak billatu zizkiteken. Patrikan bana sartuak, beste bana eskuetan baña zabalduak, andik tragoxkak egiñaz, ezer gertatuko ez balitz bezela erten itun.

–Mendi madarikatu ortan ez diagu ur zikiña besterik arkitu. Au dek edaria, au! –zioteken biak atsegiñez.

Aiek reketeak itun eta estuasun artan erruki-izpirik ba ote zegon beñepin aien biotzetan, gu denon begiak aiengana itzuli itun.

Berriro palanje gazte arek oiuegin zin:

–*¡Todos habéis de morir!*

Arek etzin pentsatzen ere gu bizirik geratuko giñanik.

Orduan esnatu itun rekete aiek, eta lenengo begiratuan antz eman zioteken an zer gertatzen ari zan. Bietan zaarrena bi palanje aietara joan uan:

–Ez al dakizute kapitanaren agindua? –galdetu zieren.

–Bai; baña auek ez ditek bizirik merezi. *¡Todos habéis de morir!* –zioken berriro.

–Zer zekiagu guk auen berri, auek nor diran? Ainbeste gazte etxean arkituta izutu gaitzik. Baña agidanean denak anaiak dituk, aitarren ondoan geratu diranak. Gizon iltzen ibilli dirala bagenekire, gu ez gaituk nor auek iltzeko. Agindu bakar bat eman ziguk kapitanak: diranak dirala, bizirik eramateko; ez egiteko

gure eskuz justizirik. Nik bezelaxe entzun dezute zuek ere.

–Baña abertzaleak dituk. Bi aurrera joanak.

–Etzegok ajolik, komunistak badira ere. Guk, bizirik eramateko agindua artu diagu eta bete dezagun.

Arrazoi auekin etzeturreken bat palanje gazte txatxu ura. Ukabilla jarriz, berriro oiuegin ziguken:

–*¡Todos habéis de morir!* Txorakeri bat iruditzen zaiguk auek ara eramatea; igo ta itz bi egin orduko, besterik gabe iltzeko aginduko zigutek-eta.

Guk entzuten genin elkar-izketa au guzia. Aiek zebilkiten leia, batzuk iltzeko ta besteak ezetz! Baña bitartean oztutzen ta apaltzen ariuan falanjeen asmoa. Requeteak ez itun iltzearen aurka. Agindua bete bear zutela, goien iltzeko agintzen bazuten ere. Aiek berena egingo ziteken eta garbi geratuko itun. Laxter antz eman genioken, txapelgorrien arrazoiak irabazi zuela auzia. Orduko beñepin salbo geundeken, oraindik beste alako estuasunen batzuk ikusi bearko bagenitun ere.

Azkenean, polliki-polliki oztu itun eta palanjeak etsi ta amor eman ziteken, baña ez be-realakoan eta beren gogoz. Kapitanaren agindua artu zutelako ixildu itun. Orregatik arek ere bitatik bialiko zizkin.

Jainkoa beste lekukorik etzutenean, zenbat olako ez ote zuten egin? Il ta aurrera, odolarekin mozkortuak. San Markos'era joatean, ez itun bada ixilik geratuko.

Orduko larritasunak igaro itun. Gero gero-koak. Otoitz egin nin; Nere Jesukristo Jauna pin asko esan ere. San Markos'en ere Jainkoa gurekin izango al genin. Berdin errugabeak giñala ongi zekiken Arek.

Bildu ta bota zizkiteken zaldira, etxean billatutako traste zikiñak, eta gora abian beiak marrika asi itun. Aiek ere beren orduan zer jana eskatzen ziteken. Orduan aietako batek ala esan ziguken:

–Zuek olakoak izanaren errurik ez ditek oiek, gizarajoak.

Berak errugabeak balira bezela. Nola itxutzen dan bat! Aiei etzitzaieken iruditzen berak oker ta gu zuzen joan giñezkenik.

Gora abian, etorri itun bost soldaru, gure iturrian edatera; ta batek asarre bizian eraso ziekien ango rekete ta palanjei:

–Ori dek lana ari dezutena, on egiten diguna zigortuz! Sartu giñan ezkerro, amaikak edan ditek iturri ontan. On egiñaren truke zuek zigortzera eraman!

Etzioteken ari bakar batek ere itzik trukatu. Ez dituk soldaruak, ez, or ilketak egin dituztenak. Auek, irutatik bi, beren borondatearen aurka zebiltzaken. Beste batzuk dituk amaika millaren eriotzen errudun.

Oloak, gizarajoak, gure artean lasai zebiltzaken, zer gertatzen zan etzekitela. Gu joatean, laxter asiko itun bakantzen.

Etxea uts-utsik geratu uan. Nai zuenak lapurtu, etzeukaken aukera txarra. Onuzkerro, gure baituzaleak begiz joak edukiko zizkiteken.



Gudarekin zer ikusi aundirik etzutenak ere eramán zizkitekten etxetik. Aiek ez itun bada armak. Gure etxe beartsurako ez itun gaizki etorriko.

Gure gudazaleak ez itun gaizki ari, jabeak il ta aien aberastasunak iresten.

## SAN MARKOS

San Markos, gure etxe aurreko mendixka bat dek. Lau aldeetatik soilla, zugaitz gutxikoa alegia, bere gallurrean zegok guda-gaztelu bat, fueroak galdu ziranean jaso. Oso mendi polita omen uan, eta bere izena: Bizarain. Ermitatxo bat ere bazeukaken orduan. San Markos izena bazeraman ere, Errenderi'ko zaindari dan Madalena Deunaren irudia omen zioken ermitatxo ortan.

Etzioteken asko begiratu orri. Ermitatxoa bota ziteken. Gaur egunean Guadalupe-ta bezela izan bear zuen lekua, guda-tresnez betea geratu uan.

Or zeudeken, bada, gure zapaltzalleak eta ara eramango gaitziken.

Orduantxe asi uan gure familiaren gurutz-bidea. Ez giñun geiago denok gure sukaldera bilduko. Amaika neke ta ixtillu zeuzkateken ikustekoak gure etxekoak beste bost bat urtean. Ori, geratzen ziranak. Urruntzen giñanok ere, ez giñun, bada, eztaietan biziko.

Jainkoaren bideak ezkutuak omen dituk eta Aren naiera burua makurtu bear. Borondate ortara umiltzen danari, suprikizunak berdin etorriko zaizkiok; baña bazekik zergatik daraman bere gurutz-bidea. Iñori txarrik egin ez, egiteko asmorik ere ez, eta ainbesteko zigorrak jasan bear! Ez dek uler errexá, baña egia. Au irakurtzen duanak, ikasiko dik gure gurutz-bidearen berri.

Len esan dedan eskupeta txar artatik asi uan guzia. Andik aurrera, salatzalleak osatuko zitezken. Puska bateko negarra sartu zitezken beñepin gure sendian. Etziot beste olakorik opa iñori. Ori dena, iritziz aien aldekoak ez giñalako. Gañerako aitzakiak alperrik dituk.

—Egin bedi, Jauna, zure borondatea, esan bearko. Ordu ontan etzegok otoitz oberik. Aren bideak igaro bearko dizkiagu guk ere orain.

Anai bat aurretik, zaldia sokatik zuela; beste gañerakoak atzetik. Gu aita ta zazpi anai, beste auzoko bi gazte, pusilladunen erdian aldapak gora asi giñun.

Ume giñaneko garai batean, ikastetxera ginjoazenean, iñoiz ikusten genizkin, ijito-sallak aurrean artuta bialtzen mikeleteak. Aiek besterenetik bialtzen zizkiteken. Gu, berriz, gure etxetik, gendun guzia utzita, ez jakinki biur-tuko giñanik. Etxean larri giñun; gora ere ez giñuzteken, bada, musu bat ematera eramango.

San Markos'eko aldapan badek kantina txiki bat. Gure ezagun aundiak bertakoak. Gure berri ikasi zutenean, ango emakumeak beñepin

Madalen bat egiñak arkitu genizkin. Gu ezkutu orduko ixilduko itun negarrak. Aztuko giñuzteken gu. Baña gure etxean geratzen ziranak, bizirik ertetzen bagiñan beñepin, ez itun berealakoan aztuko.

Alaxe, kantina ortatik gora igo giñun, aldapaxka txiki baten ondoren, San Markos'eko gaztelu gañera. An geneukaken beste larritasun bat igaro bearra. Gu zaintzen egon zan rekete txiki ura, nere ondoan geratu uan. Besteak barrura joan itun. Ez, ordea, guardiazibil ta beste palanje gazte ura. Eundokoak kontatzen ari itun tenienteari.

Aien ango ixkanbilla nola bukatuko zan kezketan geundela, rekete txiki arek esan zidaken belarrira:

*-¡Animo, muchacho! ¡Ya verás cómo todo sale bien!*

Anaiak aurrera joanak etzuela ezer esan nai. Arek ere bazuela bat. Baña beña etzala, besteak baño atzerago geratzen. Etxean ere igerri nio-ken nik ari, etzuela gure ondotik aldegin, zer gerta ere. Ori esanta, barrura joan uan.

Besteak, berriz, an ari itun, asma-alak guregatik esaten; eta, uste detanez, orretzek galdu zitula.

Etzieken, noski, tenienteak guzia sinisten. Beñepin, azkenean barrura sartu giñun. Egin zuten *consejo de guerra* ura, gu garbitu nai giñuztenei etzaieken ondo atera. Kapitana ere ez uan sallean, ta azkenean denok barrura eraman gaitziken. Bitartean, gure etxeko olloak ariko itun bakantzen.

Gure zaldia ustu ziteken. Ango trasteak aurrean ipiñi ta banaka-banaka aztertu zituzte-nean, aien lenengo lana katxeatzea izan uan. Lenengo, aita. Ura zegoken aurrea. Ta ondoren guziok, banaka-banaka. Etzioteken iñori ezer arrapatu. Neregana etorri zanean, zerbait billatu zidaken, berak uste etzuana ta nai etzua-na gañera.

Arratsero etxean errosaioa esateko oitura genin, eta ni niñun esaten nuena. Orduan ere nerekin neramazkiken. Eskuarekin ukuitu zitu-neko, antz eman zioken zer ziran; baña etzizkin bistara azaldu.

Relijioaren izenean salta ziran batzuentzat, berak gaiztotzat baitu zuten baten patrikan aiek arkitzea, ez uan itxura ona. Ango gudari asko adiñekoak itun. Geienak reketek. Elizkoi zintzoak ez baziran izango ere, beste beltzez jantzi-tako aiek baño beroagoak noski. Beñepin, ixilik eta agertu gabe patrikan utzi zizkin. Ari etziztaioken komeniko. Txapel gorria bazeraman ere, ator beltz oietakoa zeukaken. Oiek itun azken orduan sartuak, eta geienak anarkistak.

Nere urrengo ta azkena zegona, anairik gazteena uan. Arekin ibilli zizkin ixilluak. Patrikan zerbait bazeukala igerri zioken. Patrikako kosturan beera joana puska txiki txorrotx bat. Egiñalak egin zizkin uraxe ateratzen. Bai azkenean lortu ere. Zer zan ezagutu zuenean, amorruz ta indarrez lurrari tira zioken. Arek usteko zin pistola-bala txikiren bat zala. Baña urritz basati baten ale txiki bat izaki. Gu galtzeko aien amorrua, jaunak!

Ori bukatu zanean, teniente gazte bat, baña benetan gizatxarra, asi uan galdezka. Aitari etzioken galdetu. Eroak ere igerriko zioken, ura etzala ara ta onera ibillia izango.

Zaarrenetik asi uan. Banaka-banaka danei galdetu ondoren, alderdikorik etzin bat baka-rrik arkitu.

Danetatik bi arkitu zizkin, sindikatuan sartuta zeudenak: bat nere anaia ta bestea auzoko mutilla. Biak kanpoan lana egiten zutenak, eusko langilleen alkartasunean sartuak zeudela.

—Nola liteke batzuk bai ta besteak ez, langilleak izanta?

Galdera oni nik erantzun nioken: Baserrian lana egiten zutenak etzeukatela iñongo sindikatun sartu bearrik; eta an, bi ez besteak, etxean lan egiten zutela. Kanpoan lan egiten zutenentzat, nai ta nai ezkoa zala. Etzituztela iñongo lantegitan artuko bestela.

Teniente arek armen berri jakingo zin. Baña politika ta langille-kontuan, arek etzekiken ezertxo ere, eta aiek zetozeke guri erakustera.

Oiartzuar rekete batzuk bazebiltzaken aien sallean, eta aietako bat deitu zin: esateko ea zer zan eusko langilleen alkartasun ori.

Langilleen batasunerako sortua zala ori. Baña etzeukala zer ikusirik politikarekin. Euskalerrian geienak or zeudela sartuak, eta denetan paketsuena bera zala. Ura ere an sartua zegola. Nai ta nai-ezkoa, lanik billatuko bazuan. Geia-go ere bazirala; baña beti okasio billa zebiltzanak.

Arek esana entzun zuenean, ez bazuen uler-

tu ere, berak ortaz ez baizekin ezertxo ere, etzioken garrantzi geiegirik eman.

Ondoren, bi kutxa txiki baitu zizkiteken, giltzaz itxiak. Bat, aurrean zanarena. Arek kanpoan lana egiten baizuen. Bestea, etxekoarena. Giltza beartu ta dirua agertu uan. Milla pezeta. Ori, etxekoarenean. Gaurko, utsa dek. Baña orduan dirua uan. Aiei begiratzuz:

–Nondikakoak dituk diru auek? –galdetu ziokeen Antoniori.

Eguneroko lanaren saritik aurreratu zuela.

Baña alare etzioken eman. Berak gorde zin. Eta, gu espetxera eraman giñuztenean, Erren-deri'ko udaletxean utzi zizkiteken. Aske erteten bazan, biurtzeko asmoan. Bestela, berak jasoko zizkiteken.

Norbaitek esanta bazekiken ori aitak; eta, semea il zutenean, eske joan uan. Militarrak eraman zutela, erantzun zioteken.

Beste kutxa, berriz, aurrera joandako bate-na uan.

Ereki zuenean, an ere dirua azaldu uan. Baña eusko ikurrin eder bat ere bai. Artu ta amorruz bil-bil egiña, lurrari tira ziokeen. Ez uan, ordea, an geratu. Adiñeko rekete sendo batek artuta, txukun-txukun bildua bere sakelean sartu zin.

Nere ondokoak eta nik par egin genin, ori ikusita. Subegorri bat bezela jarri zitzaigukun teniente erre ura: Berriz olakorik egiten bagendun, bina tiro emanta bertan seko utziko giñula.

Ixilik geratu giñun, ta geratu bearko! Aren aurrean etzegoken txorakeririk.

Beren azterketak bukatu zituztenean, gurekin zer egin erabaki bear: etxera edo aurrera bialli edo bertan il.

Bi edo iru rekete adiñekoak urbildu zitzaizkioken tenienteari, eskatuz:

–Ez degu uste auek gaixtoak diranik. Edozer aitzakigatik ezin litezke il.

Denbora puska batean, beren erabakia artzen zuten arte, urduri zai egon giñun. Noizbaiten buruan, ordea, kapitana xar luxaxta bat etorriuan eta ala agindu ziokeen tenienteari:

–Agure gixaixo ori bial zazute ortik etxera.

Au aitarengatik esana uan. Orduantxe lasaitu giñun, San Markos'en beintzat ez giñuztela ilko. Baña oraindik ordu laurden bat an igarozin, anai bat zaldiarekin urketara joana baizan ta ura andik etorri arte. Ala esan zioteken urketara zijoan anaiari:

–Igesirik egiten badek, auek denak bertan ilko dizkiagu.

Baña ongi bete zin bere itza. Etorri zanean, ala esan ziguken:

–Nai izan banu, aixa igesi egingo nin. Zuek ez baziñazten emen, ez nioteken geiago arrapatuko, ez, ni.

Gero, gizarajoa, Ondarreta'n il ziteken.

Orduan aitak, sokatik zaldia artuta, aldegin zin andik, utsik zegon etxera, seme guziak San Markos'en baituta utzirik. Kantina txikian ardoa eskeñi omen zioteken, eta aita ezin irentsiririk geratu omen uan. Len ere supritzea zer zan zekina uan. Baña etzin ori izan bere bizitzan naigaberik txikiena.



Aita joan zanean, lasaitu egin giñun. Pena ematen ziguken, arratsalde guzian ura an txutik ikusita.

Ordurako illun-bista uan. Apari lege bat eman ziguteken: atuna ta ura; ta lotara biali gaitziken, gorriak utzi zuten koltxoi ta mantapilla batera.

Oitu bezela, an arratseroko errosarioa esan genin. Etzekit gure etsaiak entzungo ziguten, oraindik ara ta onera an zebiltzaken-ta.

Ixilik geratu giñun, nai zuenak lo egin. Iku-sia zegoken etzerala iltzera ausartzen, baña ez giñuztela askatu nai ere. Auek eskuak garbitu zizkiteken eta aurrera biali.

## UDALETXERA

Arratsa nola edo ala igaro genin, esna edo lotan, koltxoi ta manta tarte artan. Baña ez uan iñor itzegitera ausartzen. Zer ordu zan ere ez genekiken. Iñork ez baigendun erlojurik. Baña nabaitzen genizkin ara ta onera asiak gure baituzaleak, etzekit guardia txandan egiten zutelakoedo.

Aspaldian erne geundenen, bada, geienok; baña geron baitan lotuak, zertan bukatuko ote zan dana. Aitarekin batera biali ez giñuztenean, zer asmo zuten? Arratsean eraman ta ilko ote giñuzten ere, pasa uan nere burutik. Bakoitzak bere oldozmenak ibilliko zizkin buruan; baña geienona, beste norabait, aurrera, aginte aundiagokoren batengana, arek erabaki zezan gure auzia, eramango giñuztela.

Egunsentia nabarmentzen asi uan. Ikusi nizkin reketeak ara-onera. Baña ez giñun, oitu bezela, ollarraren kukurrukura esnatu. Tristeegia izan uan, bada, geienontzat egunsentia, gure egoera larriak zapalduta.

Ortxe, zortziak aldean, uste ez gendun bixitaxoa izan genin: auzoko neska. Arek ere bi anai gurekin batera baituak zeuzkaken. Etxetik gosari lege bat ekarri ziguk: kapesnea, nai zuenarentzat, eta tortilla aundi bat.

Gure aita zana ez uan neska arekin ondo konpontzen. Baña, olakoetan, txorakeri oiek aztuta, adiskidetasuna sortzen dek. Gure sukaldean jarri ziteken, gañera, gosari lege ori.

Gogoa zeukanak jan zin eta geienok ondo. Nork zekiken urrengo otordua noiz egingo gennun, egiterik izaten bagennun? Eta guk, beñepin, erdiz-erdi asmatu genin, beste egun batzutan barau gorrian eduki gaitziken-ta.

Ez genin asko itzegiterik izan. Zer esanik ere ez. Oraindik egun bat ez geramakiken, baituak geundela.

Aita oso zapaldua ta triste zegola esan ziguk. Ez dek batere arritzekoa. Ainbesteko sallarekin oitua, orain bakar-bakarrik etxetxuloan. Bere semeak ere zer azkena izango zuten, oraindik jakin ez.

Ura ere joan uan andik askatasunera. Baña gu an geratu giñun, koltxoi-pillan estaliak, zerbaiten atzera-aurrera ikusteko zaletuak.

Kamioi zaarren bat deitua izango zutela uste genin. Bestela, zertako geratu erazi giñuzteken San Marko'n?

Asper-asper egiñak geundela, izketarako gogorik ere ez geneukaken. Ez baigendun iñondik erteera garbirik ikusten. Aita bakarrik bialtze orrek itxura txarra zeukaken guretzat.

Alako batean, arpegia garbitzeko ur pixka

bat eman ziguteken, eta bereala kanpora atertzeko agindua. Etziguteken zertara esan; baña etzin iñork ere txarrenik pentsatu. Kamioi zarren bat etorriko zala eta an bialiko giñuztela beste bazterren batera.

Gazteluz kanpora atera giñanean, an geneukaken zai, gero gure lengusu izango zan errenderiar bat, bere kamioiarekin etorria.

Guk ez bezelako jokia egin zin arek. Ura ere, kamioia zuen ezkerre, ez uan bada gorriei lagundu gabe egongo. Onean edo txarrean, egin bearko zin. Baña salatzallerik ez. Gañera, bere kamioia edozertarako. Ura aske geratu uan. Guk, xagu bat ere il ez gendunok, baitu ta espetxerik espetxe. Ez genioken txarrik opa.

Ortan pentsatu, joan ziran erriko agintariak zer pulamentu zeukaten. Etzitzaioteken auei olakorik gertatuko, ez.

Nor giñan ezagutu giñunean:

–Zer gertatu zaizute, denak batera eramateko?

–Beste askok egin dutena: ezer ez eta bertan geratu. Suerte txarra izan degula; besterik ez.

Denok igo giñun kamioira. Gurekin beste bost soldaru kaxkar ere bai. Gure trasteak bota zizkiteken. Iñork ez bazigun esan ere, bagenekiken nora ginjoazen: Erenderi'ko udaletxera, an militarren buru zegonarengana, noski.

Zaitzalle geramazkinak oiartzuarrak itun. Euskaldun garbiak. Aiek ere, ordurako aspertu xamarrak.

Etziteken, noski, oraindik gu iltzeko asmorik. Eskuak garbitu zizkiteken eta aurrera. Aien

eskuetan, beñepin, igerri genioken seguru ginjoazela. Beraizik jarri zizkiguteken, gañera, Errenderia ondo ezagutzen baizuten, gure alde-koren batzuk billatzen ote zituzten.

Gero ikasi nuanez, tenienteak bere kezkek bai omen zeuzkaken. Eskupeta aiena itxura besterik etzala. Ikasiko zin, gañera, norbaitek esanta, denok eiztariak giñala, eta errugabeak ote giñan. Baña San Markos'en egintako billaukeriak kalterik txarrena egin ziguken gero. Kezka gaixtoak izan balitu, etzin egingo olakorik. Kendu zizkigukun perdigoia ren lekuan, arek ajola gutxirekin polbora jarri zin.

Andik gain-beera ederki ikusten dek gure baserria. Len, ain bizitz gaztez gañezka eta zoriontsua. Orain, utsa ta tristuraz betea. Egun batetik bestera egin zuen aldaketa! Olakoxea dek gure munduko bizitza.

Zokon artan an zegoken gure kabi goxoa, zugaitzez jositako mendiz inguratua. Orain arrobi zakar batzuk itsusitu badute ere, zoragarria uan orduan.

An zeudeken ainbeste aldiz gora-beera ibilitako gurdi-bide aiek, ainbeste neke eman ziguten bide zakar aiek, ibai baten antzera biurrika. Berriz aietan ibiltzeko aukerik izango ote genun?

An zeudeken sakabanatuak, negu lasai bat igarotzeko asmoan jaso genitun meta-belarrak. Artoak ere soilduak, buru-txurituak, oraindik beren babarrunakin.

Etxe-atari ta zelaietan ez uan iñor ikusten. Aita xaarra etxean ariko uan, maiz-maiz goiko

bidera begiraturuz, andik eraman zituzten semeak noiz edo noiz berriz azalduko ziran itxaropentetan.

—Agur, aita!, Agur, Bordaxar! Jainkoak nai dezala berriro pakean etxe ortara biurtzea!

Nik ez nizkin malkoak urruti. Ez besteak ere. Agur tristea uan ura. Azken agurra egin genioken denak. Batzuk etziteken geiago ikusiko. Ez uan, bada, txorakerizkoa gure agurra.

Ixil-ixilik, pentsakizunez beteak, sartu giñun Errenderi'ra. An etzebilleken katurik ere. Mor-doxka' bat Bilbo aldera igesi egiña uan. Beste asko, geienak noski, Ipar-Euskadi'ra. Errian geratu ziranak, berriz, bada-ez-bada beren etxeetan sartu ziran, biaramona uan oraindik-eta. Aterik geienak itxiak somatu nizkin. Bizia zala lenengo ta dena zegon bezela utzi, ateak itxi ta aldegiñak itun. Etortzeko suerterik izaten bazuten, etxea uts-utsa arkituko ziteken. Laxter asiko itun, ateak bota ta ango trasteak ebasten. Iruña alde ortan subastan saltzen omen zizkitezken. Ortaraño zapaldu ziteken neure erri xarra.

Santa Kruz eguna uan. Lezo erriko jaiak. Ez uan, oitu bezela, an ere su-ziririk. Beldurrak lotua zegoken.

San Markos bidetik jatxi giñun, Kaputxinoe-tako gañean barrena. Bereala iritxi giñun udal-txera.

Gu ta gure trasteak kamioitik ustuz, arek aldegin zin lasai bere kamioiarekin etxera, suerte on bat opa zigula esanaz. Eta gu, udaletxeko espexera sartu gaitziken.

Len esan dedanez, bost soldaruak ere gurekin geratu itun. Aiek ere, bada, ez itun kontentu, gurekin naastu zituztelako. Susmur txarra artzen zioteken, noski, ango egoerari. Gu nor giñan etzekiteken, eta gure suertea bera izango ote zan aientzat ere beldurrak zeudeken. Zetorrena zetorrela, oiuka ari itun, aiek etzituztela gurekin batera arrapatu.

Rekete aiek, abian ala galdetu zidateken:

–Iñor bai al dezute, zuen artean, auekin norbait dan eskubitarrrik?

–Bai, bai. Olako.

–Zuen lengusua al dek ori? Orrek asko lezakek.

–Bai, nai balu –nioken nere artean.

Ez niñun ni asko poztu, egiteko gaixtoren bat somatuko zuela nere aurka. Andik egun batzuetara arek esan zioken gure aitari:

–An dagon batek ondo-ondotik lepoa kentzea merezi luke, ibilli dan lekuan ibillita, iritzi ortakoa izateko.

Aitak etzidaken neri olakorik esan, San Kristobal'dik aske etorri arte. Bazekiken arek jakiteak kalte egingo zidala. Baña norbaitek, etzekit nork, esan zidaken, Ondarreta'ko *consejo de guerra* baño len. Naiko kezkak eman zizkidaken neri berri gaixto orrek.

Bere lengusu arteko sendirik geienetan, norbait izaten zin beretzat aukeratua, besteen iritzikoa etzana. Nerekin ere ori egin naiko zin, noski: beste anaiengandik ni berexi. Kukuak oker jo zioken. Aren iritzi zaarretarako ezikaitza er ten niñun ni. Orrek ere bere naigabea emango

zioken. Gañera, etxeko guziak, aitatik asita, iritzi ortara nik biurtu ote nitun kezketan bizi uan, bere illoba batek esan zidanez.

Etzeukateken nik eskolatu bearrik. Ni esnatzerako, bazekiteken eta maite ziteken, gañera. Oso euskaldunaren aldekoa baita. Gu, berri, denok euskaldunak izaki. Iñork bultza ta bero erazi gabe sartu uan iritzi ori gure etxean.

Etzidateken, bada, neri atsegin aundirik eman. Banekiken neretzat beñepin etzuala onik eskatuko. Oraindik ere zalantzan bizi nauk, ez banintz ni tarteko izan, ez ote ziran denak etxera etorriko, nerekin sumindua zegoken-ta.

Aiek aren berri ikasi zutenean, joan itun. Ez genizkin geiago ikusi. Baña bai ura an barrena ibillia zala. Laxter billatu nizkin nik aren aztarrenak. Gurekin itzegitera laguntza eskeñiz ez bazan etorri ere, an ibillia zala jakitea ez uan zalla. Jainkoak barka dezaiola, nik barkatzen diodan bezela.

Noizbait, txerritoki artan geundela, artu gennin deia.

Gurekin zeuden bost soldadu aiek ez itun ixiltzen, ikusten zuten guziari oiuka:

—Gu ez gaituzte auekin batera arrapatu. Gu, gorrietatik onera pasa geranak gera.

Baña alperrik. An etzioken iñork aien antsiei kasorik egiten.

Gure anai batek, izutua, ala esan zigukun:

—Entzuten al dezute oiek zer dioten?

—Oien esanagatik ez gaitzik ilko edo askatuko.

Udaletxean zegon gela batera eraman gaitzi-



ken. An zegoken, mai baten ondoan, ortxe berrogei bat urteko militarra. Bere izarretan eza-gutu nin komandantea zala. Burua erdi txuritu-a, gizon ederra. Izketan goxo ta atsegiña, ba-ña egintzetan maltzurra. Ura zegoken Errende-ri guziko nagusi. Gudatea baizan, eta gudan militarrek dituk buru. Irriparrez artu gaitziken.

–Señale txarra –nioken nereko–. Gizon auetan irriparretik maltzurkeria etzegok urruti. Irripartsuak askotan billauak izaten dituk, ko-mandante ura zan bezela.

Gure etxetik eramandako traste guziak an zeudeken, perdigoizakutxoak ere. Baña auk, San Markos'tik polbora biurtuak etorri itun. Emen ere, aurrean ikusiagatik, ala jardun zite-ken. Or konpon beren kontzientziakin. Goian jarriak bean jarraitu zin. Zakutxoak eskuan ar-tzea aski uan, bada, beste gabe ezagutzeko.

Jakiña: olako guda batean, polbora eduki-tzeak erru geiago zeukaken, gure perdigoizak arek baño. Ori egin ziguteken, bada, goian; eta beekoak, etzala egia ikusiagatik, etzin aldatu nai izan. Agian, lanik ez egiteagatik.

Amaika aldiz Donostia'n esan nioken gure epaille jaunari:

–Baña, epaille jauna: ori gezurra da. Etzan polbora; perdigoia zan.

–*El atestado pone pólvora.* –Ta kito.

Bere galdera batzuk egin zizkiguken: nola geneukan ainbeste munizio etxean.

Egunero Donosti'ra joaten zan anaiak, ura Joakin uan, ni baño ia bi urtez zarragoa, arek

egiten zizkin gure baserriko sal-erosketak, eta bera jabetu uan:

–Ez; oiek denak nik erosiak dira.

–*Entonces usted hace las compras al por mayor* –erantzun zioken.

Etzeukaken nolanaiko malezia erantzun orrek.

–Ez, jauna, ez. Saltzalle batek porrot egin zuen. Nik andik ekartzen nitun gauzak. Gu denok eiztariak geran ezkerro, banekin etzerala alperrik galduko. Eta, aukera onean nola jartzen zizkidan, erosi egin nizkion. Oiek, gutxienez, bi urte bazeramaten gure etxean –erantzun zioken mazal-mazala, egi biribilla, nere anaiak.

Etzekit sinistuko zion edo ez. Militarrak piakaitzak dituk. Baña eroa ez bazan, igerri bear zioken, anaia etzala gezurretan ari.

Ori ortan geratu uan. Aurrera joan bear gendunontzat, egundoko zama.

Onen ondoren azaldu uan nere lengusu maitearen lana.

Lau zaarrenak ezkerretara ta iru gazteenak eskubitara jartzeko agindu ziguken. Au ere azken juizioko sinismenari irri egiteagatik anbat egingo zin. Arek etzin sinismenik, ez gizonkontzientziarik ere, noski. Biotz gabeko bat uan ura. Bestela ezin ziteken biziarekin artara jolastu.

Agindu bezela, ala jarri giñun. Ni, bostgarrena nintzan ezkerro, zerurako aukeratua negoken. Laxter etorri uan deabrua, ez negola ni nere lekuan jarria; inpernua zala nik merezi nuena.

Papertxo bat zeukaken eskuan. Etzekit nondikakoa izango zuen. Andik irakurri zizkin gure izen-abizenak. Nerea, bostgarrena nintzana, laugarren irakurri zin. Nere anaiak arritu itun, ni deitu niñunean; eta jakiña, nik eskuitik erantzun nioken. Goxoa jarri uan gure komandante irripatsua:

—Eroa aiz i edo gaixtoz ari aiz? Oso leku txarrean ago, bada, neri irri egiteko. Bost tiro emanta, laxter bukatuko dizkit irekikoak. Ez al dit lau zaarrenak ezkerretara jartzeko agindu?

Ortan pentsatu, edozergatik gizonak iltzen oituak zeudela. Utsarengatik bost tiro emateko zemaia emen eta San Markos'en ere.

—Barkatu, jauna. Baña ni nere lekuan nago. Ni bainaiz emen bostgarrena.

Arrituta, eskuan zeukan paperera begira jarri uan:

—Emen i ago, bada, laugarren.

Ondoren, ala esan zidaken erdi parrez:

—*Aquí hay gato encerrado.*

—Bai, jauna, bai. Ori badakit. Baña etzera zu errudun. Zuri eskura papertxo ori eman dizuna da emen errudun.

Orduan komandanteak, nor izan balitz, txapela luze aren eskeari etzioken kasorik egin bear. Lau zaarrenak esan zin, bai, ta lau zaarrenak joango itun aurrera. Baña ez uan ala gertatu:

—Igaro adi ezkerretara.

Ta ango munizio guzien jabe egin zanarekin truke egin nin. Ura eskubitara joan uan eta ni ezkerretara. Baña anaiak etzin errurik. Agin-

dua bete besterik etzin egin arek. Gañera, zetorrena zetorrela, ausarditsu bera egin uan puska aien jabe.

Oraindik ez genekiken ziur zer gertatuko zan; baña bai guk parterik txarrena izango gendula. Berexketa orri oso itxura txarra artu geniokeen.

Ori ere zuzentasuna izango dek. Iñor errudun jotzezkeroz, denok sartzen giñun; denok giñun iritzi berekoak; denok etxe batean bizi giñun. Orduan, zergatik berexketa ori? Nere aurreko anaia autarkia emana uan. Ori ere ez nik, oraindik ez nioken arrapatzen ta.

Jainkoak lerro okerretan zuzen idazten omen dik eta emen ere ala gertatuko uan. Zitekena uan, txapela luzeak nere izena ematea obe bearrez. Ni etxera joaten banitzan, ia txuxenean aurrera joan bearko nin eta etxerako langille bat gutxiago. Ura uan, gañera, aspaldian Donostirako joan-etorria egiten zuena; ta, errena nola baitan, ura etziteken aurrera deituko. Baña bes-teren bizkar karidadea egitea zuzena al da?

Nik, beñepin, nere egun triste guziak, papertxo ura eman zuanaren erruz igaro nizkin. Au ere Jainkoak barka dezaiola, nik barkatzen diodan bezela.

Aiek etxera joan itun, bada. Auzokoak ere bai. Gu, berriz, aurrera. Lagunak galtzen ari giñun. Baña iñor ez uan gu iltzera ausartzen.

Bost soldaru aiek gurekin batera aurrera joan itun.

Santa Kruz eguna uan, lenago erdi jai egiten genduna. Aurtengo au ez genin goxoa igaro.

Etxean, larritasun aiek. San Markos'en, ez geneukaken piatzerik. Ikaragarriak egiñez zetoze-la esaten baiziguten denak. Orain Errenderia'n, berriz, berexketa parregarri au.

Udaletxetik erten ta Donosti aldeko bidea artu genin. Orduan nere buruari ala galdetu nioken:

-Nora ote goaz? Beste larri-aldiren batera? Edo orain ote da gure azkena?

Anaien burutik ere igaroko uan oldozmen triste au, entzuten ziranak gogoratuaz.

Gertatzen zana gertatu, zuzengabekeri galanta uan beñepin. Gu errudun bagiñan, zergatik ez besteak? Aiek errugabeak baziran, zergatik ez gu? Aiei barkatu bazien, zergatik ez guri? Noren eskua ote zebillen or tartean, aiek etxera bialtzeko moduak egin zitunak ez egiteko gureak? Galdera asko erantzunik gabeak, baña zalantza gaixtoak sartzen zizkigutenak biotzean. Agian, urrutira joan gabe, norbaitek jakingo zin erantzuten. Denak zor zuten zigorra, osorik gure bizkarrera eroriko uan, bada. Baña neri gertatzen zaidanaren errua, apaiz batek izango zin.

## DONOSTIA

Berriro ere kamioi zar batean artuta, gure trasteak ere gurekin, bost soldaru aiek ere bai, len ibilli gendun bidean barrena, Antxo'tik Herrera'ra, Ategorrieta'n barrena, txuxenean Gobierno Militarrera eraman gaitziken.

Ikusia zegoken, naiz San Marko'n, naiz Errenderi'n, etzigutela erru aundirik arrapatzen. Bestela etziguteken barkatuko. Bertan ilko giñuzteken. Ez, ordea, aske ere utzi nai. Pilatosek bezela eskuak garbitu ta aurrera. Orain, berriz, Gobierno Militarrera.

Gu joan giñanean, Donosti'ko sarreraren ospakizunak egiten ari itun. Beldurgarria benetan guretzat.

Balkoian an zeudeken gudalburuak, al zuten dotoreena jantziak, beren izar ta medalla guziekin. Batzuen bularrak antziñako pusken museo bat zirudiken. Ango medallak, ango gurutzeak, Jainkoak daki nola irabaziak.

Balkoian, erdiko zutoian, eundoko bandera españiarra zegoken. Aldamenetan ageri itun geiago ere; baña nik ez nizkin ezagunak.

Eguna erortzera zieken. Illunabar aldean.

Ospakizuna ziteken, baña berak bakarrik egiña. Donostia'k bai etzuela parterik artu. Agure zaarren batzuk bai itun ikustera etorriak, baña urruti xamar.

Denak egin ziteken beren igaro-aldia. Lenngo, soldaruak, beren bandera ta guzi, tanke kaxkar batzuk aurretik zituztela. Buru zutenak iru *viva España* oiuk egin zizkiteken, denak oiuka erantzuten zutela.

Ondoren, reketeak, beren txapel gorri, parpall oriak zintzilik zituztela, beren aurretik egundoko bandera española zutela. Auek ere, besteak bezela, iru *viva España* oiukatu zizkiteken.

Auek bukatu zutenean, falanjeak. Etzera-mateken bandera españolik. Gorri ta beltza zutela uste dit. Beltzez edo urdin beltzez beren txapel txiki ura, buruan oker jantzia, margo gorriak eta txapela beltza parpall batzuk zintzili-ka. Auek ere beren oiuk egin zizkiteken, *Arriba España* ordea, ta denak batera *arriba* erantzuten ziotela.

Igaro-aldi onen ondoren, ordurarte urruti xamar ikusten gendun apaiz xaar kaxka-txuri bat, anka-ankari eziñik, urbildu uan. Arek, ordea, Donostia artu zuten pozean, bere tantoa jarri bear zin eta bi *biba España* oiukatu zizkin. Denak zoramenez erantzun zioteken. Etorri be-

zela, uxo galdu baten antzera Donosti'ko kalean galdu uan.

Bitartean, gu an geundenen, noiz bukatuko beldurrak. Gu an geundela oroitu baziran, txikituko giñuzteken. Larri-aldirik gaiztoena eta arraixkurik txarrena igaro genin noski.

Gure kamioiaren aldamenen zeudenak, adiñekoak denak, reketeak. Aietako batek ala zioen, martxa reala entzunta:

*-¡Esto sí que me destroza el corazón!*

Ez genin guk berdin pentsatzen. Ixil-ixilik, buru makur, an egon bear izan genin, aien ospakizuna ikusten. *Trágala* ori ere guri egin ziguteken.

Orain, igaro-aldia bukatu zanean, jakingo genin gobernadore militarrek zer erabaki artzen zuen. Bi egun aietan laugarrena bauan ori, ta beldurgarriena noski. Gure zaitzalle joan zan aietako bat igo uan gora, gure izen-abizen eta arkitu zizkigutenen zerrenda eramanez.

Jendeak aldegin zin eta gu bakarrak geundenen an. Bost soldaruak etzekit non galdu ziran, baña ez itun aske joanak. Gero, Ondarreta'n, egun batzuetara, an azaldu itun.

Amar bat minuturen itxogin-aldia egin genin, eta arritzekoa: iñor ere etzebilleken. Bere-tako jendea izutua zegoken. Ez itun oraindik ertetzera ausartzen.

Noizbait etorri uan txoperrari, itz bi esan zizkioken eta Antigua aldera artu genin. Au ere ez uan erabaki txar bat artzera ausartu.

Aieka artara artu genunean, ala esan ziteken iru anaiak batera:



–Ondarreta'ra garamazkitek.

Ainbeste lekutan ibilli,' ainbeste galdera egin, ta azkenekoak, itzik trukatu gabe, espetxera.

Geroztik egun gogoangarria diagu Santa Kruz.

## ONDARRETA

Ibillian-ibillian, orra gure azkena: espetxea, Ondarreta.

Onera arte iñor ez dek ausartu. Ikusiko diagu emen zer egiten diguten. Egundo ez nin pentsatu, ez-ta ametsik egin ere, etxe ontara ekarri bear niñutenik. Norbaitek esan balida, orain emen negar egin bearko nuela, erotzat joko nin, eta ona orain bere ateetan.

Iñori kalterik, nere ustez, etzeoat egin. Olako asmo txarrik ere ez dek nere buruan jai. Ori etzegok, ordea, nere eskuetan bakarrik. Bidean bat beti zuzen badabil ere, beti arraixkuan zebiliek, bestea oker badabil. Emen ere berdin. Zuzen legepean eman dizkiagu orain arteko urratsak. Alare, mundu ontako beintzat ez diagu asmatu. Beti ere zuzen ibilliak badik biotzerako bere atsegiña.

Besteak, ordea, etziotek legeari begirunik izan. Danen gañetik jauzi egin ditek, indarrez berak nai dituztenak jarri eta auen arauera epai-

tu, len beste legeekin egindako guzia. Legeak, jarri baño len, autsi. Orra gure zuzen ibiltzeak nola ez digun balio izan, besteak okerretik joan dituk-eta.

Lege berriakin zaarrarekin egindakoak epaitzea, ori dek neretzako auek egin duten pekaturik gaiztoena. Orregatik egin ditek olako garbizioa. Denok autsi baiditugu lege oiek, eta gu ere erdiz-erdi arrapatu gaitzik orrek.

Ez nin, bada, nik ametsik ere egin, ordu au iritxiko zitzaidanik. Bete dedilla Jaunaren borondatea, ta eman dezaigula dena pazientziz eramateko laguntza.

Oraindik gogoan zeukat, gaztetxea nintzala nola joaten nintzan aitarekin batera, Arkaitztxikia esaten diogun etxe azpiko mendixka batera egur egitera, batez ere arba edo zurkaitzetako. Aitak ebaki ta nik garbira atera. Urritz gaztea izaten uan geienetan. Gain artatik ederki ikusten genin Donosti. Ondarreta, etxe beltz, aundi, begiz betetako ura ere bai. Egun artan, lapurretan arrapatuta, eramán zioteken lagun maite bat. Artaz oroituko uan, noski, begien aurrean Ondarreta ikusi zuaneko.

—Ikusten al dek Igeldo'ko oñetan —bere beartzarekin erakutsiz—, leioz betea dagon etxe beltz aundi ura?

—Bai, aita; ondo gañera.

—Oraindik gazte aiz ta ez dek arritzekoa. An zegok nere lagun bat. Ondarreta zeukak etxe orrek izena.

—Eta zer da Ondarreta? —galdetu nioken nik.

-Espetxea.

-Eta zer da espetxea? -berriro nere galdera.

-Gaiztoen etxea. Orrera eramaten dizkitek gaizkilleak. Or zigortu ta suprierazten edukitzen dizkitek. Lapurrak, gizon-iltzalleak, etxeari edo belar-metari su ematen diotenak, orrera eramaten dizkitek. Lapurtu duelako, an zegok nere lagun maite bat. Ik ere, ez baaiz ona izaten, ara joan bearko dek. An ez dek aitik eta amik ikusiko. Beti itxia. Gosea ta egarria ugari. Eta gomazko makil batekin egunero bizkarrekoak. Ez adilla gaiztoa izan.

-Eta nork daki bat gaixtoa edo ona dan?

-Bejondeikela, motell! -erantzun zidaken-. Urte guxi dauzkak, baña arrazoi sakona eman didak. Jainkoak bakar-bakarrak zekik nor dan ona bat edo gaixtoa. Nere laguna lapurretatagatik zegok, eta nik zekit zergatik egin duen. Aren lekuan egon banintz, eta arek zeukan aukera eduki, etzekit neronek ere ez ote nuen egingo. Emaztea ta seme-alaba gazteak zeuzkak. Maixterra uan eta nagusiak etxetik bota zin ezeren arrazoirik gabe. Nere iritzian, nagusia dek or gaiztoa. Arek joan bear zin espetxera, eta ez maixterrak. Arek ere, besteak bezela, bizitzeko eskubidea bazeukak. Jainkoak danentzat egin dik mundua, eta ez bakar batzuntzat. I, beñepin, ez adilla lapur ta gizon-iltzalle oietakoa izan. Bestela, il artean, bizirik usteltzen an edukiko aute.

Orain ni onera ekarri nautela jakitean, lapur, gizon-iltzalle ta gaixtoa naizelako ekarri nautela usteko ote du?

–Ez, aita. Ez da ori egia. Bota zazu burutik iritzi gaizto ori. Zure semeak ez dute lapurretarik egin. Ez dute inor il. Baña emen gaude, atea zabaldu-zai, sartzeko. Espetxeak gaizkilleak edukitzeko asmo orrekin egiñak badira ere, barru mospel auetan errugabeak geiago egon dira, gaizkilleak baño. Gure aurretik eduki dituztenak, gixaixo batzuk itun, iritzia besterik etzutenak, inori kalterik egin gabeak, bakar batzuk berexi ezker. Erru zutenak, aldegitako moduak bazizkiteketa eta joan egin, besteak espetxean utzita. Orain besteak etorri dituk. Auetan ere, aurretik gizon iltzen-ta ibilli diranak, ara edo onera igesi egin ditek. Orain, berriz, erru gabeko gixaixo batzuk pagatu bear ko diagu larritik aiek egiña. Ez da, aita, ez, espetxea gaiztoentzat. Agintzen dutenak menpekoak zigortzeko; ortarako egin ziran espetxeak.

Etzekiagu gure etorkizunaren berri. Baña, errugabeak izan edo ez, guk emen egin bear ko diagu negar. Ez gaiztoak geralako. Ez diogu inori txarrik egin. Asmorik ere ez diagu izan. Besteak oker-bidetik etorri zaizkigulako, elkar jo ta gu geratu gaituk galduan. Ori dek guzia.

Atea zabaldu zuteneko, ala nioken nereki-ko:

–Oa, oa, bulartsu aurrera. Sartu egingo aiz, baña etzekit berriz aterako aizen bizirik. Errugabea aizela diok? Jesukristo ere errugabea uan. Alare gurutzera eraman ziteken. Kristau izena eramatea ez dek aski. Orain zigorpe ontan erakutsi bear diok Jainkoari, izenez ezik, izanez ere kristaua aizela. Badakik: zorionekoak zuzer-

nagatik jazartuak, aiek iritxiko ditek-eta zerue-  
tako erreinua. Jainkoak odola ixuriz salbatu  
gaitziken, eta guk ere odolik ixuri gabe ez diagu  
aberririk askatuko. Aurrera orduan!

Adiñeko gizon aundi bat azaldu uan atean.  
Galdezka ibilli gabe ere, errexu uan asmatzen  
nondikakoa zan ura: Euskalerriko erririk geie-  
netan guardiazibil egontakoa, orain adiña zue-  
lako erretiroan bizi zana. Andik sari bat artuko  
zin ta emendik bestea. Baña estrañu xamarra  
bazirudin ere, ez uan gaixtoa. Itza ta putza ari-  
tzen diran oietakoa ematen zin.

Gure zaitzalle zijoazenak atzetik bultzada  
txiki bat emanta sartu giñun. Aiek ere, gurekin  
atzera-aurrera aspertuak ibilliko itun.

Ate bat zabaldu ta gu sartu. Atzetik itxi. Lau  
edo bost ate igaro genizkin. Etzegoken andik  
igesi egiten errex. Alare, orduan baño aukera  
oberik ez genin arrapatuko. Etzegoken zentine-  
lik. Utsa baizegon espetxea. Agure ura gu lau  
anaiakin bakarrik geratu uan. Espetxeko giltza  
guziak berekin zizkin.

Guk nai izan bagendu, gela batean lotuta  
utzirik, iñor oartu gabe aldegingo genin. Agure  
zar ura arraixku ortaz ez uan oartu ere.

Nere burutik igaro uan pentsamentu au: ez  
gendula berriz aukera oberik izango. Baña gu-  
retako iñork etzin uste alakorik gertatuko za-  
nik. Igesi egin ta arrapatzen bagiñuzten, berriz,  
ez uan guretzat errukirik izango, bestela ere ez  
uan izan-ta.

Alare, etxekoak nebilzkiken gogoan. Guk  
igesi egiten bagendun, zer gertatuko uan

etxean? Gure ordez ez ote zituzten berak ilko? Ori gertatu ezkerro, berriz, kezka orrekin bizi ta ilko niñun ni. Baña zenbaitek etzin aukera ura galduko. Guk ere ez genin beste alako bat arrapatuko.

Zuzenean mai txiki baten ondora eramán gaitziken. An exeri ta asi uan gure izen-abizenak artzen. Lenengo, Joan Jose Zapirain. Beste irurak ere, Zapirain. Aitaren egiñaz, arri-tua geratu uan gure agurea. Alako zear-begiratu bat egin zigukén, esanaz:

–Baña txoroak al zerate zuek?

–Zergatik diozu ori?

–Nolaz geratu zerate zuek emen?

–Bai, zoritxarrez, beste asko bezela.

–Emen zaudetela jakiten dutenean, emen dituk zuen billa. Bazkaririk onena baño naiago ditek zuek emen zaudetela jakitea, indarrean emendik atera ta mendi-zuloren batean iltzeko.

Deabru arek bazekiken sartu ziranak nolakoak ziran. Alare ez uan oartzén, nai izan ezkerro aixta igesi egingo geniola. Lau anai komunista aiek izan balira, laxter erakutsiko zioteken zeñen aurrean zegon.

–Gu nor gerala uste dezu?

–Ez al zerate, bada, zuek, emengo Zapirain lau anai komunista sonatu aiek?

–Bai, zera! Aiek gu baño azkarragoak dira. Aiek zerbaitetan nastu ziran eta igesi egin dute. Gu eroagoak izan gera. Iñori ezer egin ez ta txoro-txoro bertan geratu geranak. Orain aién pekatuak guk ordaindu bearko ditugu.

–Ez –erantzun zigukén–. Orain sartu diran

auk ez dituk joan diranak bezelakoak. Auk bazekitek bakoitzari berea ematen. Errugabeak laxter bialiko dizkitek etxera; bai erru dutenak benetan zigortu ere.

–Ala bedi! –eranzun nioken–. Laxter gera gu orduan etxean. Zertan baiturik ere etzuten.

Etxe ikaragarria uan Ondarreta. Aren barrunbeak ia etzeukateken neurrik. Kanpotik begiratuta, laukia uan. Ondartza aldera zeukak sarrera, ar-lekuak, sukaldeak, bere ofizina edo bulego guziak; baita eriotz-zigorra emandakoentzat kapilla ere. Emakumeentzat espetxea ere berdin.

Baña barrundik begiratuta irukia zirudiken espetxeak. Eun da ogei ta zazpi gela zeukak. Iru bizitza, azpikoa kontatu gabe. Tarteka bazeukak gela aundi batzuk, *aglomeración* deitzen zietenak. Auetan baitu asko sartzen zizkitek batean.

Bakarreko gelak txikiak itun. Leio txikiak bazeukak gelaren goiengan, kanpo aldera, aize berritzeko, burnizko ziri batzugin itxiak. Sarrerako ate lodia uan, barrundik txapazkoa. Bazeukak txulo txiki bat ere, barrundik zabal ta kanpora alean estutzen zana. Bakoitzak barruan zeukak komona. Baña urik ez. Balde txiki batean ekartzen genin bear gendun ura. Burnizko oatze bana, mai txiki bat aurrean bere argiarekin, eta guruzetxo bat orman zintzilik. Baña maian etzegoken ez papel, ez tinta, lapitz ta plumik. Aulki txiki bat, bizkarrekorik gabea. Beste isats txiki bat ere bai. Orixe uan gelako aberastason guzia.



Gela bera txikia uan, bakarrarentzat egiña, ta ez aundiegia. Zazpietaraño sartutakoak baitun. Etzekit barru artan nola biziko ziran. Atea beti itxia ta zazpi gizon barruan, etziteken ezertarako lekurik edukiko. Komon bakarra, ez itun txukun-txukun biziko. Jainkoak bakarrak zekik zer tratu eman ziguten, an bizi izan giñan iru illabete aietan. Gure baserrietan zerririk ere ez dek okerrago bizitzen.

Olaxe supritu ta negar egin genin Ondarreta'n euskaldunok. Au ez uan neretzat Ondarreta. Zigor-etxe jarri nioken nik izena. Besterik ez baigendun ikusi iru illabete ta egun batzutan. Maitasun eta errukiak etzeukaken lekurik. Eriotza izan uan emengo nagusi ta jabe.

Espetxean erdi-erdian zeukaken etxola aundi bat, inguru guzia kristalezkoa. An egoten uan *jefe de servicios* edo barruko serbizio ta zaitzalle guzien buru egiten zuena. Aren esku zegoken oso-osorik barruko gora-beera.

Etxola artatik barrun guzia bere ikusmiran zeukaken. Andik arek ikusi gabe, ez uan xagurik ere ibilliko barrun artan. Exerita zegon lekutik, dena artzen zin bere begien mendean. Onen gañean jartzen ziteken aldarea, meza ematera koan.

Etxeak azpian eundoko utsuna zeukaken. Gela txikiz betea ura ere. Etxe barruan ondo portatzen etzan atxilotua, ara eramango ziteken. Ebanjelioak dion bezela, an izango uan negarra ta ortz-karraskada. Geiago zigortzera eramaten baizuten. Antxe biziko uan, gela txiki aietakoren baten barruan, eguzkiaren argirik

eta egunaren pozik ikusi gabe, bakarrik, askotan ogia janari ta ura edari, barruko ta kanpoko bixitak zearo galeraziak, zigorra betetzen zuen arte.

Ara eramatea baño, obeko zin noski zigortuak, bi tiro ematea ere. An luzarorako zigorra bazeukan, bere osasunak nabaituko zin beerako ederra. Len esan degun eguzki ta egunaren pozik ikusi gabe, ipurtargi baten antzeko bonbilla txiki bat. Alare etzitzaioken eguneroko zigorrik paltako: ebaindu egiten ziteken errukirik gabe. Ortarako jende ohea zegoken, iñori laguntzeko baño.

Itxasoa baño beerago dagon barrunbea uan. Kiratsa zerion ezetasun bat zegoken beti barrun artan. Ura ere sortuko uan bere azpian, izgora zanean. Puska baterako ondatuak ateratzen itun andik, illabeteren bat igarotzen zuten quziak.

Au dena, barruko zaitzalleak ematen zuten zigorra uan, bada. Norbait begitan artzen bazuten, urrikaltzekoa uan gizarajoa.

Ni an egon nintzan iru illabeteen, etziteken iñor ara sartu. Bazeukateken erremerio ohea: arratsean iltzera zeramaztenakin batera biali, bai, ta aiek konponduko ziteken guzia.

Bein erdi-ijito erdi-eskale bat ekarri ziteken. Rebista pasatzera joan zan reketea, jotzen asi uan, txapelik erantzi etziolako. Besteak eldu. Ia irugarren bizitzatik bota zin. Bere ondoan zeukan mutil aundi batek, eutsi zioken. Ura ere baitua. Ez balio lagundu, botako zin noski.

Au goizean gertatu uan. Arratsaldean, biren

arte txeatu ziteken gizajoa. Urrengo egunean etzin iñork ikusi. Ura arrats artan eramanta garbitu ziteken.

Beldurgarria uan, bada, benetan etxe barrun ura. Norbaitek altu xamar itzegiten bazuen, urrutieneko muturreraño irixten uan aren abotsa.

Arratsean daldaraka jartzen giñun, zuzendaria, bere agiria eskuan, espetxetu batzun billa sartzen zanean. Beeko ots guzia irixten uan damera. Alako burrundara bat sortzen zin. Orma guziak erantzuten zioteken oiartzunari.

Inpernu artan igaro genizkin, bada, guk ere iru illabete. Jendea seguru ta pakean bizi danean ere, beldurgarria dek barrunbe ura. Gu egon giñan bezela, berriz, inpernu berbera; egun bateko segurantzirik ez geneukaken-ta.

Gure aurretik espetxe-zai kankallu ura gendula, igo giñun bigarren bizitzara. An sartu erazi gaitziken ogei ta zazpigarrenetik ogei ta amargarrena bitarteko lau geletan. Arek atzetik itxi ziguketen eta ona oso-osorik militarren mende, oien atzaparretan. Ez dek errexia izango emendik bizirik ertetzen.

Atea zabaldu ta sarreran, atzera egin erazten zidan usai nazkagarri bat nabaitu nin. Jan berria izan banintz, denak gora joango itun.

Argia pixtu nuanean, illun baizegon oso, laxter igerri nioken zer gertatzen zan. Komona zikiñ-zikiña zegoken, azkena erten zanak utzi bezela. Etziteken garbitzeko astirik. Izan balute ere, etziteken egingo. Ez, noski. Zikinkeri guziak ara botata, aren gañetik bearrak egiñak

zeuzkaken. Eta, urik bota gabe, komona itoa zegoken. Alaxe igaro nin lenengo arratsa.

Aurreko orma, berriz, odol-zipriztiñez zikindua zegoken geiena. Txerritoki bat egiña, alegia. Norbait gelan bertan il zuten itxurak itun aiek.

Ajola zieken sartu berriei garbi egon edo ez. Ortan dirua kastatzeko borondaterik etzeukateken aiek. Berdin, aietan sartzen ziranak, luzatu gabe ankaz aurrera eramango zizkiteken.

Joan ziranak ere, bada, ez itun goxo ibilli, espetxean bertan gizonak iltzen. Neri aukeratu zidaten gelan, beñepin, itxura guziak ala itun, balaren sastakoak bazeudeken aurreko orman-ta.

Sartu berri auek etzeukateken ortara ibilli bearrik. Auek jendearen aurrerako txukunago egingo ziteken lana. Lasai guante txuriakin ilko zizkiteken nai zituzten guziak, arratsero Ondarreta'ko atea zabalik zeuzkateken-ta.

Burnizko oatze bat ere bazegoken an. Baña, nere zoritxarrerako, ez koltxoi ta ez manta. Burni-sarea soil-soillik.

Ni, berriz, etxean lanean jardun bezelaxe, espartzin xar batzukin, galtzak berdin, ator xaretu-xaretu bat, barrungo elastikorik gabe, ori uan nik neraman aberastasun guzia. Baitu giñuzten borrheroak ez baiziguten zerbait artzera etxe barrura ere sartzen utzi. Etziteken pentsatuko, noski, oneraño etorriko giñanik.

Zortzi egunean alaxe egon niñun. Amaika aldiz, bein jendea sartzen asi zanean, eskatu nin. Baña denak, erdi isekaz par egin ta aurrera

joaten itun. Eskerrak osasun bikaña neukanari; eta egun aietan, udazkenean oi duen bezela, ego ariña zebillen. Bestela, otzak eta goseak garbituko nioken.

Eguna or nonbait igarotzen nin. Baña gauak bero egiten bazuen ere, ta etxe barrun artan geiago, alare goizerako ormatua geratzen niñun.

Paper aundi bat bazegoken barruan, nere aurrekoak utzia. Ura bizkañ gañetik artu, neroni aulki txar artan exeri, burua besoen artean eta mai gañean babestua, alaxe egiten nin lo, zortzi egun ta gau ia, etzan gabe.

Goizean, arpegia garbitzera erten giñanean, denok ontzi txiki bat bageneukaken. Gure zaindariaren baimenarekin, komoneko zikin guziak beera bota nizkin, al nuen bezela.

Koltxoirik ez nuela-ta, eskatu nioken ura ere; ta arek ala erantzun zidaken:

–Etzeukat zeñek ekarririk.

–Esaidazu non dauden ta nik ekarriko det.

–Ere etxean agola uste al dek? I ausartegia aiz. I baitu bat aiz; eta, emengo martxa jartzera-koan, ekarriko ditek. Bitartean, or konpon.

Orra gure kankalluaren biotz gozoa.

Gu laurok bakarrak geundeken espetxean, eta laurok gela banatan, atea ondo giltzatuarekin, eta elkarrekin itzik egiterik ez.

San Markos'en egin gendun gosari legearekin igaro genizkin iru egun. Goseak iltzera eraman ote giñuzten nik etsi nin. Guri irabaztea galerazi ta berak eman ez, ori dek espetxeratuen negarra.

Irugarren egunean, urrikalduta, bere patrikatik erosita, ekarri ziguken ogi koxkor bana. Uraxe goxoa zegoken, goxorik bada. Pixka iza-tea...

Laugarren eguna ezkerro, bagenizkin lagun berriak. Aukera ona zeukateken ekartzeko: Oiartzun, Errenderi, Ernani, Andoain, moltzuka-moltzuka zekarteken jendea. Erabat gazte ta zar, jator askoak, euskaldun garbiak. Orduan, izan ere, bai al uan erdaldunik? EUNETIK larogei ta emeretzi, arma txar bat eskuetan artu ga-beak.

Bereala jarri ziteken espetxe barruko mar-txa.

Illunabar batean, Altza'ko sendagilleak eman ziguken aparria. Baña ura bereala erten uan. Udaletxeko jendea alde zeukaken, ta aundietakoa izaki ura ere.

Orduantxe asi itun sekuestroak. Aundizki diru zuten auek espetxera ekartzen zizkiteken, izutu erazi ta diru puska bat kentzeko.

## BANAKETA

Etxea leporaño bete zitzaiguken. Etxeak legez bear zitun baño lareun geiago egongo giñun expetxe barruan. Alare, ekarri ta ekarri ari itun.

–Ateratzen ere noizbait asi bearra zeukatek. Bestela, zutik egoteko ere lekurik ez dala jarriko ditek azkenean etxe au.

Patiora ertetzean, arpegi berriak ikusten genizkin. Baña bai, ordea, utsunak ere. Bezperan elkarrekin itzegiten gendunen utsunez oartzen niñun, eta ez genizkin ateratzen ikusten. Non demontre sartu ote dituzte aiek? Ori uan nere betiko ixilleko galdera. Egunez ez nizkin ikusten. Arratsa, berriz, nik lo betean igarotzen nin.

Alako batean, anai batek esan zidaken:

–Ez al dituk arratseroko zaldi-laxterkak eta emengo joan-etorriak entzuten?

–Ez, motell. Gaua lotarako egiña dek eta lo betean pasatzen dit nik arratsa.

–Ez daukak nolanaiko gibela –erantzun zidaken–. Naiago nitek, nik ere orren lasai banego. Auek, egunez ekarri-ala, lauaz zeramatek.

–Somatzen dizkit, bai, nik utsunak. Erotu ote zaizkigu? Ez ote daukate beste zer egiñik, katuak umeakin bezela ibiltzeko? Gaur erne egongo nauk.

Anaiari eskeñi nion bezela, ez niñun oieratu, ea ezer garbirik ateratzen nuen, itxura txarreko berria uan ori-ta.

Eundoko abotsak asi itun, ortxe amaikak alde ortan, ate-txulotik begira jarri nintzanean.

–Be alde ortan zer gertatzen ote da?

Egunez bezela argitua zegoken espetxe barrua. *Jefe de servicios* deitzen genion arékin, zearo falanje jantzitako bat izketan ari uan. Bereala bukatu zizkin arekikoak eta barrungo zaitzalle bati eman zioten paper bat. Paper ura eskuan, igo itun bi gora. Orduan asi itun zaldilaxterkak.

Bat, gure auzoko erdi-ero bat uan, erderaz etzekina gañera. Ura zioten mendiko bota iltzedun oiekin. Izengoitiz, *Potxo* esaten zioteken. Auek sartu ziranean, txapel gorria jantzi ta baituak izutzerá etorria.

Bestea aurretik, arek atea zabaldu ta, bat baño geiago bazeuden, izenez deituko zin:

–*Prepárese. Está usted liberado.*

Eta, ura jazten zanean, *Potxo*'k jetxiko zin porterira. Lautaraño ikusi nizkin jexten.

Urduritasun pixar bat nabaitu nieken arpegian zijoaztenei. Beste gañerakoan, lasai xamar ziaziken aiek.



Banaketa bukatu zutenean, ala nioken nere-  
kiko:

-Deabru orrek beldurra sartu nai ziguk. Ez ote dauka oñetako ariñagorik? Ori ezer ere ez dek! Ateratako aiek nora eraman ote zituzten? Arratsean ta garai ortan? Ala zankua, emen etzegok gauz onik. Zergatik ez egunez?

Itxura txarra artu nioken nik orri.

-Baña orren errex ez al dituk gizon iltzen ariko. Lanera eramango dizkitek.

Bai-bainekin Lasarte alde ortan gogotik ari zirala lanean.

-Baña, guk eta erriak ikusteko beldurrak, arratsean eraman?

Anaiaren kezkek sartu zitzaizkidaken neri ere. Alare, nere burua iruzurtzeagatik-edo, itxuraren kontra naiago nin lanera zeramaztela sinistu, iltzera baño.

Gosal ondoan patiora erten giñanean, zaldilaxterkak entzun ta ikusi zitun anaia urbil zitzaidaken; eta, biak bakarrik geundela, galdetu zidaken:

-Entzun al dituk bart arratseko iskanbillak?

-Bai, motell, bai. *Potxo* uan bota iltzedunakin ibilli dan ura.

-Ori ere reketete sartu al da?

-Metro erdira ikusi dit ate aurretik igarozten. Txoro guzien ganga izango dek oraingo guda zikin au.

-Eta ikusi al dituk nola eraman dituzten?

-Bai. Beeko atea erdiz-erdi artzen dit nere gelatik. Lautaraño kontatu dizkit. Baña lasai xamar ziaziken.

- Eta nora eraman dituztela uste dek?
- Zer erantzutea nai uke? Etzekit ezertxo ere, eta gaur lenengo ikusten detana.
- Atean ez badauzkate otsoak zai...
- Orixe dek nere zalantza ere.
- Lau egun badituk nik somatu nuela.
- Askatasunera agian joan litezkek. Lanera ere bai.
- Baña arratsean, zergatik ez iltzera?
- Litekena dek ori ere. Olako guda odoltsuan, militar auekin etzegok piatzerik. Baña orren errex gizonak iltzeko ere, deabruak ote dituk aragi-jantzian?
- Zalantza gaixtoa zeukat nik ezurretaraño sartua, askotan begirik ixten ere uzten ez didana. On egiten duanak argia maite dik. Txarra, ezkutuan egin nai izaten ditek geienak. Ez nitek sinistu nai txarrik, baña kezka ori or zegok
- erantzun zidaken anaiak.
- Zana zala, ez uan itxura ona beñepin. Ez ote dituk oraindik oartu besteak? –galdetu nio-ken.
- Ori etzekit. Baña etziot iñori ere entzun.
- Ori, gu bi anaion ixillean geratu uan. Ez genieken beste anaiei ere esan. Alperrik beldur eraztea izango baizan.

## LENENGO BIXITA

Patioan atzera-aurrera gabiltzala, ni deitu nioteken.

–Beste anaiei ez ta neri bakarrari dei egitea? Zer arraie gertatzen ote dek or? –nioken nereki-ko.

–Ire lagunen baten bixita izango dek –esan zidateken anaiak.

Askatasun-itxaropenik beñepin etzegoken aien biotzetan.

–Aizak: galdegiok ori.

–Bai, motell. Beste asmorik etzeramat.

Gu bezela zegon batentzat, ezer gutxi aski uan bat naastu ta kezketan jartzeko.

–Berri onen bat ote det edo txarra?

Deitu niñunaren atzetik noala erten niñun eta txuxenean mintza-lekura eramane nioken. Baña, lenengo aldia baizan, ez nekiken nora ninjoan. An topatu nin Ernani'ko apaiz sonatu bat, Mendikute jauna, ura ere mintza-lekura zijoala-ta:

–Ea, goazen bixi-bixi –esan zidaken.

Iritxi giñanean, arek apaiz xar txiki bat zeukaken zai. Nik, berriz, Donostia'n bizi zan lengusu bat.

–Au al gendun guzia? –nioken nereko.

Mintza-lekura esan dit, bai. Au nin lenen-goa. Baña espetxeak daukan lekurik tristeena badek neretzat. Aieka batetik pillaka joaten gaituk; bestetik, berdin. Bi metroren tarterik etzegok alanbre-sare batetik bestera. Erdian, itxurak egiteko, norbait jartzen dek, baña euskeraz ez dakina. Garai artan, an ez uan erdaldu-nik; denak euskaldunak itun. Arentzat jai uan.

Izketan asten giñanean, bi metroko tarte artatik ezin adierazi elkarri. Txoritokieta'tik San Markos'era izketan ari bagiña bezela, oiuka ari bear; eta, askotan, zer nai gendun ezin adierazi bata besteari.

Txalo jotzen zuenean, berriz, azken agur tristeagorik ez dit ikusi. Emaztea negarrez senarrari agurka, aurak ondoan zituztela, txikiena besoa artuta.

• –Ori da zure aita. Egiozu agur.

Gurasoak berdin beren seme ta alabekin. Andregaiia bada, berdin; zer esanik ez, aren maitasuna galtzeko beldur.

Amaika bixita egin zizkioken, il zuten nere anai baten andregaiak. Il zutela ikasi zutenean, negarrez etorri uan, ezin pozturik, Donosti'ra zebillen anaiarengana, zer gertatu zan esatera.

Zearo eroria ertetzen niñun ni mintza-leku auetatik. Zenbat eta gutxiagotan etorri, ura ta naiago.

Lenengo ontan ez uan berdin, bi bakarrak giñun-ta.

Alanbre-sareen erdian an zegoken, deabru guziak berekin zitun txapel gorri bat. Baña etzekiken euskeraz. Etsai amorratua uan. Baña alare utzi egin bear, lege ori jarria zegoken-ta.

Nere bixitara etorri zan emakume ura, berri, adin xamarrekoa uan. Txalo jo arte izketan jardun genin. Baña arek etzekiken ezertxo ere. Zerbait bear ote genun eskeintzera etorria uan.

Galdetu nioken ea askatasunak asi ziranik entzün al zuen.

Ezetz, ezetz, esan zidaken. Semea aurre xamarrean or zebillela. Baña arek etziola ezer esan. Ekarri ta ekarri ari zirala, bai. Alare, noizbait ateratzen ere asi bearko zutela, danentzat lekurik etzala geratuko an-ta.

—Ekartzen ari dirala, ez digu iñork esan bearrrik. Ederki ikusten degu. Zutik egoteko ere ia ez daukagu lekurik. Baña, iru edo lau egun aue-tan, somatu ditut arratsean kanpora ateratzen dituztela. Zer iruditzen zaizu ori?

—Nik zer esatea nai zenduke? Iltzera beñepin ez dituztela eramango. Leku askotan ari dira lanean. Lasarte'n ere bai. Litekena da orrera eramatea ere. Baña relijioaren izenean salta zaizkigun auek ortan asi badira, baletozke len-goak.

—Geroneko egoarte batean joan ziran batzuk, aiek, bai, badakit lanera joan zirala. Baña arratsean eramate orrekin ez naiz ni geiegirik pio. Lengusu maitea, ongi dabillenak argia naia-go du, illuna baño.

–Urrengo ostegunean ekarriko dizut berria andik edo emendik, semeak ikasiko du-ta.

Baña nere lengusu maitea ez uan urrengo ostegunean azaldu. Ez ote genun gero guk arrazoi izango: auek illunpean gizon iltzen ari zira-la? Eta nere lengusu maiteak, berri txar bat ematera etorri baño, naiago zuela etxean ixilik geratu? Ori ere ez uan, ordea, segurua. Beste edozer eragozpen izan zezaken. Gañera, zortzi egun oietan euri asko egin zin bazterretan. Donostia'n ere bai.

Denak oartu itun. Ziur-ziur ez bazekiten ere, geienak beldurrak bizi giñun. Patiora biur-tu nintzaneko, inguratu nioketen galdezka.

–Etxe-txuloan bizi dan olako lengusu nin. Arek etzekik ezertxo. Gudan ez bagenbiltza bezela bizi dek ura bere etxean. Ezer bear degun edo ez, eskeintzera etorri zaidak. Ez dik beste egitekorik ekarri. Ostegunean azalduko dala berriz. Ordurako zerbait ikasiko duala.

–Ostegunean? Ordurako txalak umea egingo dik –erantzun zidateken.

Etzidateken noski sinistu, baño nik egia esan nieken.

Gaberoko arteerak bere artan jarraitu ziteken. Baña iñondik etzetorreen garbi, zer ari ziran ziur jakiteko.

## MOLDAKETAK

Bitarte ortan asi itun *consejo de guerra*'k ere moldatzen. Zazpi andoaindar deitu zizkitek lenengo. Askok aske joan zirala uste bazuten ere, ordubete baño len biurtu itun lengo lekura.

Bein militarren atzaparretan erortzen diran beartsuak, ez dituk orren errex aske ertengo. Aberatsak bai. Auei *secuestro* bat egiten ziek. Espetxeko larritasunak erakutsi arte, bertan eduki. An arraixku txarrean bizi dirala azaldu. Dirua baño bizia maitagarriago dala-ta, xamurtzen zaiek biotza. Orduan ustu-aldi bat emango ziotek patrikari, baña bizirik ertengo dituk. Beste ainbeste geratuko zaiek, noski, lasai bizitzeko. Egun ale aietan ori somatu nin nik: aberatsak bakarrik ertetzen zirala aske.

Epaille xar igar batengana joan zirala esan ziguteken andoaindarrak. Baña aietako iñork erderaz etzekilako, izenak artu beste lanik etzuztela egin; urrengoan itzultzalle batekin etorriko zirala esanta biali zituztela.

Andik bi egunera, noski, geiago ere deitu zizkiteken. Lau itun aiek; andoaindarrak. Arro-bi ona zeukateken nonbait or. Aiek ere, aurrekoak bezela, izenak artu besterik egin gabe biurtu itun, itzultzalle baten zai.

Azkenean, gure ordua ere iritxi uan urrengo egunean bertan. Gure deia entzun zutenean, bakar batzuk zorionak ematera etorri itun.

—Leku onean gaudek zorionak emateko —erantzun genieken—. Ordu erdi baño len emen gaituzute berriro, goibel, buru-makur eta urdu-ri.

Laurok batera gutxitan ikusten genin elkar. Jose Ramon ez baizan gure sallera etortzen.

Leku zabal batera eramán gaitziken. An zegoken gure epaillea, andoaindarrak esan bezelakoa, beste lagun gazte batekin. Ikusi nitun orduko, antz eman nioteken bat militarra zala, baño ez bestea, militar jantzian bazegon ere. Onen begiratuá askoz mazalagoa uan. Izketako jarduna ere lasai ta zabalagoa. Ez genekina erakusteko ere prest zegona.

Epaillea, gudan gabiltzaken eta, jakiña, militarra uan. Auek egin itun kargu geienen jabe. Luze xamarra, baño bakallaua baño igarragoa, ez uan berrogei ta amar kilo izango. Oso gaixoa, gorputz guziak dardar egiten ziokeen. Asmaz josisa, gañera. Arnasa ezin arturik geratzen uan askotan, karamelo bat txupatzen ari balitz bezela. Iñoiz kioak dauzkan olloak bezela gorputz guzia dardaratuz, «iiik!» egiten zin. Zaarra uan, ta auldua da akitua zegoken. Erruki-etxeko ai-



tonak bezela, eguzkitan egoteko ohea zegoken ura, epailletzarako baño.

Auek denak lanera beartu zituztenean, etzeukateken aukera aundirik. Saritu bearko ziteken eta bestetarako balio etzuen oietakoa izango uan, eta lan ori ezarri zioteken.

Bere izarrak erakusten ziguteken komandantea zala. Baña erre ta erretxiña uan. Zer ajola zioken ari guda irabazi edo galdu? Noski, berak etzin bere azkenik ikusiko. Gero esan zigutenez, Donosti'ko karrika batetik bestera zijoala erorita, kamioi batek arrapatu ta txirtxi-llatuta utzi omen zin. Gazte bikain askoak erioztara biali zizkin. Bera ere, azkenean, nai zuena ikusi gabe joan.

Itz baten lekurik etzuana. Ez uan arritzekoa. Gaixo baizegon. Benetan pazientzi gutxi zeukaken arek. Baña euskera ta euskaldunen etsai amorratua. Onen anaia alkate izan omen uan. Bai ederki erakutsi ere nondik zeukan burua.

San Tomas izan bear zin, entzun detanez. Betiko oitura zanez, bertsolariak kantatzen zuten eguna. Orduan ere deituak eta bazkaritan an izan bear ziteken. Baña beren ordua iritxi zanean, alkateak etzieken kantatzen utzi.

—Olako umore ta bazkari eder baten ondoren, zer geiago bear diagu, jai au zoriontsu bukatzeko? Beude beste oiek ixilik.

Berak ez baizekin euskeraz. Bertsolariak suminduak joan omen itun, betiko bost durokorik gabe utzi baizituzten. Olakoxeak itun bi anaiak.

Guri etziguken beñepin exertzen utzi. Bana-ka-banaka gure izenak artu ondoren, bereala

oartu uan nere iru anaiak etzekitela erderaz, eta txuxenean biali gaitziken urrengorako, itzultzalle batekin etorriko zala esanaz. Baña bai idazkari zekarren gazte arek esan ere:

–Anairik gazteenak biak ondo dakizki. Orrek itzultzalle egingo digu.

–Ez, ez. Ori ez da piatzekoa. Norbait billatuko degu.

Besterik gabe, bada, biali gaitziken. Gurekin iru salla baitun auzitara deituak. Itzultzalle baten paltan geratu giñun, beste batean deitzekotan.

Bitartean, gure patioan zer esanik ez uan palta. Arratsean ateratzen zituzten kontu orrek, ez gentozeken denak bat. Neri ere ikaragarria iruditzen zitzaidaken, iñongo epaillerekin itzik egin gabe eta oien agindurik gabe, agintzen zeuden batzun baimenez, salatu zituztelako bakarrik, arratsean lau edo bost iltzera eramatea. Olakorik ez genin ordurarte entzun, gero Europa'ko gudan eguneroko ogia izan uan baña.

Elizak betezen zituzten gazte fededun aiek, ezeren txarrik egin gabeak, iritzi berekoak etziralako edo botoa eman zutelako, beste gabe txakurrak bezela mendira eraman ta iltzea, benetan latza uan. Beartuta errian guardiak egin zituztenetatik, beñepin, gutxi geratuko itun bizirik.

Ez genekiken ziur ezer, eramaten ari zirala besterik. Ori aski uan, ordea, urduri jartzeko. Ni ere bai, ez oraindik garbi baña.

Egazkin-lekua egitera Lasarte'ra zeramazkitela zioken jendeak. Ez uan egun asko amarren

bat eraman zituztela; baña egunez. Orain zertako arratsean ta moltzuka-moltzuka? Iltzera zeramaztenik, beñepin, iñork etzin sinisten edo sinistu nai.

Bat bagenin tartean benetan baikorra. Arek, berririk txarrenari ere, nonbaitik alde itxaropentsua billatuko zioken. Gauaz jendekarraio ari ziralako jendea larri zebillela, bera, berriz, lasai.

–Berri onen batzuk bai al dituk-edo?

–Neretzat ez dek berri txarrik –erantzun ziguken.

–Jainkoaren borondatera orren eroria al ago?

–Ez dit orregatik esaten. Nik etziot iñori txarrik egin eta neri egingo didaten beldurrik etzeukat.

–Geienok ortan gaudek. Geienok erru ga-beak gaituk emen. Alare, ni beldurrak aidean bizi nauk. Nola ekarri aute, bada, espetxera?

–Beren utsegin bat besterik ez. Oartzen diranean, laxter nauk etxean.

–Bejondeikela, motell! Itxaropen orrek ez dik gutxi balio, gu gauden lekurako. Nere iritzia ez dek olakoa. Eta zer diok: arratsero jendea kanpora eramate orrek ere bai al dik iretzat mutur onik?

–Bai, motell. Oiek etxera ziazik.

–Bi aldeentzat ez ote litzake atsegiñagoa egunez bialtzea?

–Nik zergatik egiten duten etzekit. Baña ola-koetan, kondairak dionez, arratsean askatzen omen dizkitek.

Entzuten zeudenak arrazoi ematen zioten. Ala komeni baizitzaien.

—Ori asko ikusia dek. Orrek asko zekik —zioten, entzuten zeuden askok.

Andik egunetara, norbaitek esan zioten lotuta eramaten zituztela.

—Lotuta dijoazenak, oiek lanera ziazik.

—Zergatik lotuta arratsean?

—Lotuta, jakiña, ez igesi egiteko. Arratsean, berriz, jendearen bistan ez ibiltzeko. Oiek dituk militarren oiturak.

Erantzun oni ere askok arrazoi eman zioten.

Oraindik ziur ez bagenekin ere, berri txarrak zetozen espexera. Norbaitek esan zioten, olako ta olako, emen gurekin paseoan ibiliak, etzirala ez etxera ta ez lanera azaldu.

—Biak emen ezagutu nizkin. Baña ori ez dit sinisten. Oiek, norbaitek gu beldurak edukitzeagatik asmatutako ipuiak dituk. Eta zuek ere ez sinistu.

Ta gizon au, azkenean, beste gabe aske joan uan. Itxaropenak on egin zioten.

Olaxe joan itun espexeko lenengo amabi egunak. Urduri ta larri jendea. Susmur txarrak bai; baña ziur zer gertatzen zan ez genekila.

Egunero bazetozen berriak. Alare, aientzat aña leku egiten uan. Arratsean lengoak joanta, beti berriak zetozen urrengo egunera-ko patiora. Baña, alare, beti ikasten genin beste patiora ateratzen zan anaiaren berri: oraindik beñepin barruan zegola.

## ITZULTZALLEA

Urduritasun ontan, bada, deitu giñuzteken berriro auzitara.

Oraingoan iru etorri itun. Itzultzalle bat eka-  
rri ziteken berekin. Mikeleteen kaboa omen za-  
la. Ura ere billaukeria egin ta auekin geratua,  
saritzen zuen nagusia salduz. Lenengo ikusi  
nuaneko, etzitzaidaken oso mazala iruditu. Pa-  
tala ta gexa, baña sasoi onekoa ta gizon bikaña.  
Epaillearen ondoan besterik ematen zin arek.  
Arrasate alde ortakoa izan bear zin.

Urbildu giñanean, bere kioen artean ala  
esan ziguken epailleak:

–Emendik aurrera, nik erderaz esana, onek  
itzuliko dizute euskerara; ta zuek euskeraz esa-  
na, erderara.

Lenengo saioan antz eman nioken mikelete  
arek etzekila, alderatzekorik ere, ongi erderaz.  
Euskeraz, berriz, bizkaitar antzera mintzatzen  
uan; baña garbi. Ori bai. Ta nere anaiei, ia  
etxetik atera gabeak, ulert zalla ez ote zitzaien  
egingo. Neretzat ondo zegoken; bizkaitar eus-

kaldun askoren artean ibillia bainintzan. Beñepin, itzultzalle bat bagenin. Laxter antz eman ziokeen idazkari zekarrenak:

–*Mi comandante* –esan ziokeen–. Badirudi ez diotela ongi ulertzen.

Erderaz jartzen zuenean ere, berak naiko lanakin baizebiltzan.

–Anai gazteenak biak ongi dakin ezkerro, orrek ongi egingo du itzultzalle.

–*No, no. El cabo ya sabe tanto.* Orrek egingo digu itzultzalle.

Artan geratu itun. Etziguken galderarik egin; azterketarik ain gutxi.

–*Quedan incomunicados* –esan zigukene eta laurok barrura joan gñun. Baña ez patiora, eta ez genin lau egunean ikusi besterik ere. Jaten ematera zetozenak bakarrak. Ate gañean *incomunicado* jarri ziguteken, bai, ta bearretan bestetan ez gñun gelatik ertetzen, anaiok elkarren berri ez jakiteagatik. Banaka joaten gñun komandante bakallu aren aurrera.

Urrengo egunean bertan deitu nioken ni. Nere ondoren, andoaindarrak. Ni beste iru eguneko pakean negoken.

Biak bakarrik zeudeken. Etzin neretzat itzultzalle bearrik. Papertxo batean jarri zizkin idazkariak nere izen-abizenak eta asi uan gure epaillea galdera ta galdera:

–Ziñ edo promes egiten al dek, egia, ta egia bakarra, esango dekala?

–Bai, jauna –erantzun nikek.

Bereala asi uan gure aitorketa, baña barkaziorik gabea:

-Iñongo Alderdi ta Sindikatotan eman al uan ire izena?

-Ez, jauna.

-Zergatik ori?

-Bearrik ez neukalako; baserrian lan egiten nuen-ta.

-Nori eman ion ire botoa?

-Iñori ez.

-Zergatik ori?

-Ez neukalako.

-Propagandarik egiten ibilli al aiz?

-Ez, jauna.

-Zergatik ez?

-Ez nekilako; ta olako lanik etzait atsegin.

-Gudate ontan iñori lagundu al diok?

-Barkatu, jauna: ez det galdera ori ondo ulertzen.

-Iñoren alde jokatu al dekan.

-Len bezin zalla geratzen zait galdera ori.

-Buru gabea al augu, bada? Ezker edo eskubien alde egin dekan.

-Ez, jauna. Ez naiz ezertxotan naastu.

-Zergatik ori?

-Gauza garbirik ez nuen ikusten.

-Guardirik-edo egin al dek?

-Bai; baña makillarekin.

Erantzun onekin uste dit salbatu nuela nere bizia. Eskopetarekin esan banu, nereak egin zin. Ori aitortu zuten bi anaiak il zizkiteken.

-Non ori?

-Antxo'ko *Campsa*'n; zijoazenak aidatu egingo zutela zemai egin ziguten-ta.

-¿Hizo usted eso por el Movimiento?

Ementxe zearo geratu niñun zer erantzun ez nekila. Gu etxean ez giñun guda-giro batean bizi; batez ere, eskubitarren guda-giroan. Eta neri «¿hizo usted eso por el Movimiento?» esan zidanean: Zer esan nai ote dit onek galdera orrekin? Ez baineekin. Ez bai nuen entzun. Auek sartu orduko, espetxean giñun, berriz, gu. Ez nin ikasi, orrekin zer esan nai zidan. Gutxi gora-beera igertzen nioken beren aldeko burrukari esango ziotela *Movimiento*. Baña, ziur jakin gabe, ez nioken baietzik edo ezetzik esan nai, eta erdiko bidetik joan niñun. Gero, patio-  
ra erten giñanean, ikasi nin, ango batek esanta. Apaiza uan, gañera.

–Motell: *el Movimiento*, auen gizon iltzeari deitzen ziotek. Ori ditek beren ebanjelioa. *Movimiento* orrengatik ogei gorri il itula esan baion, onuzkero etxean intzan.

Ez jakiñean, ementxe galdu nizkin tanto batzuk.

Gero ori bera entzun nioken San Kristobal'en, an atxilotua zegon bati. Beti bezela, goizean lanera omen zieken. Bidera erten zitzaizkioken bi; eta, egundoko jipoia emanta, egun batzutarako ondatua ta lanerako gauza etzala utzi ziteken. Onek, arrazoi osoarekin, auzitara deitu zizkin, bada. Ordurako guda asia uan. Aiek falanjeak izaki. Au, berriz, sozialista. Auzia asi zanean, ala esan omen zin, epai-maian buru egiten zuanak:

–Oroi zaitezte, gero, emen auzia etzaiela jotzallei egiten, jo zutenari baizik. Auek fa-



lanjeak dira ta *Movimiento*'agatik jo zuten ori, sozialista dalako.

Auzia bukatu zanean, ogei ta amar urteko zamarekin geratua uan jo zutena. Borreroak, berriz, zer esanik ez, aske.

–Erria kiskali etzezaten –erantzun nioken nik.

–Eta igesi dabillenari iges egiten lagundu diok?

–Bai bati baño geiagori.

–Zer iritzitakoak itun?

–Bietakoak, jauna.

–Zer egin uan *por el Movimiento*? –berriro galdera zital ori.

–Ez dakit zer esan nai didazun orrekin. Baña nik, beren iritziari begiratu gabe, danei lagundu diet.

–Eta ire anaien berririk badek?

–Aiek beren adiña badute ta berak erantzungo dute ondoena.

Nik ez nin aien arazoetan sartu nai. Batera esaten nuana aiek bestera esaten bazuten, etorri ziteken ortik aientzat okerra.

–Nondikakoak dituzute eskupeta oiek?

–Gureak, etxeakoak, beren gia ta guzi. Bost lizentzi ere badira.

–Eta polbora ori nondikakoa dezute?

–Gure etxean etzuten polboraren izpirik arrapatu. Perdigoia zan guzia.

–*El atestado pone pólvora* ta kito.

San Markos'en jarri ziguten gezurra joan uan *consejo de guerra*'ra. Garaiz babeslari bat ona billatzen utzi baligute, arek aixxa garbituko

zin ori dana. Baña *consejo de guerra* auetan, koroneletik goragokoren bat ez badek, babesik gabe geratuko aiz.

Nere aitormenaren agiria aurrean jarrita:

–Izenpetuko al uke ori?

–Bai, jauna. Baña lenengo jakin bear det, izenpetzezkeroz, or zer jartzen dun.

Alako begiratu zital bat egin zidaken, baña etzin gaizki artu.

–*Tiene usted todo el derecho* –esan zidaken.

Irakurri zuenean, antz eman nioken an etzegola nik esana besterik; eta, izenpetzen asi nintzanean, nik tarte aundia uzten nin. Idazkari gazte arek ala esan zidaken, asi baño len eskutik artuz:

–Ere denbora guzian gogoan eduki bear dekan aolku bat emango dit: etzakala letra baten utsunik utzi azkeneko itzetik ire izenera. Bestela gaizki nai diken batek sartu lezakek or edozein itz gaizto.

–Eskerrik asko –esan nioken.

Epailleak ere etzin ori gaizki artu. Izenpetu nin, bai, ta nere gelara joan niñun.

Urrengo iru egunetan, banaka-banaka joan itun nere iru anai ta andoaindarrak; baña beren itzultzallearekin. Aiek zer itzegin zuten, nik ori etzekit. Bañan bik aitortu ziteken eskupetarekin ibilliak zirala; ta, nere iritzian, orretzek galdu zizkin.

Laugarren egunera, laurok batera deitu giñuzteken. Alai zegoken gure komandante jauna. Gu baño alaiago, noski. Iritxi baizuen berak nai zuena. Oien odol-egarriak etzin neurrik.

Arkitu ziguken, bere ustez, *consejo de guerra*'ra eramateko naiko gaiztakeria. Andik aurrera-koa, maian exertzen ziran izardunak egingo zitaken. Sartu giñaneko, ala esan ziguken itzetik ortzera:

–*Quedan ustedes procesados.*

Banaka-banaka gure beatz-markak paper banatan jarri genizkin eta kito. Gure askatasun-itxaropenak joan itun.

Mikelete itzultzalleak esan zizkiguken atzekoz aurrera epailleak esan zitun itzak. Alegia, *procesados* orrek zer esan nai zuen: andik egun batzutara berriz deituko giñula.

Amaika lekutan badizkitek gure beatz-markak. Galtzen bagera ere, billatzeko aña utzi diagu gure etsaien eskuetan. Jakiña, orain gure aitortzak Burgos'era joango dituk, ango fiskalarengana. Beste salaketarik ez badute naasten, etzekit andik zer atera bear duan. Baña gauz bat zeukagu kontuan artu bearra: denak etsaiak ditugula; ta, arratseko erteerak iltzeko baziran, ez giñuzteken gu ere musu bana emanta bialiko. Gure auzia, beñepin, aurrera ziek; eta, luzatu gabe, jakingo diagu aurrerako geran edo bidean utziko gaituzten.

## ZAI

Gure ate gañetik *incomunicado* kendu ziteken; eta, lau egunen buru, patiora erten giñun, ustez lengo lagunena artera.

Arrituta geratu giñun. Zaarretatik erdiak palta itun. Baña ez uan alare patioa ustua. Bazeukateken nondik ekarria.

Zaarrak, lengo ezagunak, urbildu zitzaizkiguen, urduri denak, galderaka. Gure auzitako gora-beerak aientzat ere zer ikusi aundia bai zeukaten. Gu ongi geratzen bagiñan, aientzat ere itxaropena.

–Lau egun auetan zer moduz? –galdetu ziguteken.

–Ondo, mutillak, ondo. Beste urte-mordoska bateko ostatua bazeukagu. Auek oso gizon mazalak dituk. Ez gaitzitek ostatutik bialinai. Duan eskeintzen zigutek aterpea ta jana.

–Orduan ez daukazute askatasunaren itxaropenik?

–Askatasuna? Ortarako zeudek. Ezta pen-

tsatu ere. Aurrera giazik, aurrera. *Consejo de guerra* egingo omen zigutek. Bizirik geratzen bagera, geratzen danak puska bateko ostatua izenpetu bearrean gaituk. Ori dek gure iritzia. Naiago genin berri on batzuk ekartzea. Baña gezurretan ezin ariko gaituk.

–*Consejo de guerra*, zer dek ori?

–Zer esango diagu, gerok ere etzekiagu-ta? Baña, dana dala, iseka bat gizonaren biziarentzat, nere iritzi apalean. Militarrek nai dituzten legerik gaixtoenak jartzen badituzte ere, ez dituk iñor Jainkoaren aginduari indarra kentzeko: iñor ez iltzea. Ori ez dek aldakorra. Etzegok gizonaren eskuetan. Oiek eta gu berdin arrapatzen gaitzik agindu orrek. Militarren justizia esan oi ditek. Ez bada gaurko egunean baño zuzenagoa, amaika gizon iltzeren errudunak dituk. *Consejo de guerra*, zer esatea nai uke? Militar batzuk beren sable ta guzi. Itxurak, alegia. Ori bai. Zuzentasun-zaleak diran ezkerok, berak diotenez, gurutzetxo bat ere ezin palta, lekuko bezela. Batzar txiki bat egingo ditek gure pekatuak epaitzeko, ta aiek erabakiko ditek guk zer merezi degun. Bost jartzen dituk, noski, epai-maian; bostak gure etsai amorratuak. Militarrek dituk eta orrekin dena esana zegok. Beste bat aukeratuko ditek, militarra ura ere, guri zigorrak eman erazteko. Al badute, eriotza bera. Epai-maikoak zirikatzeke, beste aiton bat aukeratuko zigutek, au ere militarra, gure etsaia alegia, guk ez degula ainbestekorik merezi ta erruki pixka bat eskatzeko. Ori dena, etsaien arteko lana. Laguntzallerik ez dek bat bakarrik

arkituko. Ori omen dek militarren justizia, Jainkoak balira bezela, Aren aginduen gañetik berenak jartzeko. Kristauak badira, zergatik ez dituk Aren aginduetara makurtzen? Arek, militarrak izan edo ez, denentzat berdin eman zizkin bere aginduak. Emen etzegok balio duen militarren justizirik, Jainkoaren aginduen gañetik jartzeko. Iñor ez iltzea, alegia. Beste gañerako guziak gizon-erailtzeak dituk. Zer atera bear dek oien artetik? Zalantzik gabe, eriotza. Itxaropen gutxi askatasunerako. Danentzat berdinak dituk aginduak. Ortik kanpora okerreko bideak dituk.

–Pentsatzen genin, bai, guk ere, etzenutela berri onik ekarriko. Odola ixuri bearra. Alare, umoreko etorri zerate.

–Negarrez aspertzeko ere, bada, orduak etorriko zaizkiguk. Obea dek, dena beldurgarria bada ere, umore ta erdi broman artzea. Berdin gure bizitza olakoxea dek. Bertsolari bategan esan bezela: disgustoa ta miña, ondo bizitzeko ez da mundu au egiña. Guda baño izurrite gaiztoagorik ez dek munduan. Au ekarri zigutegatik pakean bizi giñan etxera, ta alare berak arrazoi. Utzi zaiogun orri, ainbeste aipatuz ozkia ematen zidak-eta. Lengo jende asko palta dek emen.

–Bai. Joan ziñatenean emen zeuden erdiak, noski.

–Aske joan dirala uste al dezute?

–Bakarren batzuk, bai. Egunez joan itun. Aien artean, ik *Todo-saber* esaten ion ura. Arratsean geienak. Ala joan dituk. Iñork ez dik

esaten, ondo dijoazten edo gaizki. Baña jendea asi dek etsitzen. Ez baita aien berririk etortzen onuntz. Gure ordua ere laxter etorriko dek. Aurrenetakoak gaituk emen eta ez gaitzitek azitarako edukiko.

–Aske joango al zerate, beñepin. Ez dizutet besterik opa. Berdin gurea ikusia zegok. Gu aurrerako gaituk. Azkenean *Todo-saber* orrek asmatu, bitarteko sonaturen bat izango zin-ta.

Iru arpegi berri ikusten nizkin nik an. Aiek ni, gaztea nintzalako, ez baniñuten ezagutzen, nik bai ordea aiek. Errenderia'n ongi ezagunak itun.

Bat, Apaola'ko Joxe Martin, adin xamarreko gizona eta fameliko aita, Errenderi'ko baserri batekoa. Bestea, Landarbaso'ko Joxe Agustín, mendian bakarrik dagon baserri xar batekoa. Irugarrena, onen auzoa, Astabixkar'ko mutilla.

Mutil au garai batean oso ezaguna nin. Baña bakoitzak geron aldera jo genin. Itzegiteko asmoan urbildu nintzanean, berak ere ezagutu nioken. Irripar pixar bat egin zidaken. Baña arek etzin iñorekin elkar-izketarik nai. Arrunt bere baitara bildua zegoken, zearo izutua ta etsia. Urrengo arratsean bertan galdu uan andik. Il ez besteak egin omen zizkiotela gero ikasi nin, aitortu erazteagatik.

Argi-zentral batean egiten zin lana, ta auek denak ixpitzat artu zizkitekten. Bakar batzuk utzi zizkitekten, baña il edo espetxean bota zizkitekten urteak. Oiartzuar bat ezagutu nin San Kristobal'en. Ogei ta amar urteko azma zera-

maken bere bizkarrean. Elgoibar'ko bat ere ezagutu nin, ogei ta amar urterekin ura ere. Au semea uan. Aita izkillotu egin zioteken.

Astabixkar'ko au nora eraman ote zuten? Neretzat etzegoken zalantzik. Gero azalduko itun egiak.

Apaola'ko Joxe Martiñengana ere joan giñun. Au zakar bat uan. Eroska xamarra, gañera. Baserria ez galtzekotân, andregaiia ere bes-tek billatu zioken. Goierriarra, gañera.

Gizon onek etzekiken zer zan eskubi ta ez-kerra politika-gauzetan. Au ez uan ortan naas-ten zana. Jakiña, bere botoa emana izango zin; baña ori ez dek gizon bat zigortzeko arrazoia.

–Kaixo, Joxe Martin –esan nioken–. Zu ere ekarri al zaituzte ostatu ontara?

–Nongoa aiz i? –galdetu zidaken.

–Bordaxar'koa ni.

–Joxeren semea?

–Bai, bai; bere semea.

–Lau bazeratela onuntz ekarriak esan zida-tek neri.

–Bai; iru elkarrekin gabiltz. Joxe Ramon, Prantzesillaga'n egondua, zuk geiena ezagutzen dezuna, noski, beste patio batera ateratzen da.

–Zuek ere ganbara rekete-larruz betea edu-kiko zenuten?

–Gutxiagogatik gabiltz emen gabiltzanak. Iru eskopeta txarreatatik ekarri gaituzte. Zer ondoren emango diguten jakin ez.

–Ala jainkia! Amar eiztari diran etxean, zer besterik arrapatzea uste ote zuten?

–Joxe Martin, auentzat ez du arrazoiak ba-



lio. Ta zu, fameliko gizona, zergatik ekarri zaituzte?

–Beti gorroto izan dit politika zikin ori. Ez nauk egundo ezertan naastu. Alare, orra nun naukaten. Inbiriagatik ekarri niotek. Auzoren baten ezin ikusia; ez dek besterik. Etzekit zer salatzen didaten ere. Etzidak iñork ezer esan. Auek gure etxera sartu ziranean, etzekiteken nere berri.

–Orduan laxter joango zeran itxaropenetan.

–Oneraño ekarri nauten ezkerro, ez dek errexa berriz ara biurtzea. Astabixkar'ko mutilla ere bart atera ziteken. Etxera joan zala uste al dezute? Berri gaixtoak zetozek erritik, ori sinisteko.

–Arratsean atera dituzten oiek ez dijoazela etxera uste dezu orduan?

–Zalantzik gabe, oiek bidean gelditzen dituk. Oiek ez dizkik geiago iñork bizirik ikusiko. Sinistua bizi adi ortan.

Joxe Martiñek bere arrazoiak izango zizkin orrela pentsatzeko. Ez nioken galdetu, baña etsia zegoken. Arrats batean atera ziteken eta gaur arte.

Emen militarren petralkeria besterik ez dek ikusten. Gizon orrek politikaren berri etzekila, ez uan bada igartzen zalla. Epaille batekin itzik egin gabe, aitorketa bat egiten utzi gabe, salatu zutela ta iltzera. Maltzur edo sinisberegi itun ortan militarrek.

Gasteiz tiro bat sutu gabe artu omen ziteken, eta pake-pakean zegoken. Alare, gudalburu bategen ala omen zioken:

–Emen ez degu iñor il eta komeni litzake

berrogei ta amarren bat garbitzea, errian beldur pixka bat sartzeko. Or zegok guzia. Lenengo, beldurra sartu errian, eta aitzaki orrekin garbiketa on bat egin.

Batean eta bestean ori uan militarren lenengo elburua.

Apaola'ko Joxe Martin utzita, Landarbaso'do Joxe Agustiñengana joan niñun. Aren berri ere ikasi nai nin.

–Kaixo, Joxe Agustin –esan nioken.

Zezen batek bezela burua jasoz, adiñekoa uan, baña oraindik sasoi onekoa, bitarteko gizona:

–Nongoa augu? Ni leku gutxitan nauk ezaguna.

–Onera ekarri zaituztenak ezagutu zaituzte, bada. Ni Bordaxar'ko Joxeren semea naiz. Lau gaude batera ekarriak.

–Bordaxar'koa, beraz, Joxeren semea. Benetan ezaguna dit nik ura. Ikaragarriak egingo ziñuzten, lau batera onera ekartzeko. Ni ezik, zuek ere norbaitek ezagutu zaituzte.

–Ezagutu bagiñuzte, ez giñuzten onuntz ekarriko.

–Ori dek arrazoia. Nerekin berdin egin ditek. Bakarren bat il al dezute?

–Norbait il bagenu, ez giñuzten arrapatuko. Eiztariak izatea; ori da gure pekatua. Iru eskopeta txarreatatik gaude emen.

–Bordaxar'en eskopetak billatzea ez dek arritzekoa. Amaika eztanda gaixto egiñak zerate gure etxe inguru oietan barrena. Alare, neri billauagoko jokia egin zidatek. Bakarrik bizi

nintzala badakik, txakur txiki bat lagun. Pakepakean bizi niñun. Iru bei baneuzkaken; ardimordoska bat ere bai; zaldi txiki bixi bat, nere enkargoak egiteko. Ez neukaken artzekorik; ematekorik ere ez. Illunabar batean, goiko piñuditik beera, or sartu zaizkidaken rekete-mordoxka, beren kapitan ta guzi. Laxter egin ere besteren etxearen jabe. Nere olloak, geienak oien ijarak gizentzeko izan itun. Ardiak ere ari itun bakantzen. Azkenean, larru gorrian utziko niñutela etsi nin. Auei on egiteak ez dik asko balio. Nere bizitzako lanen ondasun guziak jan zizkidateken; eta, eskerrak eman bearrean, kuadro baten atzean neuzkan amar milla pezetak, zapi batekin ondo bilduak, bateonbateg lapurtu zizkidaken. Esan nioken kapitanari zer gertatu zitzaidan.

—Ederki. Egia bada, ostu duenak larrutik pagatuko du. Baña, gezurra bada, erruki zaitut —erantzun zidaken.

Bertan damutu niñun lapurreta ori salatua. Berdin banekiken ebatsi zizkidaten amar milla pezeta aiek etzituztela iñon billatuko. Berri au bereala zabalduko uan reketeen artean; eta zeuzkanak, bizia maite bazuen, bazterren batean gordeko zizkin eta ni gezurtitzat artuko nioteken.

Esan bezela, ez itun azaldu nere amar milla pezetakoak. Orduan auzora joan itun, ni nolako nintzan berri-eske, ta zearo ondatua utzi nioteken. Lapurra nintzala, espetxean egona nintzala, etzekit nik zer geiago. Ni negon estuasun artan, etzegok ortara itzegiteko eskubide-

rik. Ori dena egia uan. Entzunak izango dituk Landarbaso'ko Joxe Agustiñen azañak. Baña zergatik kontatu bear zioteken ori dena, ni galdu nai niñuten etsaiei?

Il ez besteak egin zizkidateken. Donosti artu zuten arte, sei egunean lotuta eduki nioteken etxean. Berak nai zuten guzia egin ziteken nere gauzakin. Uste nin andik erteeran bertan ilko niñutela. Baña itxurak egiteko onera ekarri niotek. Oraindik etzidak epaille batek ere konturik artu. Gertatzen dana gertatu, sinistra nazak nik egia diodala.

Gau batean eraman ziteken ura ere; baña gaur arte. Baserria utsik geratu uan. Auzoko Judasek eraman zin bere zaldi koxkor bixi ura. Salaketaren saria jaso zin arek. Gero gerokoak.

Baña Joxe Agustin ez uan gezurretan ari. Au il ta andik bi illabete ingurura, Otsazulueta deritzaion baserri-kantina txiki baten ondoko makal baten ondoan agertu itun Joxe Agustiñen amar milla pezetak. Nork utzi ote zitun aiek an?

Joxe Agustin ez uan ain eroa, taberna baten ondoan bere amar milla pezetak ezkutatzeko. Landarbaso'ko egalean bazeuzkaken leku segu-ragoak. Nork utzi ote zitun orduan aiek an?

Ez diagu bi bider pentsatzen ari bearrik. Lapurtu zitunak, entzungo zin aien palta jabeak kapitanari salatu ziola, ta presaka, al zuan lekuan, ezkutatuko zizkin. Gero, Donostia artu zanean, bereala aurrera joan itun. Diruak, berriez, an geratu itun makal-ipurdian.

Geroztik an zegok Landarbaso, zuzengabekeriaren salatzalle, uts-utsa.

Olaxe ari itun gure zapaltzalleak: bekaizkeriz egindako salaketak sinistu ta aien arauera baserritar gizon onraruak eriotzera eramaten. Etzizkitekten iltzalleak gozo-goxo ibiltzen, garbitzera zeramazkiten errugabeko gizon gixai-xoak.

Antxo'ko txatarrero batek bazeukaken artu-  
emana, soldaduzkan bere adiskide izan zuen  
batekin. Orduan malla txikikoa uan. Baña, gu-  
da asi zanean, koronela. Au Arrasate'n zioken  
bere gudaritzarekin. Bazizkitekten kamioi bat-  
tzuk. Baña autsitako puska batzuk aldatzeko  
berriak bear, eta nondik ekarri? Ezagutzen  
zuen txatarreroari esan zioken, baldin bazitun,  
mesedez eramateko.

Onek eundoko almazena zeukaken puska  
zaarrez betea; baña balio zutenak. Agindu be-  
zela, eraman zizkioken eskatutakoak. Beste ze-  
rrenda baten eskea ere egin zioken.

Ango lanak bukatuta etxera berandu xamar  
zeturrela, iltzea baño geiago pentsatu gabe,  
etzin jakingo ere arek nola ari ziran, itxu-itxuan,  
iltzen ari ziran lekura sartu uan.

Goxoak jarri omen zitzaizkioken. Zuzenean  
berebilletik iltzera zeramatela, buru egiten zue-  
nak aztertu zin berebil txiki ura ta billatu eskatu-  
tako puska aien zerrenda. Txatarreroarengana  
urbilduz, galdetu zioken ea zer opizio zuan.

Antxo'ko txatarreroa zala.

Ea puska aiek zeñek eskatu zizkion.

-Arrasate'ko olako koronelek.

-Utziozute orri pakean. Bestela, guri ere  
azken ori emango zigutek-eta.

Iñori ezer ez esateko agindu zioteken, eta garai artan andik ez etortzeko. Ez omen zioteken berriz esan. Iru milla demonio, laxter aldegin omen zin andik.

Beren ilketa egin eta lasai bideko kroskan kontu kontari arrapatu omen zizkin. Txurnioraño ko odol-putzua omen zioken bidebazerrean. Oñetako bat emen, bestea an. Illak, batzuk bidean, besteak aldapa beera eroriak. Baña gauz batek arrituta utzi zin: bide ondoko elorri batean, oraindik lurruna zeriola, beroa ta il berria alegia, ikusi zizkin gizon baten muñak. Ez balu ikusi, ez omen zin sinistuko, gizonak ainbesteko muñak izaten zitunik. Bost omen itun illak. Au dena, berak gure sukaldean esana.

Urrengo Arrasate'ra joan zanean, gertatuaren berri eman zioken koronelari.

Onek, serio-serio, biderako txartel bat eman zioken, beste alako bat gertatzen bazitzaion ere, esanaz:

—Oiek danak nik frentera bialiko nizkikek. Iltzeko zaleturik badaude, or zeukatek aukera.

## FISKALA

Egun gutxi barru, berriro ere izan genin deia. An zeudeken gure betiko iru lagunak. Komandante jaunak itz batzuk esan ondoren, irakurri ziguken Burgos'ko fiskalak guretzako eskatzen zuena.

Ez uan azpitik geratu. Eskatu ziteken geiena eskatu ziguken, noski. Ajola zioken ari besteren biziagatik. Zenbat eta geiago il obe, zioteken aiek.

Eriotz-zigorra edo betiko espetxea, ori uan fiskal jaunak guretzat eskatu zuena. Ez giñun batere arritu. Ura ortarako aukeratua zegoken: erriak txikitu ta gizonik geiena nola il. Ori eskatuarekin, bada, erakutsi ziotena bete zin. Ori uan bere ogi-bidea.

Zearo izututa geratuko giñalakoan, arpegira begiratu ziguken. Etzin keñurik txikienik gure begietan ikusiko. Ez giñun izutu. Ez uan, bada, ori eguneroko ogia? Baña gure salatari jaunak guri eriotz-pena eskatzeko, arrazoi batzuen ar-

tean, asko zeudeken guk esan ta izenpetu ga-beak.

Aiek nondik atera zituzten galdetu nioken, nere ustez eskubide osoarekin. Guk ere bizia maite genin, eta bera salbatzeko alegin guziak egitea galerazi bear al ziguken?

–Non demontretik atera dituzute arrazoi oiek?

–*Usted es un reo y cállese* –erantzun zidaken.

Idazlaria bera ere arrituta geratu uan epaillearen erantzun orrekin. Itzik ez bazuen egin ere, arpegian antz eman nioken.

–Orixe berbera erantzun zion Pilatosek Jesusi. Baña, zu epaille zeran ezkerro, jakingo dezu, guk aitortu ta izenpetu gendunak bakarrik balio duela, legez jokatzekotan. Ortik aurrerakoa, billaukeri bat besterik ez da.

–*Cállese* –erantzun zidaken berriro–. Ik ez didak erakutsiko neri legeen berri-ta.

–Zuk ondo dakizu –erantzun nioken apal-apal–, guk gure bizia arraizkuan daukagula, ta Jainko ta gizonen aurrean ori salbatzeko eskubide osoa daukagula; or guk esan gabeko ipui asko daudela; ta zu, epaille jauna, beartua zaudela, nondik atera dituzun oiek, agermen pixar bat egitera. Norbaitek salatuak badira, ezin litezke arin-arin sinistu; ta, egiak balira bezela, oien arauera epaitu.

–*Cállese* –esan zidaken berriro.

Ni ere sumindu niñun. Ikusten bainun, aien arauera epaitzen baginuzten, gaizki ibilli bearko genula; ta gogor erantzun nioken:

–Gure odola edan nai badezute, edan. Baña



billaukeririk beltzena izango litzake ori. Eskuak garbitzeak ez dizute balioko. Uste nuen militarrek zuzenagoak ziñaztela. Ortarako ez dago eskubiderik.

Goxoa jarri zitzaidaken. Uste nin bertan bi tiro emango zizkidala. Oiuka ala erantzun zidaken:

–Ixo, umetxo ori! Bestela, masalleko bat emango dizut. Nor zera zu, militarrek zuzenak ez gerala esateko?

Idazlariak, patxaran-patxaran, ala erantzun ziokeen:

–*Mi comandante, no pierda usted su dignidad.*

Anaiak atzetik bizkarrean ukuituz:

–Ago ixilik –esan zidateken.

Orduan ixildu niñun. Nondik atera zitun aiek, jakin gabe geratu giñun. Norbaiten salaketa izango ote zan kezketan negoken. Gero, *consejo de guerra*'n, guk aitortu genunari baño, orri kaso geiago egin zioteken. Ipui aiek gero alako ondorenak ekarriko zizkiguteken.

Gure eztabaida bukatu uan; baño gure kalterako. Gure kiolariak berea egin zin eta gu salduak geratu giñun.

Beste lantxo bat ere bageneukaken egin bearra: *consejo de guerra*'ko guretzat babeslari bat aukeratu; baño militarra. Ori ere beste iruzurketa bat geiago izan uan. Guk, lenengo, kapitan Ibáñez eskatu genin, edo eskatu ziteken nere anaiak, nik ez bainuen ezaguna.

Nerekin zeuden iru anaiak kuotako serbitu ziteken, eta irurak tiralari bikañak itun. Jakiña,

eizean oituak zeudelako; eta rejimiento bakoitzak izaten zin taldetxo bat ortarako. España'ko kuartel geienetan jartzen zizkiteken txapelketak. Oietan gallen ateratzen zan kuartelak, bere saria jasotzen zin. Baña diru ta kopak baño, naiago izaten ziteken, ortik rejimentoari zertorkion ospea.

Nere iru anaiak, bada, arekin ibilli itun España'n zear. Ura ziteken ezitzalle ta zuzendari. Ez itun beti lenen geratzen. Baña bazizkiteken beren garaipenak. Santander'en, bakarka Antonio zanak lenengo saria atera zin.

Ura ziteken, bada, nere anaiak oso ezaguna. Aita batek bere semeak bezela maite zizkin arek nere iru anaiak. Zein aukeratu nai gendun eskatu zunean, bereala nere anaiak ura eskatu ziteken. Irun'en zegola esan ziguteken. Baña, urrengo egunean, etzutela iñon billatu esan ziguken-epaille jaunak. Orduan beste bat eskatu ziteken. Ura ere oso ezaguna. Baña ez uan azaldu.

Azkenean, berak nai zuten aiton kaxkar bat aukeratu ziguteken. Olaxe egin ziteken jolas gure biziarekin. Aiton orrekin ez genin itzik egin ere. Gure berri ezertxo ere etzekila joan giñun *consejo de guerra*'ra.

Laurok suminduak erten giñun andik. Aiek etzeukateken kontzientzirik. Askotan, irripar goxoa aurrean eta billaukeria atzean. Etzegoken an zuzentasunaren izpirik.

Ez uste, gero, gure buruak zuritzeko gezurretan ari naizenik. Au egi biribilla dek. Onen

antzeko zuzengabekeri geiago ere egin zizkiguteken-ta.

Andik zuzenean patiora joan giñun, ango lagun artean pixka bat lasaitu ta atsegintzeko. Aztu zerbait, al baziteken beñepin. Beti tirantiran bizi giñun eta etziguken onik egiten.

Bagenin aiton koxkor bat oso alaia, amaika par egin arazi ziguna. Zenbat bertso, zaarrak eta berriak, etzizkigun kantatzen arek? Pixka bat zirikatu ezkerro, batere ajola gabe dantzan berdin asiko zitzaiguen. Arekin lasaitzen niñun ni. Oso maitea zin ura jendeak.

–Ez al daukazu beldurrik –galdetzen genio-  
nean:

–Il ta ere, zer galduko dit nik emendik aurre-  
ra?

Gure kirioak arek lasaitzen zizkin. Olako leku batean ez ditek gutxi balio olako gizon alai ta jostalariak. Gu San Kristobal'era baño len, aske joan uan eta benetan poztu niñun. Kanpoan ere berdiña izango uan ura.

*Consejo de guerra*'ra dei egin arte, pakean utzi ziguteken, bada.

Patioan jakin nai izaten ziteken *consejo de guerra*'ko moldaketan ari ziranen berri. Neri, beñepin, askotan galdetzen zidateken.

–Bai al zekiagu? –erantzuten nieken–. Or gure aitorrak batere ez dik balio. Andik-emendik salaketan biltzen dituztenak, oiek zeukatek indarra. Burgos'ko fiskalak, eriotz-pena eskatzen ziguk. Bada ez bada ere, geiena eskatu.

–Ori ez dek ezer ere. Ez orri kasorik egin.

Oiek beti geiena eskatzen ditek. Baña ez ditek beñere eskatzen duten aña ematen. Orregatik lo lasai egin zenezateke –esan ziguken batek.

–Dana dakina izan baintz ere, ez uan orren baikor itzegingo –erantzun nioken–. Bazekiagu ez dutela beti, eskatzen dutena ematen. Iñoiz geiago ere bai, ordea. Oraingo ontan, berriz, dena gure aurka zeukagu. Denak gure etsaiak dituk; militarrek, alegia, epaillea, babeslea, fiskala ta epai-maikoak. Geienak lepo batetik zeukatek burua, ta asmo bat bakarra: bere askatasuna ainbeste maite duen erri xar ezikaitz au betiko il. Zer bide oberik, bere gaztedia garbitzea baño? Eunka urte auetan, orren atzetik zebiltzak. Or etzegok zuzentasunearen itxurik ere, eskatu ta ematen dutenak bat dituk-eta.

–Ik nai dekana esango dek. Baña ezetz eskatzen dutenik eman, jokatuko nitek edozer gauza.

–Jainkoak ala nai dezala. Gorago ez dituk iritxiko. Ik apustua irabaztezkerok, jetxi bearko ditek. Nik baño itxaropen geiago daukak. Ire lasaitasunak ez dik gutxi balio. Besteak urtutzen ari gaituk. I, berriz, gizentzen. Itzegiteko aukerik izaten badiagu, denok poztuko gaituk.

Ikasi genin andoaindar batzuk egin zutela *consejo de guerra*; aiei ere eriotz-pena eskatu ziela.

Eriotza besterik entzuten al genin? Gure bixita guzietan, olako il zutela; olako aztarrenik utzi gabe galdu zala; igesi egiña izan litekela, baña etxeakoak itxaropen gutxi zeukatela; beste sasi tartean balaz josia billatu zutela. Errie-

tan ere, bada, espetxeko moduan ari itun. Eriotza zébillen nagusi. Gorrotoa ixilka ari uan bere begiak asetzen. Mendekoa, jainkoen atsegiña omen dek. Arritzekoa al uan espetxean eriotza entzutea? Gure ordua ere ari dek urbiltzen, eta aukera ori ez ditek galduko gure etsaiak.

Oso-osorik eriotz-giroan bizi giñun, oraindik espetxean bakar batzuk lo bazeuden ere, ta obe. Lasaiago bizi itun. Laxter etorriko uan negarren ordua.

## CONSEJO DE GUERRA

Berriro ere deitu giñuzteken. Oraingoan kanpora: Loiola'ko kuartelera. Eskumuturrak ongi lotuta erten giñun. Asiera eman ziteken. Amaika bider lotuko zizkiguteken andik aurre-ra.

Berebil koxkor batean, bi guardiazibillen mende. Katalanak itun. Andik igesi egiñak, mazalak. Guretzat onak. Etziguteken itz txar bat ere esan, euskeraz ari giñalako. Gizaltzar askoak arkituko genizkin, bada, tartean.

Bidean, gure auzoko andre xar bat ikusi genin, 'astoaren atzetik, Donosti'ko karrikan, bere esne ta tratu pixarrak saltzera joana, Jainkoak zekin lekutik araño. Arek ez giñuzken ikusi. Aren bi seme izango itun gure lekuko. Zer egin bear ziteken aiek? Batek erderaz etzekiken; besteak ere ez geiegi. Itxaropen ona geneukaken, aiek lagunduta ateratzeko.

Zearo utziak geratu giñun. Etxekoak berak ere oraindik beldurrak zebiltzaken. Nik gero

ikasi nunez, gu errunduntzat epaitzen bagiñuzten, aiek ere baituko zituztela susmur gaixto ori etorri uan nere belarritarraño. Jaunari eskerrak, denon onerako ez uan olakorik gertatu.

Lagunak, berriz, batzuk Bizkai aldean, besteak Ipar-Euskadi'n, asko espetxean. Etxean aske zeudenak ere, berekin zizkiteken naiko lanak. Illabete lenago izan bazan, milla bear ta ere billatuko genizkin. Gizon batzuk aldatuarekin nola geratu giñan! Orain bakarrik geunden, arraixku guzien aurrean.

Errenderi'ko udaletxean endore zegona, gure etxeko adiskidea izana uan. Berak jabe ziran garai aietan, gure baserrian, naiko sagardoa edanaz, gurekin ibiltzen itun ura beste bi edo irurekin, gure lengusu maiteak ekarriak. Ez itun orain asko oroitzen. Bultzatzalleren bat palta zutelako, noski. Ortan ere, gure lengusu maiteak edukiko zizkin, bai, errurik geienak.

Semeak il ta laster joan uan aita udaletxera. Ango batek ala esan ziokeen:

-Zure semeak ongi daude, Joxe.

-Zaude ixilik, eta ez naigabetan dabillen guraso bati parririk egin. Lautatik bi il dituzte, ta ezagun da asko lagundu diezutela.

Arrituta begira jarri omen zitzaiokeen:

-II?

Alako arpegi estrañu bat jarri omen ziokeen. Ortarraño utzi giñuzteken, zerbait egin zezaketenak.

Koarteleko sarreran, gure lengusu bat zegoken guardian. Baña ura ere, gu bezelako gazte arlote bat. Arekin itz bi egin nizkin ixilka ta

aurrera jarraitu genin kuarteleraño; ordurako berebilletik erten baigendun.

Neretzat etzin ezeren oroigarririk kuartel arek. Ez niñun egundo bere barruan ibilli. Baña nere iru anaiantzat bai. An serbitu ziteken beren gudaritza. Baña kuotako. Ordainduta, alegia, Egunero ia, etxean itun. Aiantzat oroigarri on asko zizkin, ordurarte beñepin. Aurrera-koan, bizirik gelditzen ziranak etziteken ori esango.

Txuxenean gela txiki batera eramán gaitziken. An zeudeken, ordurako zai, lau andoaindar. Zortzirok an geratu giñun, gurekin joan ziran bi guardiazipil aien mende. Gu, beti bezela, zortzirok euskeraz ari giñun. Gu nabaitu giñunean, gure aurretik zijoan guardiazipil igar erre bat sartu uan oiuka jauzi batean, eta aurrean jarri zitzaiguen:

–*Malditos perros, no habléis en esa jerga; que, si no, os acribillo* –oiu egin zigukén.

Ortan pentsatu zer asmotan zetozen.

Bereala, gure kargu zeukatenak, bietan buru egiten zuena zutitu uan eta aurrean jarri zitzaioken, esanaz:

–*Señor, ¿en qué van a hablar, si no saben otra cosa?*

–*Disparar ya saben pues esos malditos* –esanta joan uan aurrera, berekiko izketan.

–Zuek jarrai lasai euskeraz. Guk daukagu zuen kargua, ta oiek ez daukate zertan sarturik.

Geunden egoera triste artan, poz eman ziguteken. Eskerrak gure berri ulertzen zuten guardiazipil batzun mende geundenari. Bestela, mutu



egon bearko genin edo norbaitek sutuko ziguken.

Andik puska batera, beste guardiazibil lodi bat etorri uan. Denak presoketan baizebiltzan. Nongoak giñan galdetu ziguken. Lengo erre ura baño gozoagoa uan au. Onek ere, noski, etzizkin gurekin zeuden guardiazibillak ikusi.

–Nongoak zerate?

–Errenderi'koak gu.

–Errenderi nola dagon! Erdiak palta dituk. Guk garbitzeko aukeratuak geneuzkanak, igesi egin ditek. Geratu diranak bete bearko dizkitek aien utsunak –esanta, aurrera gizona.

Gurekin zegon guardiazibil batek esan ere bai:

–Errugabeak il? Noren dotriña da ori?

Andoaindarrak bukatu zutenean, etorri uan gure ordua. Sarreran, gure babesle egiten zuen kapitan xar arek, lenengo aldiz ikusi ta itzegin ziguken:

–Zaudete lasai. Alegiñak egingo dizkit.

Sartu giñanean, beldurra baño nazka geiago eman zidaken an ikusi nuanak. Bost militar zeudeken epai-maieko, batzuk gazteak, besteak zaartxeagoak, bizarrak txukun moztuta, arpegia margotu balute bezela, txukun-txukun jantziak beren izar ta guzi. Bat uan komandantea; besteak beeragokoak itun. Denak beren sableak gerritik zintzilik. Aiek beren buruak erakustera joanak itun; ez auzi on bat egitera etorriak.

Gure ezagun ta auzoko bat ere an zegoken epaille. Goibel zegoken benetan, bai-baizekin

etzeukala ezer egiterik, auzi zuzenik ez beñepin. Bakarrik baizegon lauren aurka. Beartu egingo ziteken ta joan egin bear arek ere.

Fiskala, batetik, babeslea, bestetik, gure bi lekukoak larri, gu bezin urduri. Gu, berriz, aulki txiki banatan exerita. Atzean, berriz, Pilatosen aurrean Jaunaren aurka aritu zan bezelako jendea: erabat etsaia ta aberats jendea. Etziteken oiurik egin. Baña ezagun zin atsegin zitzaie-la militarrek ari zuten lana.

Fiskala, erdi txalkor txiki bat uan; kapitana. Baña bixi ta berritzu oietakoa zirudiken. Zaldi koxkor batek bezela aidatzen zin burua. Gure babeslea, berriz, xaarra, txikitxo bat, bibote aundi batzukin. Berak ere buru azkarrekoa zirudiken.

Sumindua geratu niñun, gurutzea maiaren gañean ikusi nuanean. Zertako zeukateken gurutze ura an, berdin auzi zuzen bat egiteko asmorik etziteken-ta? Guri babesteko aukerik ez baziguten uzten, erabaki onik etzutela aterako ikusia zegoken. Orduan, zer egiten zin gurutze arek an, mai artan exeri ziran geienak erru gabe-koen odolez zikinduak zeudeken-ta?

Ai, gurutze maitea! Amaikak artu zaituzte lekuko bezela, beren gaiztakeriak estaltzeko. Gu ere, Jauna, pekatariak gera; baña ezartzen digutenik ez degu egin guk. Ori zuk ondo daki-zu. Baña zu ere erru gabe joan ziñan gurutzera. Zertako geiegi kezkatu ta naigabetu, gu ere ala eramaten baigaituzte? Kristauak zure ikasleak ez al gera? Maisua artara ibilli bazuten, bere jarraitzalleak zergatik ez? Baña oñaze ematen

dit, sinisten degunok eriotzera eramateko, zu lekuko artzeak. Bete dedilla zure borondatea, berdin ez orain ta ez gero ez gaituzu aztuko-ta.

Asi ziteken auzia. Gure pekatuen zerrenda irakurri zutenean, fiskala asi uan deabruaren lanean. Etzekit nondik ateratzen zitun, aidatu zitun astakeri guzi aiek. Bukaerako –nola ez?–, laurontzat, ajola aundi gabe, eriotz-pena eskatu zin.

Gure babeslea asi uan ondoren. Egia esateko, alegiñak egin zizkin; baña *consejo de guerra* oiek alakoak dituk. Arek etzekiken gure berri, ta ikasterik etzin izan. Ez giñala beñepin gizoniltzalleak, eta kontuan edukitzeko esanaz, bukatu zin bere itzaldia.

Lekukoei galdera batzuk egin ondoren, neri galdetu zidateken:

–Zin egiten al dek, egia esango dekala?

–Bai, jauna, bai. Len ere egia esan det, eta berriro ere ala esango det.

Beste nonbait egon bagiña, berai galdetuko nieken, ea auzi zuzen bat egingo zutela zin egingo zuten.

Aietako batek, garrantzi aundi gabeko galdera batzuk egin zizkidaken eta exeri arazi nioteken.

Gero nere anaiei; ta berriro ere, il zituzten biak aitortu ziteken eskupetarekin ibilliak zira-la; beste biok ez. Nere iritzian, orrek galdu zizkin.

Triste atera giñun Loiola'tik. Banekiken oso juzku gaixtoa egin zigutela. Guardiazibillak ere serio ikusten nizkin. Gero berak esanta ikasi

genin, Ondarreta'ra baño len gu iltzeko agindua artuko zuten beldurak zeudela.

Nere jateko gogoak erori itun. Ez beldurragatik. Orrek ere zapaltzen gaitziken. Batez ere, gure auzian naastu ziran guziak billaukeria egin zigutelako. Orrek zapaltzen nioken geiena, ni beñepin.

Oso susmur txarra artu ziguteken; eta ez uan igertzen zalla, gure babesle jauna baño, obeto aritu zala etsaia. Ori uan gure galera. Baña nik ez dit zalantzik, auzitara baño len biak itzegin ta elkar artuak zirala. Orrek itxaropen pixar bat ematen zidaken, ez giñala laurok galduko.

Gu, beñepin, zearo zapalduak erten giñun. Eroriak joan bagiñan, eroriagoak etorri giñun Ondarreta'ra.

Ordurako illuna uan. Andoaindarrak eta gu berebil batean sartu giñun, esku lotuakin. Aietako bi lasai zetozen. Aske ertengo zirala noski esan baizieten auzia ikustera joanak, andoaindar batzuk. Baña *consejo de guerra* oieta-tik, Loiola'tik beñepin, ez uan iñor aske geratu. Autsa bezela botatzen zizkiteken urteak. Beste biak, berriz, gu bezela zapalduak. Oraindik ez genin itxaropenik galdu. Baña zalantza gaixtoan geratu giñun.

Donosti'ko kaleak barruna etzebilleken katurik ere. Gurekin zijoazen batzuk etziteken geiago ilusiko. Sartu giñun Ondarreta'n. Urriaren emezortzia uan. Gero jakin genin, *consejo de guerra*'ko erabakiak Burgos'era bialtzen ziztuztela. Aiek izenpetu ta Ondarreta'ra iritxi arte, etzeukaken iñork baitu aiek iltzeko baime-

nik. Andik etortzen zanean, jakingo genin zer egingo ziguten. Amar bat egunen gora-beera omen uan guzia.

Askotan, emendik zijoan zigorra, gutxitua edo aunditua etortzen omen uan. Angoak zeukaken, beraz, eskubide guzia. Orduan, zertako balio ziteken emengo *consejo de guerra*'k? Amaika eriotz-pena etorri itun andik, emendik joan etziranak. Batez ere, sonatu xamarra ta erriko auzitan sartua zegona bazan. Gutxiagotua ere bai, babesle on bat bazeraman.

## GAU TA EGUN GOGOANGARRIAK

Gu joan ta bereala pasa ziteken aparia. Neregatik aurrera joan uan. Ez neukaken jateko gogorik.

Bein rebista pasa zutenean, oatzean sartu giñun, gure egoera tristea ausnartzera. Orra eskupeta erdoitu arek zer ondorena ekarri zigun. Eskarmenturik-ezaren lanak!

Gero ere arrats gaixtoak etorriko itun. Baña ez uan ura izan neretzat onenetakoa. Nekatua edo aspertua etzekit negoken oso; ta, amaikak alde a etorri zanean, nik ez nekiken espetxean ezer gertatzen zanik. Ni lo betean negoken. Baña arratseroko banaketa ari ziteken. Nik nabaitu gabe, atea zabaldu etzidaken, bada, zaldilaxterketen ta ate-otsik entzun gabe ta lo negola, beti erdi mozkorra ibiltzen zan karabinero erretiratu batek? Espetxe barruko zaitzalle zegoken. Arin xamar, baña buruan bergazo bat eman zidaken. Jauzi batean jeiki niñun; ta aurrean, neri begira, ura ta beste bi armatuak ikusi nizkin.

—Orra gure ordua —nioken nerekiko—. Zergatik ez ote gaituzte bidean il? Au dena aurreratuko genin.

Karabinero zar arek:

—*Está usted liberado y prepárese* —esan zidaken; eta, atea itxiz, aurrera joan uan.

—Nere anaien billa joango dek deabru ori —nioken nerekiko—. Au dek errematea ematen digutena!

Aukeratuak deitu zituztenean, bereala etorri itun neregana. Ni atarira jetxi ondoren, ekarri ziteken bestea. Beti banaka; binaka egundo ez. Buru pixka bat zuenarentzat, txeetasun ori bera ere susmur txarrekoa uan, bada.

Gelatik atera baño len, agur bat egin nioken, orman zegon gurutzeari:

—Agur. Laxter nauzu zure aurrean. Erruki zaitez ordu ontan gutzaz.

Atarian negola:

—Orrela eramaten dizkitek arratsean. Neri eriotz-pena emango zidateken.

Baña ez nin nere anaietakorik jexten ikusten:

—Zer gertatzen ote da emen?

Ni atarira jetxi orduko, ikusi nin Don Benito laxterka bere etxolatik ertetzen. Ni ere, besteak bezelaxe, atera nioteken barrun artatik; eta, azkeneko burnizko atea zabaldu orduko, iltzen zebiltzan aietako batek eta Don Benitok barrundik batera eldu zidateken.

—Au ez! —zioken oiuka Don Benitok, barrura tiraka—. Au, *consejo de guerra* eginta, Burgos'tik noiz etorriko zai zegok.

Alako birao bat bota zin kanpokoak eta sartzen utzi zidaken. Aren atzean ezkututzen zan batek esan ziokeen orduan biraozaleari:

–Utziok. Urrengoan arrapatuko diagu.

Abots ura ezagun-ezaguna nin; baña ezin asmatu nor zan. Gero ikasiko nin.

Don Benito erritan asi uan, zergatik deitu niñuten ni.

Besteak, ekarri zuten papera erakutsi zioteken. Arrituta geratu uan.

–Emendik aurrera, paper ori nik irakurri gabe, ez iñor deitu.

Len ere banekiken gutxi gora-beera; baña orain ziur banekiken, arratsean zeramaztenak iltzera zijoazela.

Naigabez itzuli niñun nere gelara. Onuzkero, ia nereak egiña izango zin. Eriotzak ez niok egundo preparatuago arrapatuko eta pakea betiko. Jainkoak bestek etzekiken zenbat alako izu neuzkan igarotzekoak, eta azkenean mendi alde ortan bukatuko nin izkillotua.

Urrengo egunean, patiora erden giñanean, jendea alai somatu nin, edo etzekit uste zuten sartu baño geiago zijoazela kanpora, ta martxa ortan laxter ustuko zutela espetxea. Baña iñori ez nioken entzuten aske joan ziranik. Geienak egia jakingo ziteken, noski. Beñepin zalantza larriak, sinistu nai zuenarentzat eta etzuenarentzat. Berri gaixto xamarrek zetozeke kanpotik. Iñork etzin ortaz itzegin nai izaten. Itxaropena baita azkena galtzen dana. Eutsi pixar orri. Ura zearo galdu ezkerro, etzegok gizonik. Alare, batek arpegira bota zidaken:



–I benetan ezkorra aiz. Esaten nin, arratsean zijoazenak aske dijoaztela. Neronek entzun nin «*está uste liberado*» esaten.

–Ongi zegok. Jarrai itxaropen orrekin. Baña ez dek emen beste bat, ori sinistuko duenik. Ni oraindik lengoan negok, eta gero ta ziurrago, oiek ez dijoazela etxera. Amabost egun badituk onuzkero, orrela ari dirala. Iñork esan al ziguk, bat aske etxera iritxi danik? Eta nere belarrietara iritxi diran berri guziak, txarrak dituk. Emen-dik eramandako ezagun bakar bat ere ez dek oraindik etxera azaldu. Etzigutek il diranik esaten, gu geiegi ez larritzearren. Etzekit nondik edo zer arrazoi daukazuten, orren itxaropentsu bizitzeko. «*Está usted liberado*» esan diolako? Bai; espetxe ontatik *liberado* zegok. Baña, er-ten orduko, atean badauzka etsaiak?

–Ez dek iñon ere orren errex gizonik iltzen.

–Eta or dabiltzanak ez badira gizonak? Ulertzen didak, noski.

–Bai, bai. Ori beste arrazoi bat dek. Ortaz enin pentsatu.

Eniöken neri gertatua esan, eta itxaropenez bizitzeko arrazoirik etzeukaken iñork ere. Aldez aurretik jakitea obe ziteken, ondo preparatuak egoteko.

–Ez adilla ziur egon. Ustegabekoak beti kalte egingo dik. I ere kristaua aiz.

–Etxera ez badira iritxi, nora eraman bear zizkiteken?

–Ori dek nere galdera ere. Bada ez bada, ere lanak egintzik ondo; ta, ordu ori zoritxarrez irixten bazaik, poztuko aiz. Ez baidek bide oie-

tan norekin aitorturik arrapatuko. Bat galtzen badegu, irabaz dezagun bestea.

Buru-makur joan uan nere laguna. Baña nere aolkua etzitzaiokeen gaizki iruditu.

Egun gogoangarria uan ura neretzat. Arratsaldean, patiora erten giñan orduko, an azaldu uan Permin nere lagun maite ura. Azkenean, arek ere Ondarreta'ra etorri bearra. Besarkada batekin egin nioken ongi etorria. Ez uan oso atsegiña, baña zer egin bear nion aingeru ari, mundu ontatik joan baño lenago? Beñepin, elkar ikusi ta agurtu.

–Ongi etorri esaten al didak? –esan zidaken.

–Zer nai uke, bada? Au eguneroko ogia diagu. Emen etxea betea zegok, eta ekarri ta ekarri ari dituk. Etzekit non sartzen diran denak.

–Atera egingo dizkitek, eta zuek ez dakizutela.

–Bai; ateratzen dizkitek. Baña ez guk ez dakigula. Ia gabero bazeramazkitek iru edo lau emendik. Beti zaarrak agurtu ta berriei ongi etorria ematen ari gaituk. Ez, bada, nere ongi etorriaz arritu.

–Gu bezela dagon batentzat goxoa dek, berriez.

–Ala uste al dek?

–Ez –erantzun zidaken–. Zuek ere badakizute orduan?

–Batzuk oraindik ez ditek sinistu nai. Baña geienok bazekiagu nola ari diran.

–Ori zearo zabaldua zegok errian. Iñork etzeukak orren zalantzik. Apaola'ko ta Landarbaso'koak galdu dituk, aztarrenik utzi gabe.

Errenderia'n badituk geiago. Espetxean negarra badago, errian ere ala zegok.

Bart gertatua esan nioken ta ala erantzun zidaken:

—Orduan guk bezin ondo badakizute, auek ari dutenaren berri?

—Nik etziot ori iñori esan. Baña eguneroko ogia dek. Ori ez dakinik ez dek emen. Baña askori zail egiten zaiek aitortzea bai edo ez. Zalantza pixar orri atxikita zeudek.

—Nik jakiñaren gañean etortzea naiago dit, bada. Beti dek eriotza garratza, batez ere egoe-  
ra ontan eta sasoirik onenean, eta benetan gorrota gaituzten etsaien eskuetan. Baña au dena emen geratzen dek; eta, sinismena degunontzat, bazegok beste bizi bat ohea. Ura mozteko, auek etzeukatek indarrik.

—Orduan, Gipuzkoa osoa espetxe batean bizi dek. Etzegok iñon ere segurantzirik?

—Ez; eta beldurra dutenak, nolabait beste aldera ziazik. Besteak, berriz, ez ditek egundo beren etxean gaurik pasatzen.

—Eta zer moduz zuen eta gure etxean?

—Gure etxean, gaur arte beldurrak. Baña, egunak pasa alean, lasaitzen asiak giñun. Orain izango dituk ixtilluak. Iñork ez dik beatz bat jaso nai baituen alde. Zuenean, larria ta etsipena. Emengo berriak bizi-bizi ziazik ara. Lekuko zenituztenak ere, zer eskatu zuten ta juzku txarra artu zutela kontatu ziteken. An danak etsaiak itun. Zer naaspilla egingo duten ez jakinki. Joakin or zebillek, Donosti'ko ate guziak joka. Baña denak, arrera otza. Berak lasai bizi

dituk. Ez litekek ori galtzerik nai. Ori bai: itz goxoak. Baña zerbait datorren orduan... Aita, berriz, etsi ta etxe-txulora bildua zegok. Igan-dean egon giñun berarekin, eta benetan pena ematen zidaken. Errenderi'ko bikarioarengana joan zala ta ukatu egin ziola eskatu zion agiria. Lau seme arraixku ortan, guraso batek eskatu ta ez dit entzun apaiz batek ukatu dionik. Ez ori bakarra; iseka eginta biali: «Alare ez dezu alper biajerik egin. Baxo erdi batzuk artzeko etzaizu gaizki etorri.» Barkatzekoa dek, noski, gure bikario xaarra. Larogetik gorakoa dek eta burutik arindu xamarra. Bere illobak ere beste ainbeste egin zioken: iseka egin ta biali. Eta iretzat zemai gogorak. Jakingo uan, noski.

–Bai, bai; berak etzidaken esan. Baña iritxi uan nere belarrietara.

Udaletxean ere atea jo zitula. Bere erregaliak pozik artu ere bai. Itxaropen osoa eman ere bai. Baña etzuela uste iñork aien alde itzik atera zuenik.

–Nere erregalien aurrean, zer etzizkidaten agindu? Gero, lau seme arraixkurik txarrenean dauzkan guraso bati, atzetik par egin. Laguntzallerik ez detala billatuko etsi detanean, dena Jainkoaren esku utzi, bai, ta etxe-txulora bildu nauk. Au dek aldaketa egin duena Errenderia'k egun batetik bestera! –esaten zidaken naigabez.

–Emendik aurrera alperrik dizkiagu laguntzak. Gurea erabakia zegok. Eta i nork salatu auen susmurrik bai al dek?

–Bai, ta ia seguru: Olakok.

–Orra! Oraintxe oroitzen nauk. Orretxen

abotsa uan, nik ate ondoan entzun nuena. Ezin oroitzuz nebilleken.

–Ikaragarriak egin dizkik. Bat baño geiago badituk, arek salatuta galdu diranak. Emen iltzalleekin batera dabillega ere entzuna niok. Ez nauk batere arritzen, aren abotsa zala ura esan dekanean, arentzat dena litekena dek-eta. Ogei ta zortzi urte badizkik eta ez ditek oraindik frentera deitu. Amabostetatik ura bakarra atera dek billaua eta bere lagunak galtzen dabillena. Falanjeak bezela beltzez jantzia, txapela ere bere borla gorriakin, goxoa zebillek, garai bateko gure bandera-erretzallea.

–Eta zergatik ez dek bera salatu bear?

–Ez nitek ezer aurreratuko. Ura galduko nitek eta nere burua ere bai. Gaizki egindako kezketan joango niñuke gañera.

Ez dit berdin pentsatzen. Ura onera ekarriarekin, jende asko lasaituko uke errian. Bizitza batzuk salbatu ere bai agian.

–Utziok pakean. Ari ere etorriko zaizkiok bere garratasunak.

–Amaika okasio sortu ziguken deabru orrek, gure sallean zebillenean.

–Utziok bere gaiztakeritan naastua, nazka ematen zidak oroitzeak ere ta. Orduan gaberdian eramaten dizkitek, aske edo lotuta.

–Barrundik kanpora aske joaten dituk: *Está usted liberado*. Baña deabruak kanpoko ate ondoan jartzen dituk. Urrats bat atez kanpora eman orduko, gañean dizkik. Armiamak eulia bezela lotu ta kamioira. Gero etzekiagu non iltzen dituzten. Ernani, Oiartzun ta Bera'ko

arrobira ere eramaten dituzten otsa zegok, gure bixitara datoztenen artean.

–Erne egongo nauk, bada, ia ori dana egia dan.

Alaxe, nere anaiakin atzera-aurrera batzuk egin ondoren, barrurako deia artu genin. Elkar agurtu ta biar arte esanaz joan giñun gelara, ez genekiken biar ikusiko genduanik baña.

## SINISTU BEARRA

Jendea etzegoken lasai. Arpegi tristeak ikusten nizkin etxerako sarreran, arrats beldur-garri aiek oroituz. Alare, bakarren batzuk baitun oraindik zalantzan bizi ziranak. Baña aiek sarreran begiratu larria zeukateken. Ez sinistu nai, baña sinistu bearra.

Beti bezela, gau artan ere pixtu zizkiteken gaur erdi aldera argiak. Entzuten genin zuzendariaren abots sarkorra, espetxe guzia dardarazterañoko oiartzuna sortzen zuena. Gure gela aurretik joan itun, bat armaduna, bestea berriz gure auzoko *Potxo*, bere bota iltzedun aiekin. Eta atea iriki ta neronek ederki entzun nin: «*Está usted liberado*» nola esaten zion. Erderaz alderatzekorik ondo etzekin gure *Potxo*'k. Eta ondoren itxi, gero bueltan denak aurrean artuta eramateko.

«*Está usted liberado*» entzutean, gizarajoak etzekit zer pentsatuko zuen. Itxaropen pixarren

batekin jetxiko uan noski: etzala izango esaten zuten ainbeste.

Besteren batzun tartean zeramaten, gudan aurrez-aurre zebilela balazo bat artua. Kentzeko leku txarrean eta aldizka larri-aldi gaixtoak ematen zizkioken gizajoari, uste gabeko pauso txar bat eginta. Txiki bat uan. Kolore txuriak zeuzkaken gizarajoak. Naigabe ematen zidaken neri, ura pauso txar bat emateko beldurak ikusita.

Ura ziteken bat eramatekoa. Arek bazekiken, zalantzik gabe, nora zeramaten; eta, gelatik erten orduko, ez baizituzten lotuak jexten, *Potxo*'ren deskuidu batean, bigarren bizitzatik beeko satora bere burua bota zin. An itun larriak! Ordurako besteak eramana zizkitek. Zuzendari arro arek bere taupadak artu zizkioken. Agian sendagillea izango uan.

—Oraindik bizi dek. Au eramana zazute kamioira, besteekin batean pusillatu dezaten.

Orrek ixil samar esan zin. Baña bere oiartzuna etxearen azken txokoraño zabaldu uan. Jendea, beñriz, begi-belarri ate-txuloetan jarria zegoken. Denak garbi-garbi entzun ziteken, bada, arek esana. Ura runruna gela barruetan! Iñor zalantzan bizi bazan, onek esnatu zizkin.

Erorikoan atera zuen zanpetakoa, denak entzun ziteken. Baña ikusi, aurrekoak bakarrik. Zuzendariaren abotsa entzun zutenean, antz eman zanpetako ura nola aterea zan.

Nik ikasi berri nuena, orain denak bazekitek: gelatik arratsean zeramaztenak iltzera zijoaztela; an etzegola errukirik; bat salatzea



aski zala, bere iritziagatik beste gabe pusillatze-  
ra eramateko; asko, botoa eman utsagatik, gar-  
bitu zizkiteken.

Urrengo egunean, patiora erten giñanean,  
an uan marraxka. Jendea banaka zebilleken,  
eskuak ipur gañean jarrita, bart arratseko ger-  
taerak ausnartzen, bere egoera tristeaz negar  
egiteko.

Baña ordurako askok zekiteken orren berri.  
Guk bezela, ixilik edukiko zutela, jendea ez  
geiegi larritzeko. Espetxeko itxaropen, lasaita-  
sun ta pakeak, iñor ortara bizi bazan beñepin,  
joan itun betiko. Andik aurrera, iñork etzin  
lorik egingo amabiak alde arte. Gaixo edo bere  
ustez seguru zegonen batek ez besteak, geienak  
barruko argirik pixtu gabe, ateko txulotik begi-  
ra egongo itun, zein zoazen eta arrapazka ortan  
nor zebiltzan ikusi arte. Billa zetozenak, etzite-  
ken iñor lotan arrapatuko.

Andik aurrera, arrapazkalariak ere ondo  
zaindu bearko zizkiteken zeramazkitenak, «*Es-  
tá usted liberado*» etzin iñork sinistuko-ta, berriz  
alakorik gertatu etzedin. Zijoazten geienak ne-  
garrez egingo ziteken agurra, bazekiteken kan-  
pora orduko armiarmak eulia bezela lotuko zi-  
tuztela-ta. Len ere au geienak bazekiteken. Et-  
zutela sinistu nai. Egunak itun ortan ari zirala.  
Iñor lanera edo aske zijoan berririk etzeturre-  
ken gure barrunbera.

Egun au ostirala uan. Patiora erten giña-  
nean, beste dena zekin bat bagenin, baña zearo  
eroria zegoken.

–Deabruak aleenak! Mundua ezkerro, ez dek olakorik gertatu –esan ziguk.

–Bai, motell. Guda zibil edo matxiñadetan, beti egin izan dizkitek olakoak. Mendean artzen zituztenak larrutik pagatzen ziteken.

–Ez nin, bada, nik olakorik uste: erria zuzendu ta pakea jartzeko asmoan atera ziranak au egin bear zutenik.

–Auen pakea ori dek. Erria ondo jarri ta zuzendu bearrean, enbarazoak kendu. Il berekin ez daudenak. Beldurra sartu erriari, ixilik eta ukabilpean bizi dedin.

Patioan ere ez uan besterik entzuten:

–Urdeak aleenak! Lan ona ari ditek! Ni gauaz ateratzeko zorutzen negona! Uste gabeko edena izango uan neretzat. Lasai etxera joan bearrean, lotuta mendi aldera balaz iltzera eramatea.

Nere anaiak ere gutxi gora-beera bazekiteken. Alare, minberatuak geratu itun:

–Au dek, au, azkenā eman bear digutena! Nagusirik gabeko txakur ustel bat bezela, mendira eraman ta an il.

Nere lagun maitea ere goibel urbildu zitzaidaken:

–Ez uan arrazoiaren paltik. Leku onera ekarri gaitzitek. Errenderia'n maiz entzuten nin, ta ez dek neretzat uste gabekoa izan. Gure lagun billau arek etziguk parra gaizki egingo.

–Utziok pakean. Etorriko zaiok ari ere bere San Martin. Ez dik kontzientzia guk bezin lasai eramango, ez. Zer dituk mundu ontako urte batzun gora-beerak? Dabillela erori arte.

–Orain munduak zear zabalduko dek Euskalerrian gertatzen dana, len ere noski zabaldu xamarra egongo dek-eta. Zuek ere arraixkuan bizi zerate. Guk bi alako badaukagu ere, auek ez ditek iñor azitarako utziko, berena dutena besterik.

Larunbata uan. Arratsaldean, patiotik sartu giñanean, lau bat apaiz etorri itun. Jesuitak, noski, denak. Iñork etzeukaken aien aurka zer esanik. Aiek denak jatorrak eta zuzenak itun. Kapellaua genin guretzat oker xamarra. Au larunbatero egiten ziteken. Urrengo igande goizeko mezetan iñork Jauna artu nai bazuen ere, errextasunak jartzen zizkiguteken. Baña larunbat ura ez uan, ordea, besteak bezelakoa. Arratseko gertaera aiek eta zaindariaren oiua sekulako larritasuna sartu ziteken espetxera. Apaiz aiek sartzen ikusi zituztenean, bat bestearen atzetik, kapellauakin bost, goxoak jarri itun. Bazirudiken aien atzetik pusilladunak sartzeko beldurrak zeudela.

–Au ere bai al degu? –zioken batek.

–Au ez al dek, bada, larunbat guzietako martxa? Auek larunbat-arratsaldero emen ikusten dizkiagu.

–Bai, motell, bai. Ni arritzen nauk. Ez al zekiten ilketa onen berri?

–Gauza onik etzebilkitela bai. Baña beti izaten genin zeri eldua: etzituztela denak iltzera eramango edo... beti itxaropen pixarra.

–Amabost egun auetan orrela ari dituk, bada. Ta, sinismenik badek, ez daukak aukera txarra ere kontzientzia garbitzeko.

—Ori izango dek, bai, emen seguruena  
—esanta, barrura joan giñun.

Gure apaizak etziteken egundo ainbesteko lanik izan. An geunden geienak sinismendunak giñun ta espetxea gañezka zegoken: seireundik gora, noski.

Deabrua bere leitzera denak eraman nairik ari bazan, bere aurka ari uan lanean. Urrengo egunean igandea uan. Beti ematen ziteken meza; baña ura besteak ez bezelakoa uan. Iltzeko kapillan daudenak bezela geundenen, eta geienok egun bateko segurantzirik gabe. Meza ere ala izan uan: azkenekoa balitza bezela; ta atxillotuak, bada ez bada, preparatu egin nai ziteken.

Erdiko kristalezko etxola aundi aren gañean zegoken aldarea, espetxeko txokorik ezkutuetik ikusten zana. Baña, alare, denok bera jexten giñun. Andik entzuten genin meza, gaixo etzeuden beste guziak. Auei atea zabalik uzten zienen... Gela barrutik denak ez bazuten ikusiko ere, andik eramaten zizkiteken mezaren gora-beera guziak.

Ez dit oraindik alako ixiltasun ta eraspenez meza entzuten ikusi. Denak bat bezela. Apaizaren ixilleko itzak ere ederki entzuten zirala. Iñoizka eztulen bat entzungo genin, baña eziñak egin erazia. Denak urduri, baña otoitzean, zaararak eta gazteak.

Len ere esan dit geienok sinismendunak giñala, batzuk beroagoak, besteak otzagoak. Baña ordu artan an etzin iñork atzera egin. Amaikaren begietan ikusi nizkin malkoak. Arritze-

koa al uan? Geienok, Elizakoak balira bezela artu genin Jauna. Eta askorentzat ala izango uan. Arratsean zeramazkitenak etziteken geiango mezik entzun ta Jaunik artuko. Txakur batzuk bezela, ez aitortzik, ez mezik, ez Jaun artzerik etziteken izango. An geienak, zaarrak beñepin, gazte asko ere bai, igandero Jauna artzen zutenak izango itun.

Itzen ari zirala bazekiteken. Arrats artan gutako edozein erori zitekela ere bai. Askorentzat, Elizakoak itun, bada.

Meza polliki-polliki aurrera zieren. Jaun artzerakoan, banakak geratu itun artu gabe. Alako apaltasunarekin begira zegon gure zaitzalle bati, ukuitu zioken biotza, gero ikusiko degunez.

Ikusgarria izan uan egun artako meza ta Jaun artzea. Kapellauak egin ziguken itzaldi otza ta kaxkarra, betiko bere politikan, militarak gora ta gora.

Bukatu zanean, bada, gure gosari legea egin ta gelako txukuntasunak bukatu genitunean, errenkan ikasle batzuk bezela ixilik, Don Benitok, barruko zaitzalleen buruak, eskuarekin keñu eginta beregana deitu nioken.

Izutu niñun. Oiek begitan artzea baño, obe likek batek bi tiro artzea. Ez ditek bizitzen utziko. Beldurrak joan niñun, bada, zerbait nere aurka zuelakoan. Baña, nere zorionerako, ez uan ala.

–Zu euskalduna izango zera, noski –galdetu zidaken.

–Bai, jauna. Errenderi'koa.

–Zu len ere, orain bezela, katolikoa izango zīñan.

–Bai, jauna. Igandero Jauna artzen nuena; ta espetxe ontan asko dira olakoak.

–Ez didazu esan bearrik. Begira egon natzai-zue, ta zuena ez da aizunkeria. Benetako sinis-mena dutenak, orrela meza entzun da Jauna artzen dute. Ni Badajoz'koa naiz; eta, onerako aukeratu niñutenean, uste nuen ezi gabeko katamotz batzuen tartera nentorrela. Ikaragarriak esaten baidituzte. Baña dena ezin ikusiaren lana da. Atzeratuak omen zīñazten, baña ez. Ori esaten zutenak daude atzeratuak. España'ko espetxerik geienetan ibillia naiz. Baña ez det emen bezelako jenderik arkitu. Emen zuek zaintzen dauden txapel-gorri oiek, ez dakite zīñazten. Zirrimarra batzuk egiten dituzte, ta zal-diak bezela ostiko bat tirata igarotzen dira alda-re aurretik. Ez zuek, ez. Zuek emen zapaltzen zaituztenak, oiek daude atzeratuak. Ia arrat-sean eramán zīñuzten...

–Zu ez baziñan oartu, onuzkero iñork ez dakin zuloren batean negon usteltzen.

–Badezu etsai gaixtoren bat.

Esku emanta biali nioken. Gure etsai batek egin zizkigun gorazarreak entzunda, zoratua nioken ni, patiora, nere baitan sartua, espe-txean banegon ere aztua, atera nintzanean. Lax-ter esnarazi nioteken.

## LARRIAK

Atzokoz gañera, arratsean ere atera zizkitek en iltzera. Baña ez len bezin lasai. Geienen eskuetan ikusi nin nik pañueloa. Gañera, bana ka ta ondo zainduta. Jetxi-alean, kanpora eramaten zizkitek en.

Espetxeko pake ta lasaitasunak joan itun. An igaro nitun beste bi illabeteetan, eguneroko ogia uan ori. Goizean, erten orduko, gu iru anaion lana beñepin, nor ta zenbat palta ziran jakitea izaten uan. Baña illuntzerako beteko zizkitek en. Naparroa'tik beren espetxetatik aske bialtzen zituztenak, denak Ondarreta'ra ekartzen zizkitek en. Berriro emen salatuta, geienak emen galdu ziteken bizia.

Goizean, jendea patiora ertetzen zanean, lagunen artean eta gure egoera tristeaz oroitu gabe, beste elkar-izketan jarduten giñun, eta arin xamar joaten uan goiza. Baña illunabarrean, eguzkia gain-beera asten zanean, eta barrura sartzeko ordua urbiltzen, nabarmen-

nabarmena uan jendearen larria. Arpegira begiratzea aski zin, biotzeko larria an ezagutzeko.

—Biar onera aterako ote naiz edo nonbaiten ordurako illa izango ote naute?

Alako otzikara bat sartzen zitzaiguen ezurmuñetaraño. Itzegiteko gogo aundirik gabe geratzen giñun. Eztarrian alako korapillo bat sortuko zaiguen, eta ez uan askatuko arratseko bere arrapazka bukatu arte.

Ikusten zer zetorkigun gañera, ta eziñaren aurrean amaikak egiten zin negar. Askok etziteken apalduko ere. Ogi-opilla, igo bezelaxe jetxiko ziteken zenbaiten gelatik.

Lurrera begira, larritasunez lotuak, malko garratzak zetozen zenbaiten begietatik. Au, ezkondu ta famelia zeukatenentzat uan gaixtoena. Aietan pentsatzen sartzen itun, eta agian geiago ikusi gabe joan bearra. Aien oroitzak azitzen zin beren naigabea. Zenbat olako ez genitun ikusi?

Igesbiderik gabe lotuak geundenen, gela txiki banatan sartuak. Etsaiak beren eskuetan zeuzkateken giltzak. Gure izen-abizenak, beren agirietan artuak. Aiek lapitzaren muturra jartzen zuten izeneko gizona, erremediorik gabe galdua zegoken. Alakoxea uan gure egoera. Arratsero, lau-bost. Amaikataraño eramandako gaua ba omen uan. Txotxean jokatzea baño okerragoa uan ori.

Salatuta Ondarreta'ko espetxera eraman ta utzia gelditzen zana, galdua zegoken. Udaltxearen laguntza edo aundizki baten babesa, batez ere militarra, ez bazeukan, garbitu egiten



ziteken. Ur ontan pasa ez danak, etzekik zer dan egoera onen larritasuna. Guk igaro genin. Etziot beste iñori alakorik opa.

Jendeak patiotik barrurakoan zekarren larritasuna ikusiz, onoko bertso au oroitu zitzaidaken, besteak baño okerrago bainegon ni, eriotz-zigorra nere bizkarrean neramala:

Gure barruak ezin du artu  
ez bazkari, ez apairik,  
sartu ezkerro ez degu izan  
lasaituko gaitun jairik.  
Emen ez dago gure biotzak  
atsegintzen ditun gairik,  
nere begiak itzultzen ditut  
poz pixar bat artu nairik,  
bañan alperrik, ez det ikusten  
iñon arpegi alairik.

Denak zeramateken beren biotzean zalantz gaixto ori: Etorriko ote zaizkit? Ez ote zaizkit etorriko? Norbait ari ote da nere alde lanean? Oierakoan ez giñun biar arte esatera ausartzen, iritxiko giñan ziurtasunik ez genin-ta.

Nere beste bi anairen berri banekiken. Iru-rok leku batera ertetzen giñun. Joxe Ramonek, berriz, bazizkin Donostia'n bere adiskideak, batez ere amonaren aldetik, aren besoetakoa uanta. Onen berririk ez genin, *consejo de guerra* egin ezkerro. Amona au, bera ernaniarra uan eta Donostia'n okin zegon baten aide edo adiskidea uan. Auen bitartez, gela-zuloan usteltzen egon bearrean, patata zuritzera edo sukalde-zaiari

zerbaitetan laguntzera joaten uan. Etxe batean biziagatik, oso gutxi genekiken onen berri.

Aste artan izan nin beste naigabe garratz bat. Berealakoan joango etzitzaidan atsekabea: nere lagun maitea eramán zuten eguna.

Bazirudiken zerbaiten zalantza bazeukala nere lagun maiteak. Arratsalde guzian elkarrekin ibilli giñun ura ta gu, iru anaiok. Sarrera-koan, esku emanaz agur egiterakoan, len egundo ez bezela ala eskatu zidakén:

–Gaur ateratzen ikusten banauzu, errezatu gero nere alde errosario bat bederenik. Baita bi ere. Berdin denboraren paltik ez dek izango-ta. Ez gero aztu, Jainkoaren borondatera makurtua bukatu dezadan mundu atsegiñik gabeko au.

–Ez dezu nere otoitzaren paltik izango, baldin zu eramaten ikusten bazaitut.

Ura bere gelara joan uan; ta ni, berriz, nere-  
ra, aren eskaria oroituz.

Zerbaiten berri ba ote zin mutil orrek? Egundo ez bezin eroria zegoken, gizarajoa. Bixita izan zin, eta an zerbait esan bazióten...

Nere lagun maitea eramán zuten illunabar artan, iru bider rebista pasa arte etzizkitekén bear aña zenbatzen. Beti biren palta. Deabruak bezela zebiltzaken, igesi egin ote zuten beldur-  
rrak. Baña garbitu zitekén. Etxean zeudekén denak eta pixar bat lasaitu itun. Alare, aien muturrak asarreak ikusten nizkin nik, an ordu bete baño geiago galdu baizuten.

Gau artan ez negoken beñepin ni lo. Amaika ta erdiak alde ortan, pixtu zizkitekén espetxeko

argi guziak. Bereala entzun nin arratseroko gizon beldurgarri aren abotsa. Ni bezelaxe, noski, jarriko itun erne guziak.

Asi itun zaldi-laxterkak. *Potxo* zebileken, beti bezela, bere bota iltzedun aundi aiekin, etxe barruko zaitzalle baten atzetik. Zaitzalleak «*está usted liberado, prepárese*» esango zioken, eta *Potxo*'k atea itxi. Bueltakoan jexkiko zizkitek, baña armadun bat berekin zutela, eta txuxenean kanpora eramaten zizkitek.

Nere ondotik igarotzerakoan, batek nere atea jo zin. Beldurtu niñun nere billa ote zetozen. Baña ez. Nere lagun maite ura ikusi nin eskallerak beera. Nik ikusiko nuela noski, ta buruarekin, gero eskuarekin, agur egin zidaken. Pañuelo txuri bat zeramaken eskuan.

—Ori ere norbaitek salatu zin, bada, eta militar auek sinistu!

Negar-malkoak asi zitzaizkidaken, eta ez uan arritzekoa, aingeru ura ere iltzera eraman zutenean.

—Auek ez ditek gutako iñor il gabe utziko. Beren iritzikoentzat bakarrentzat jarri naiko dizkitek España ta Euskadi. Edozein txorok salatzea aski, aurrean artu ta eramateko.

Gurutzearen aurrean belauniko, benetan otoitz egin nin bere alde.

—Onuzkero, kamioi zar artan ziek, eskuak lotuta. Berekin batera iltzera dijoazten lagunak poztu nairik, azkeneko arnasa eman arte arek etziok on egiteari utziko. Olakoxea dek gure Permiñ.

Agian gure salleko billau ura ibilliko uan or

tartean. Nork daki iltzalleen tartean ez ote zan bat bera izango.

Artaz ordu artan oroitzeko esan zidaken. Esker gaiztokoa izango niñun, ez banuen maitasunezko bere azken eskari ori betetzen. Ez neukaken logurerik. Aren azken agur arek denak kendu zizkidaken. Errosario osoa errezatu nin, nere lagun maiteak etzezan beste munduan trabarik izan.

Goizean patiora erten giñanean, ez uan nere lagun maite ura irriparez gu iru anaion artera egun onak ematera etorri. Arek mundu ontako bere eginkizunak bukatu zizkin. Emengo larritasun, naigabe ta oñazeak bukatu zitzaizkaken betiko. Jainkoaren ondoan biziko uan orain pakean. Aingeruak ez badute zerurik merezi, no-rentzat egin zin orduan Jainkoak zerua?

Baña non utziko ziteken bere gorputza? Nork zekiken oraindik lur eman gabea ez bazan egongo? Bere amak, beñepin, oraindik etzin orren berri jakingo.

–Agur, Permiñ! Egun aundirarte! Aurki, noski, or gaituk, bai, gu ere.

Nere anaiak ere laxter oartu itun.

–Non dek Permiñ –galdetu zidateken.

–Ez al dezute ikusi?

–Bai; ikusi dizkiagu. Baña guretik gaizki geratzen dek atea. Eraman ditek orduan ura ere!

–Bai; neri agur egiñaz joan dek.

–Mutil ori iltzen duenak, nor ez dik ilko? Etzegok gauz onik emen.

Benetan naigabetu itun. Bera supritzen bizi

arren, guziak bezela, bere biotzeko pakea zekarreken besteen biotzetara.

–Bart eraman ditek, bada; ta etzaiguk geiago, eskua luzatuz, egun onak ematera etorriko. Gizarajoak bazin beldurra, bai.

Utsun geiago ere somatu genizkin. Bat, tolosar gazte bat uan, Eusko Alkartasunekoa. San Kristobal'en aske utzita etxera etorri zanean, Ondarreta'ra ekarria. Bestea, berriz, adiñeko gizon txiki bat, bere bertso zar ta berri ta ateraldiakin ainbeste par egin erazia guri. Jainkoak zerua diela. Lau baitun. Baña beste patiokoa izango uan laugarrena. San Pedro'ko erdaldun bat bauan. Ura ote zan iruditu zitzaidaken neri.

Nere lagun maitearen gelan bost zeudeken, eta aietako batek pakete txiki bat ekarri zikaken. Ez baigeneukan eskutitzak idazteko aukerik. Idazten zanak ere, zaitzalleen eskutik igaro bear zin. Au benetan ezkutukoa uan.

–Zeñek eman dik au? –galdetu nioken.

–Permiñek, bart il ditek-eta –erantzun zidaken–, bere amari emateko.

–Zuek ere larri izango ziñaten?

–Etzegok itzik ori adierazteko.

–Eta lasai joan al dek ura?

–Lasai? Nola joango dek arratsean iltzera lasai? Alare ez dek naastu ura. Bazekiken zer egiten zuen. Ez dik purrustarik egin. Ez dek birao ta zemai gaixtorik aren ezpañetatik atera. Laurok besarkatu ta «Ondo bizi –esan ziguk–, emendik ertetzeko suerterik badezute».

Bere paketea nere eskuetan utzita joan uan

bere sallerá. Ura lasai geratu uan. Orain or konpon adi!

Atzo alako azken agurra eginta, zergatik ez ote zidan itzez-itzez esan? Edo ni ere laxter ilko niñuten beldurra zeukaken?

Egun guzian nerekin ibilli nin. Apal ondoan, gelan bakarrik geratu nintzanean, ala nioken nereko:

—Zer egin bear dit nik orain onekin? Au len itzez-itzez, bada ez bada, iltzen badute ere, patioan esan ez didanean, eta orain paketetxo ain lotua datorrenean, garrantzi aundiko arazoren bat uan. Ez baigendun arek eta nik alako ezkururik, ordaintzeko zeukan zorren bat uan, amari ordaintzeko eskatuz, edo berari zor ziotena zerbait zan ere, amak bestek jakitea nai etzuana.

Lagun maiteak giñun; baña egoera kaxkarean utzi nioken aretxek. Nik ezin nezaken ura gelan eduki. Bixitaren bat etortzean, pasa ere ez. Astelenero, berriz, gu ta gure gelak katxeatzen zizkitek. Askotan koltxoiak berak ere bai. Arrapatzen bazidaten eta beren aurka idatzitakoren bat bazan, seguru neukaken egundoko jipoia ta gero azpiko zulora. Austeko, berriz, nere kontzientziko kezkek neukaken.

Jaunari eskerrak, urrengo arratsaldean bertan konpondu nin arazo au, ta oso lasai geratu niñun.

Espetxeko kapellauak oitura zeukaken, arratsaldero-arratsaldero, gu patiotik sartu ondoren, gela-mordoska bati bixita egitea. Astero gela guzietan egiten zin bere sarrera-atera, aitortu nai zuenik bazan edo arek bete lezaken

beste zerbait nai ote zuten. Orduan, beñepin, neregana etorri uan eta poztu niñun.

—Orain ikasiko dit zer moduzko gizona dan au.

Asteroko nere aitortza egin ondoren, esan nioken zer gertatzen zitzaidan, eta nork eman zidan ere bai.

—Bai; ezagutu berri nuen gazte ori —esan zidaken—. Munduan banakak izaten diran bezelakoa. Txuxena ta garbia. Ekatzak karta txar ori. Nik eramango ziot bere amari. Zuek emen idatzitako kartak eramaten ez nauk ariko. Baña seme batek amari azken orduan bialti nai dion ituna, sakratua dek.

Berak artu zidaken eta eskerrik beroenak eman nizkioken. Ura nerekin neukan bitarte, arraixku txarrean bainebillen. Ez uan nik uste bezelakoa.

Gero ikasi nuanez, bazekit eraman ziola. Baña an jartzen ziona, ez nin beñere ikasi. Espetxetik etorrita, bere amarekin bein baño geiagotan itzegin banuen ere, etzidaken olakorik aipatu.

Arratseroko banaketak astean, amaika karraxi entzuten nin inguruetako geletan. Nere aldamenean, gatzagatar gazte bat zegoken, ortxe amazpi bat urtekoa. Zalaparta aiek entzutean, karraxika asten uan «Ai, ama! Ai, ama!» oiuka. Orduan tristuraz ala nioken nerekiko:

—Zer egin ote du gazte gixaixo orrek, onera ekarri ta emen edukitzeko? Iñoxente-iñoxente amari deitzen zio. Leku onean ari aiz amari deika. Ura, noranai dalarik ere, joango uke ire

karraxiak entzunda. Biotza xamurtuko litzaiokek. Baña auen biotzik ez dek xamurtuko. Auek arriarekin egiña ditek. Aragizkoa bazuten ere, orain arri biurtua. Auek etzekitek errukia zer dan. Auek ajedrezko jokoan ari dituk; eta, puska bat kendu bear bada, baita beren aita ere kenduko litekek, beren asmoetarako enbarazu egiten badie. Ez dizkik erruki ta kontzientziko kezkek atzeratuko.

Gauean, inguruetako torre guzietako orduak, erdiak eta laurdenak, denak entzuten genizkin. Bein amaikak inguru ezker, berebilburrundak entzutean, bereala ertengo uan atetxulo guzietatik abots au:

—Ara: emen zatoztik!

Baña aurrera joaten uan askotan. Beste kamioiren bat izaki, agian beste lekuren batera iltzeko atxilotu billa. Milletatik ezagutuko nin, Ondarreta'ra zetorren kamioiaren burrunda. Amaika aldiz entzuna al genin, izan ere, igarotako illabete artan.

Beti garaitsu batean etortzen uan, al zuen burrundarik aundienarekin gañera, ta batbatean espetxeko atean geratu, barruan geundenok ederki entzuteko moduan, erne zegonak, beñepin.

Len larri bageunden, ura entzutean daldaraka jartzen giñun, nork bere buruari galdetuz:

—Nere ordua ote da gaur?

Nere ezker-eskubiko geletan, laxter asiko itun anka-otsak, oietik egindako jauziak, eta bietan nere anaiak zeudeken. Oiaren gañean



egoten giñun geienetan, baña bear bezela jantziak.

Aiek gora abiatzean, geienok ate-txulotik begira egongo giñun, guregana ote zetozen edo ez jakiteko. Aurrera joaten baziran, beera-koan, berriz, ea nor ote ziran ezagutzen ote giñun. Baña beldurrak, berriz bueltan gure billa etorriko ote ziran. Banaketa bukatzean, arnasak buelta ematen ziguken. Aitagure bat erreza-tu ta lotara. Urrengo arratsa arteko bizia bage-neukaken.

Banaketak asi baño len, serbizioen buru zego-narengana joango itun. An ikusiko ziteken atxilotuen lerroa, eta beren agirian zekazkiten izenak billatu, zein geletan zeuden jakiteko.

Don Pako esaten genioken zuzendariari. Au palanje-jantzian etorriko uan goitik beeraño. Gizon argal luxaxta bat uan. Ura etxe barruan ikusi ezkerro, seguru zegoken iltzeko listarekin zetorrela.

Ondarreta'ko baituak, bada, daldaraka jar-tzen giñun:

–Nere atean joko ote dute?

Gelarik geienetan iru edo lau zeudeken. An-go atea jotzean, larritasuna izaten uan barru artan:

–Noren izena entzungo ote degu? Nerea? Orrena?

Erortzen zana geienetan negarrez asiko uan. Biraoka asiak ere baitun. Baña auk ez itun euskaldunak izaten. Askok bazekiteken nork salatuak ziran. Il baño len ari barkatzea, ez uan errexa izango. «Egun aundirarte» esanta joango

uan ura, itz egiteko ausardirik bazeukan. Besteak pixar bat lasaituko itun. Baña betiko beldur ori ezin kendu:

–Gaurkoz, beñepin, salbatu gaituk. Urren-goan izango dizkiagu kontuak.

Bueltan etorriko uan deabrua, «*Está usted liberado, prepárese*» esanta joaten zana. Baña batek bere burua bota zuen ezker, ondo zaintzen zizkiteken, beste alakorik gertatu etzedin.

Ixtillu auek bukatzen ziranean, lasai oieratuko giñun.

Au arrats baterako ere gaixtoa uke. Baña olaxe bizi izan giñun iru illabetean. Azkenetako, gizona, ez jan, ez lo, erotua geratzen dek. Arratseko ordu ori ezin kendu burutik. Ordu bete uan, bai, baña gaur, biar, etzi berritzen zana; ta atzo añako arraixkua gaur, biar ta etzi.

Goizean patiora joatean, lenengo, utsunak billatu; ondoren, berriz, zer esanak: ikusita-koak elkarri aipatu.

Espetxeko larritasun ori zeukateken Gipuzkoa'ko erri paketsuetan ere. Danean zabaldua baizegon nola ari ziran.

Tartean baitun egundoko salaketak zituztenak. Iñondik iñora il nai zizkiteken aiek. Baña babes ona zeukateken eta arek eusten ziken.

Bat bauan Arregi izeneko, arrai saltzallea, emendik Barcelona'ra joan-etorrian zebillena. Naparro alde ortan arrapatu ziteken. An ere bertan il nairik asiak omen itun. Batzuk oitura zuten bezela, gipuzkoarra zala ta beste gabe. Baña koronel batek salbatu zin, bere txoper artuta. Alaxe sartu uan Donosti'ra. Baña emen

egundoko etsaiak bazeuzkaken. Sekulako salaketak egin zizkioteken. Baña beti koronelak babes egiten zioken.

Azkenean, bera ezin il zutela igerri ziotenean, berekin espetxean zeukan aita il zioteken. Semeak ziona:

–Beti izan dek erdi gixaixoa. Zer zekiken orrek politika txar orren berri?

Baña bera aske atera uan, koronel aren txoper jarraitzeko. Oiek itun babes seguruak. Batez ere, koroneletik gorakoak.

Mutu bat ere ibilli uan emen gure artean. Arrats batean eraman ziteken ura ere. Gero, onen semea Lekarotz'en ezagutu nin. Ara igel-tsero joana uan. Gudako kontuak esaten ari giñala, ala erantzun zidaken:

–Nere gurasoak mutuak itun biak, eta aita Ondarreta'n il zidateken. Zer egin ote zuen arek, gizarajoak, ortarako?

–Ezagutu nin ura Ondarreta'n. Oraindik sa-soiko gizona.

–Berrogei urte bete gabeak zizkin oraindik-eta.

Baziteken gure ordua ere urbildua izatea.

Lenengo *consejo de guerra* egiñak, andoaindarrak, zazpi itun. Gu baño bi egun lenago egiñak, patioan elkarrekin ibiltzen giñanak. Lau, beñepin, ikusi nizkin banaka-banaka eramaten. Iru, berriz, gora etorri itun.

–Zergatik ote da ori? –nioken nerekiko—. Auei etzieken eriotz-zigorra emango ta orregatik etorriko itun.

Ori ala joan uan. Eguneroko ogia gendun ezkeru, ez nioken garrantzi geiegirik eman:

–Biar azalduko dituk oien utsunak.

Goizeko seiak itun. Nere egoera tristea aztu-ta lo betean negola, nere gelaren azpiko aldean, orma lodi ura bitarteko, egundoko oiua esnatu erazi nioteken. Bereala, lau deskarga ta karra-  
xiak. Ondoren, beste lau tiro banakako.

Jauzi bat egin nin. Baña laixter igerri nioken zer gertatzen zan:

–Orra gure lau andoaindarrak. Orain baze-  
kiagu gu ere non ilko gaituzten.

Epaitu gabeko jendea gabaz kanpora zera-  
mateken iltzera. *Consejo de guerra* egiñak, be-  
rriz, ortarako egiña zeukaten patio txiki batean.

Uste gabeko zalaparta arek zarratara gogo-  
rra egin zidaken, eta ez niñun ondo lasaitu. Oso  
triste atera niñun patiora, denak eroriak eta  
naigabetuak arkituko nitulakoan. Baña uste ga-  
beko alaitasuna arkitu nin.

Aiek bazekiteken gu iru anaion berri, ta ez  
itun batere arritu gu triste ta goibel ikustiaz.  
Begirune pixar bat izan ziteken gurekin. Baña  
ango jendearen itxura gabeko atsegiña, Onda-  
rreta'n bertan aiek il zituztenean!

–Orain, orain asi omen dituk txuxen. Nor-  
baitek eskua sartu dik or. Izan ere, iritzia baka-  
rrarengatik arratseroko gizon-iltze ori, etzite-  
ken komunistak berak egiten. Eta auek, aurka  
jaso diranak, aiek baño okerragoak izan bear al  
ziteken? –arro-arro zioteken, gurekin zeuden  
iru karabinerok–. Gaurtik aurrera, *consejo de  
guerra* egiñak bakarrak ilko dizkitek.

Segurutik xexenak ikusteko zoratzzen zeudeken, auen aldeko zerbait zuten guziak.

Etzekit zein santuk esan zien ori: aiek espe-txean il zituztela eta epaitutako guziak, eriotz-zigorra zutenak, ala ilko zituztela. Baña nork zekiken erteerak bukatuko baziran ere?

Aiek beren jolasean eta atsegiñean zoriontsu utzita, gu iru anaiok ibilli giñun elkarrekin, berdin laxter uan gure ordua ere-ta.

–Entzun al dituk deskarga oiek? –zioken bateg.

–Bai. Entzutekoak añakoak al itun. Lotan zeudenak esnarazteko beldurak ez dituk ibilli.

–Eta nor diran badakik?

–Bai, bai: andoaindarrak. Gu baño bi egun lenago epaituak.

–Eta denak il al dizkitek?

–Ez. Iru gora etortzen ikusi dizkit. Ara or non dabilzan bi.

Espetxean bertan, orma bitarteko.

–Laxter gaituk gu ere or.

–Ez al gaituk laurok izango, or ere iru salbatu dituk-eta.

–Zalantza gaixtoa dek orratik au. Ezer ere jakin ez, laxter deituko gaituztela besterik. Deabruak zebiltzak aragi-jantzian.

Salbatu ziran bi andoaindar aietara joan giñun. Kontentu zebiltzaken, berak salbatu ziralako. Baña an zeukateken beren naigabea, lau lagun galdu zituztelako.

–Zer ibilli zerate bart?

–Naiko lanakin, mutillak, naiko lanakin. Puska bateko itzala bota zigutek. Baña bizia

salbatu diagu. Zazpirok salaketa berdiña genin. Batzuk il eta besteak ez, emen ere. Neri ogei ta amar urteko bizia seguratu zidatek; eta beste biei amabosna urte eman ziek.

–Orduan beste laurak garbitu egin dizkitek?

–Zoritxarrez, bai. Baña ez guk baño geiago merezi zutelako. Auek sartu baño len eginda-koak, arpegira bota zizkiguteken.

–Ori, zuei, guri ta datoztenei. Zuzengabeke-ri asko ta erru gabeko eriotzak ugari. Zorionak, bada, lau urte baño len, andik-emendik bukatu-ko ditukela urte oiek.

–Ala uste al dezute?

–Nik beñepin, bai –erantzun nieken.

Oraindik ez ditek irabazi.

–Ori ere ala dek. Ea zuek suerte on bat izaten dezuten –esanta joan itun.

–Gu ere orrera eramaten bagaituzte, ordu garratza izango dek ori. Baña laxter igaroko dana. Errugabeak gaituk, eta ez al gaitzik Jainkoak ere bere eskutik utziko, gure erri alde ortan utzi gaituzten bezela. Berak ondo daudenean, ajola ziek oiei. Berdin une garratz au mundu ontan denok igaro bear diagu. Ez dituk azitarako geratuko. Ta askoz naiago dit, bizitza luzea auek bezela borrero bizitzeko baño, errugabea gazterik opari bezela mundu txoro au betiko utzi.

Egun guzian etzin jendeak besterik itzegin. Asko itun nere iritzikoak: barruan iltzen asiagatik, etzutela arratseroko txango ori utziko. Baña beste asko, inpernutik zerura igaro itun. Aientzat dana garbi-garbi zegoken: bai, bai, andik

aurrera epaitutakoak bakarrak ilko zituztela. Naigabe ematen ziela arraixkuan zeudenak. Baña bukatu zirala betiko gaberoko banaketak.

Eguna or nonbait igaro genin. Baña illunabarrean goibel sartu giñun gu etxera. Batzuen poz geiegiak ere min ematen zidaken. Etziteken ortarako arrazoirik.

Ura izan zitekela noski gure azken eguna-ta, iru anaiok, laugarrenaren berririk ez bai genun, ez uan gure aldera ertetzen-ta, bada ez bada, ez bagenun mundu ontan geiago elkar ikusterik izaten, elkarri eskua eman ez egin genin gure azken agurra. Ta, zetorrena zetorrela, itxogiten geratu giñun.

–Ez bagera geiago elkar ikusten, izan dedilla au azken agurra. Bizirik geratzen danak, iñor geratzen bada, otoi egin dezala joaten geranon alde. An laurok elkarrekin biltzen bagera, berriz, norbait oroituko al dek gutzaz.

–Bizi gerala baño geiago ez badigute laguntzen, leku onean zegok gure itxaropena! Laxter aztuko gaituk betiko.

Malkoak asten zitzaizkigukun, eta ez dek arritzekoa. Gure adiñik onenean, iñori ezertan txarrik egin gabeak, politika zikin orrengatik, dana utzi ta eriotzara joan bear. Aspaldian etsita gaixorik oiean dagon baten azken agurra samina izaten bada, gurea nola ez uan ala izango?

Gelara joan nintzanean, berriz, nere uste gabekoa: gure kapellau jauna, nere aldameneko anaiari bixita eginta, nere gelara etorri uan. Bereala jarri niñun zalantzan. Gu bezela zegon batentzat ez dek arritzekoa. Olako uste gabeko

guziari mutur txarra ateratzen zio. Arek, alegia, bazekila ordurako gure berri.

–Kapellau jauna, berri txarrak al ditugu guretzat?

Etzioken nere galderari zuzen erantzun. Igesbidetik joan uan:

–Zuk badakizu, astero-astero emengo guziei nere bixitatxo egiten dietala. Emen bukatzen dek.

–Ez da orratik aste bete, azkeneko izan ziñala.

–Orrek ez du deusik esan nai. Askotan, bixita bat baño geiago egiten dizkit zenbait gelatara. Ori da nere emengo egitekoa.

Berak nai zuena esango zin, baña ez nioken sinistu. Zalantzik gabe, onuzkero gurea etorria zegola ta gure kapellau jaunak bazekila denaren berri. Ortarako zegoken bera, ta ango aundizki guzien adiskidea uan.

Gero, luzaroan biok izketan jardun eta ertekoan, ala galdetu nioken:

–Biar edo etzi or nauzu beeko kapillan.

–Litekena da ori; baña zu, ez det uste.

Beste galderarik egiteko betik gabe aldegin zin.

Berak eman zidan erantzunak, lenbizi baietz zirudiken; bigarren, berriz, ezetz. Asma zak orrekin zer esan nai zuen. Len bezelaxe utzi nioken. Baña bai arek bazekila gure berri. Ordurako Burgos'tik gure paperak etorriak izango zirala, eta arek irakurriak zitula ere bai. Orduan, arrats artan ez bazan ere, urrengoan izango uan gure ordua.



Arratseko ateerak bukatu zirala esaten zutenei arrazoi emateko, arrats artan etziteken iñor atera. Baña orrek etzin esan nai moztu zituztela. Lenago ere izaten itun bi edo iru eguneko tar-teak, egundo baño indar aundiagoarekin berriz jarraitzeko. Egun aietan pixar bat lasaitzen giñun espetxeratuok.

Baña igerleak zoriontsu zeudeken, urrengo goizean patiora erten giñanean. Bai, noski, gu baño alaiago. Baña ez al zan aiena ere amets goxoren bat izango, ta esnatzen ziranean larriago geratu? Itxaropen geiegi artzea, olako lekue-tan, txarra izaten dek gero...

–Ikusten dek gaur ez dutela iñor eraman?

–Bai. Ni ez nauk eramatearen alde. Guk gure egoerari buru emango ziogu laxter. Orre-gatik, etziot besteri txarrik opa. Naiago nitek denak, gu emen geratuko bagera ere, aske joa-tea. Len ere, ordea, olako atsedeen-aldiak izan dizkiagu.

–Baña oraingoan ez ditek berrituko. Ez itun, bestela, etxean iltzen asiko.

–Zuek eta guk bezela, Jainkoak ere nai de-zala. Emengo negarrarekin aspertuxeak gabil-tzak gu ere.

Anaiak elkarrekin utzita, ille moztera joan niñun. Espetxean gurekin baituak zeuden kara-binero batzuk genizkin motxalleak. Baña duan egiten ziteken lana.

Ango atsegiña! Jaia osoa izateko, txanpaña palta ziteken. Ni sartu nintzanean, ixildu egin itun. Berdin bazekiteken ni epaitua negola eta zai geundela noiz dei ori etorriko.

Baña sartu-erteerak mai batean artzen ari-  
tzen zan bat bauan, goitik beeraño falanje-  
jantzian. Baitua, ordea, gu bezela. Auek sartu  
arte anarkista izana ta falanjean sartua. Lenen  
frentera joana omen uan. Baña andik etxera  
etorri zanean, salatu ziteken eta atxilotu. Olako  
asko zegoken Ondarreta'n. Beñepin, gure ar-  
tean zegoken eta mutil gazte ikasia. Maian ari-  
tzen uan, sarrerako ta erteerako izen-abizenak  
artzen.

–Gaurtik aurrera guk jai egingo diagu, segu-  
rutik zuen negarrak ikusiz.

–Lengoakin ere billau intzan i. Itxura danez,  
oraingoakin ere bai. Ez gero amets geiegirik  
egin. Gu joango gaituk, bearbada. I ere ez aute  
azitarako utziko –zorrotz erantzun nioken.

–Oraindik etzidak neri iñork billaua deitu  
–asarre erantzun zidaken.

–Ori ez dek egia. Oraintxe esan dit nik bi-  
llaua aizela; ta, berriro esateko ere, etzeukat  
kupirik, alako probak eman dituk-eta.

–Neri billaua deitzeko, ez dit nik arrazoi-  
biderik eman.

–Esan ez didak, bada, emendik aurrera gure  
negarrak ikusiz pozik biziko aizela?

Gure elkar-izketa berotzen zieken. Eskueta-  
raño bilduko ote giñan beldurtu itun gure kara-  
bineroak, eta neri eman zidateken arrazoi:

–Lenen i mintzatu aiz gaizki. Enbarazu bes-  
terik ez diguk ematen eta oa ere lanera.

Biali ziteken. Baña neri zemai egiñaz, arek:

–Oraindik elkar ikusiko diagu. Au ez dek  
ortan geratuko.

—Ordu txar auek igaro arte, utzi nazak pakean. Onik ateratzen banaiz, ikusiko diagu. Lengoak eta oraingoak galtzen abillena aiz-ta.

Ez genin mutur joka ibilli bearrik izan. Ni bizirik geratu niñun. Baña ari, gizon batek izan lezaken eriotzik gaixtoenetako bat eman zioteken.

Beste asko bezela, arratsean deitu ziteken. Ikusi nin ate-txulotik. Ordurako ni salbatua negoken. Bi besoetatik artuta eraman ziteken espetxetik kanpora. Jakin, ongi baizekin zertara. Iltzen zebillen sallean lagunena bat izatea ere baziteken. Oien iritziak aldakorrak itun orduan. Falanjeen erdiak ortik atera itun, eta benetan odol-zaleak.

Oiartzun'eraño eraman zutenean, beñepin, kamioia oraindik ondo geratu baño len, jauzi batean illunpera ezkutatu omen uan. Baña etsaiak ere etzeudeken lo. Sutu zioteken atzetik; eta, bere zoritxarrerako, balaren batek arrapatu ta sastako txarra egin. Baña ordukoz igesi egin zin. Odoletan, ezin joanik eta esku lotuakin, ibillian-ibillian iritxi uan noizbait baserri baten atarira. Artara ezin zezaken jarraitu ta baserri artan deitu zin. Arraixku txarreko lana. Ez baizekin zer iritzitakoak izango ziran.

Garai artan ate joka nabaitu zutenean, barrukoak ere bere kontuak atera zizkiteken. Goino leiotik begiratzuz bakarra ikusi zutenean, jextxi itun. Baña etziteken etxean artu. Zauria garbitu ta lotu zioteken, al zuten bezela. Eskuak askatu ere bai. Baña, beren ustez, etzegoken

iñora joateko moduan eta atariko metapean ezkutatu ziteken.

Urrengo goizean, etxeokak batzar txiki bat egin ziteken: oso egoera txarrean geratuko zirela, ura etxean ezkututzen bazuten. Azkenean, beñepin, Oiartzun'go bikarioari aolkua eskatuko zioteken, arek agintzen ziena egiteko. Bertako amona, oraindik sasoikoa, joango zala bikarioarengana. Onen aolkua kristau batena uan:

Bazekitela nola ari ziran gabean errugabeko gizonak iltzen, eta ura izan zitekela oietakoren bat.

—Kristau zeraten ezkerre, senda zazute ta eraman Prantzi aldera. Berdin orko berri ondo dakizutenak zerate-ta.

Aolku ona eman zioken bikario jaunak. Baña amonari etzitzaiokeen ala iruditu.

Eskubitar beroak itun baserri ortakoak. Ortan suerte kaxkarra izan zin gure anarkistak. Ez baizitun inguru aiek ezagutzen.

Amonak, berekiko, ala omen zioken:

—Ori dek bikario jaunaren gibela! Berak eskuak garbitu ta gu estuasun ontan utzi.

Beste asmo gaixto bat artu zin orduan, suminduta zegon amonak. Txuxenean Errenderi'ko Falanjera joan ta parte eman zieken nola zeukaten etxean, iltzera zeramatala igesi egingdako gazte zauritu bat.

Zer geiago nai ziteken aiek? Amonak bidea erakutsiz, igo itun baserriraño.

Metapean zegonak erderaz izketan nabaitu zituanean, bai aguro antz eman ere saldu egin zutela ta iltzalleak etxera ekarri zizkiotela. Bere

ondora baño len, aizkatu uan metapetik. Bai etsaiak ikusi ere.

– ¡Alto! ¡Alto! –oiuka asi zitzaizkioken. Ez alperrik! Bestea, bere erioan, etzala ibiltzeko gauza, baña alegiñak egiten zizkin gizarajoak. Besteak atzetik eten gabeen tiroka. Bera erori, zutitu, erreka, bide, txara, arkaitz, alako bidea al zegoken andik beera. Iru edo lau balazo bazizkin gorputzean. Azkenean, Oiartzun'go Txikierdi'ko ondoan erori uan.

Gizarajoak, arek ere amets goxoak egin zizkin, baña betetzen etziranak.

Nere lana bukatu zutenean, aiek zoriontsu utzita, patiora joan niñun. Bereala izan genin deia. Bixita gendula esan ziguteken.

–Nor ote degu? –genioken elkarri, ara iritxi bitartean.

–Apustu egingo nitek aita degula. Gu sartu ezkerro ez dek azaldu ta bere ikertxoa egin naiko ziguk, olako lekutarako eraspén gutxi badu ere. Emengo berri gaixtoak iritxiko itun araño ere.

Espetxeko berri egunez ta gauaz zeramatenak bai omen itun, eta aietakoren batek esanta noski: Semeak bizirik ikusi nai bazitun, obe zuela lenbailen ikertxo bat egin, oso berri gaixtoak zetoze-la-ta.

Izketa-lekura joan giñanean, nik esan bezela, aita zegoken seme batekin gure zai, beste askoren artean. San Markos'tik Txoritokieta'ra izketan ari bagiña bezela, ulertzeko moduan zerbait esan genioken elkarri.

Begiratuan ezagun zin aitak asko supritzen zuela, semeak arraixku artan zeuzkalako. Oso

eroria zetorreken, batere itxaropenik gabea. Beti alaia ta iztuna izan uan gure aita. Baña orduan lotua zegoken. Ongi gogoan artu nin, ta bizi naizela ez nauk aztuko, abian zer esan zigun eta zer erantzun zitzaion:

–Agur, semeak! Egoera negargarri au ez al dek luzaroko izango! Laxter aterako al zerate!

Baña ez sinisten zuelako. Zerbait esan bear. Seme batek ala erantzun zioken:

–Bai, aita. Nora ezik, laxter aterako gaituzte.

Zearo etsia zegoken anai ura ere. Etzin, bada, erru aundirik, aingeru bat bezin paketsua uan-ta. Erdiz-erdi asmatu zin.

Semearen erantzun ori entzun zuenean, aita ezin begiratu. Bere artan joan uan. Bai-baizekin zergatik esaten zion.

Goibel joan uan. Gu ere ala geratu giñun. Baña ordu garratz ori etorri baño len, ikusi nai genin aita eta agurtu. Bordaxar'ko etxe-txulora joan uan, bada, kezketan, urduri, beldur gaixtoa ezurretaraño sartua. Baña oraindik bizi giñala, beñepin, eta beti ere itxaropena.

Laugarren anaia, gutxitan ikusten gendua-na, gurekin zegoken; eta, elkarren berriak kon-tatuz, joan giñun ura bere lantegira ta gu patio-ra. Itxaropen aula zeukaken arek ere. Aretxek etzin, bada, erru aundirik. Berri txarren batzuk ikasiak izango zizkin. Guk, beñepin, partieran elkarri eskua emanaz, agurra egin genioken ta asmatu egin genin. Arekin berriz itzegiteko aukerik ez genin izan.

Eguna ala-moduz joan uan; eta, sarrera-koan, berriro nere lagunak agurtu nizkin: Ikusten bagiñuzten joaten, aitagure bana errezatze-ko gure alde, inpernu ontatik lenbailen joan gindezen. Eta ixil-ixilik, zama aundi orrek zapalduak, sartu giñun negarren gelara.

## GAU TRISTEA

Benetan gela aiek itun negar-lekuak. Ia illabete ta erdi aietan amaika negar egin ziran lekuak. Txulo madarikatu batzuk bazizkiteken atea eta andik ikusten genin dana. Etziguken onik egiten. Baña zalapartak asten ziranean, ezin atera gabe geratu. Banaka-banaka, eun baño geiago ikusi genizkin txulo artatik, betiko joaten. Lagunik maiteenak bai. Baita apaiz maitagarri askoak ere, goizeko seiretan beren aitorlekutik ara eramanak. Orain, berriz, gurekin ori bera egingo zuten beldurrak.

Aparia joan uan etorri bezela aurrera. Gure berri zekitenak, triste begiratzen ziguteken. Nik orduan ez neukaken jateko gogorik.

Andik noizbait etorri uan rebista. Atea josten zigutenean, argia piztu ta erdian jartzen giñun. Arek txulotik zenbatu ta aurrera. Bakar-ka geratu giñun gure naigabeen mende.

Ordu artan nere burutik igaro itun nere lagun guziak. Baña nere poz ta naigabeak ere bai.



Bizkai aldean zebiltzan anaiak, aiek asmatu ziteken; ez guk. Iltzen baziran ere, bero-beroan ilko itun. Ez gu bezela, odol otzean, jaberik gabeko zakur zikin batzuk bezela, etsaien begien asegarri. Beren aberriaren alde ixuriko ziteken odola. Atsegin ori ere etzegoken guretzat.

Etxeko anaiak ere joan itun nere buruan barrena. Aita maitea ere bai. Berri gaixtoren bat jakiten bazuen aurki, ez uan arritzekoa izango. Orregatik ez al zin betiko osasuna galduko, lenago ere supritzea zer zan bazekiken-ta.

Gu ortaraño ekarri erazi giñuzten etsaiak ere igaro itun nere burutik. Biotzez dana barkatu nieken. Eskatu ere bai Jainkoari, berak ere barka zezaiela.

Baña batez ere inguruko geletan zeuden nere anaiak neuzkaken gogoan. Aiek ere, nik bezelaxe, beren bizitz guziko onaren eta txarraren aitorketaren bat egiten ariko itun, ordu garratz ura ezin azturik.

Nik zekit zer garrastason daukan ordu orrek eta aiek ere nola egongo ziran. Berdin denak zekiteken, arrats artan ez bazan, urrengoan; baño gure ordu gaixtoa laxter igaro bearrean giñala. Ori etziguken iñork burutik kentzen. Batez ere kapellauaren itzak garbi erakusten zidateken. Aurretik joanak eramateko indarra izan bazuten, zergatik ez guk?

Azkeneko rebista pasa zanean, gelan nere mende neuzkan puska guziak txikitu ta komonean beera joan itun. Idatzirik, beñepin, ez neukaken. Paperik ain gutxi. Lapitz-mutur arlote bat ere ez. Ondarreta'ko ditadurak etzeukaken

neurrik. Etziguteken ezer uzten, bada ez bada. Idatzi bat arrapatu ezker, batez ere euskeraz egiña, eta oien gogozkoa etzana, aski uan beste gabe arratsean eraman ta iltzeko.

Nik igaro nitun espetxe guzietan, orixe gertatu zitzaidaken. Ez nin ezer irakurtzerik, ikasterik eta idazterik izan. Nere espetxeko bost urte luzeak alper-alperrik galdu nizkin, mundu ontarako beñepin.

Orregatik, gelako nereak ziran puska guziak gordetzen, ez neukaken lan aundirik. Balde bat ur baneukaken bezperan ekarria. Ura gañetik beera bota, bai, ta nere an egondako aztarrenak bukatu itun.

Nere garbiketa egin nuanean, jantzi niñun al nezaken ondoena. Artatik ere ez neukaken geiegirik. Eta gertakizunen zai geratu niñun, oatze gañean etzanta.

Bitartean entzuten nizkin inguruko eliz guzietako kanpaiak, ordu laurden, erdi ta orduak. Banaka-banaka baziaziken bat bestearen ondoren.

Amarrak joan itun. Igeldo-pean nabaitzen nin tranbe zaarraren karranka. Noiznai entzuten nizkin kamioi zaarren batzun burrundak. Baña gurea ez uan etortzen, ez uan noski oraindik bere garaia-ta.

Amaikak jo ziteken inguruetako elizetan, beren larria espetxeratuen biotzetara ixuriz. Ordu ortan etortzen baizan geienetan gure kamioia. Baña ez uan nabaitu. Nik bezela, arratseko gora-beera zeramaten espetxetuak. Geienak, beñepin, asi itun, biar arteko bizia bazeu-

katela-ta, oiera joan ta atsedena artzen. Aiek etziteken ikusiko gau artako gure ixtillurik. Goiza arte lasai lo egingo ziteken, orduko ixkanbillak entzun arte.

Amaika ta erdiak jo ziteken eta dena ixilik zegoken. Geienak, lotara joanak. Baña gu erne geundeken. Andik aurrera asiko baizan gure arraixkua. Erenegun eraman zituztenak, amabi-amabitan atera zizkiteken. Ordu ori igaro arte, bada, etzegoken guretzat atsedenic. Luze joan uan ordu erdi ori.

Amabiak entzun nizkin iru edo lau eliztorretan. «Au dek gure ordua!» nioken. Ordurako, asko zurrungan ari itun, urrengo arratsa arteko bizia bazeukatela pentsatuz. Baña gu ez geundeken lo.

Ordu ori jo zueneko, bat-batean pixtu itun espetxeko argiak. Laxter zabaldu uan espetxe barruan zaindari Don Pakoren abotsa. Len ere beti entzuten genin abotsa; baña bai lentxeago ere kamioi beldurgarri aren burruna. Baña gaurkoan ez.

Begiratu nin leio-txulotik, eta Don Pako barruko zaindari zegonarekin izketan ari uan. Beste bi, ateetan zeudeken zai. Bat Martínez reketea, barruko zaitzalle gaixtoenetako bat, *guardia de asalto* izandako batekin. Au armatua zettorreen. Dena ikusten nin nere gelako leio-txulotik. Eta beste beldurrak zeudenak ere, ikusiko ziteken.

Bear zituztenak non zeuden ikusi zutenean, eskallerak gora igo itun. Gure gelen aurretik igaro ere bai.

–Nora ote dijoaz auek?

Andik bereala, andoaindar aietako bat erdian zutela igaro itun nere aurretik. Bereala ezagutu nin, gure patiora ertetzen zana baizan. Ordu laurden bat geroxeago ekarri ziteken berriro bere gelara.

–Ori salbatu dek –nioken–. Etzekit zer zigor emango zioten, baña bizia salbatu dik orrek. Etziteken bestela gelara ekarriko.

Ura bere lekura eramanta, goragoko bizi-tzara igo itun. Andik beste andoaindar lengoaren lagun batekin jetxi itun. Au ere, andik ordu laurden bat inguru, atera zan lekura ekarri ziteken.

–Ori ere aurrerako dek, bada!

Ori uan nik pentsatzen nuena.

Irugarrena, nere anaiaren aldameneko gelatik eraman ziteken. Andik bereala, eramalleak ito itun, baña baitua ez.

–Ori, gizarajoa, kapillara eraman ditek, goizean pusillatzeko.

Au dena nera anaiak nik bezelaxe ikusten ziteken.

Laugarrena ere, eraman ta an geratu uan. Baña gure deabruak bazetozeken berriz gora. Lauetatik nor eramango ote zuten lenengo?

Nere anaiaren gela aurretik pasata, nerearen aurrean geratu itun. «Salbador Zapirain» leitu zin naiko nekez rekete maltzur arek, etzeukaken eskola aundirik-eta.

–Au dek guk bear deguna: *número 38*.

Atea zabaldu zutenean, ni jantzia negoken. Argia piztu ziteken; eta, ni txutik eta jantzia

arkitu niñutenean, ala galdetu zidaken rekete biurri arek:

–Bai al ekin ire billa gentozela?

–Bai, bai. Kontuan erortzeko aña zalaparta atera al dezute.

–Orduan goazen –esan zidateken.

–Bauan ordu –erantzun nieken.

–Ori esateko, badakik nora oan? –esan zidateken.

–Musu bat ematera ez nauzute eramango zuen artera eta garai ontan –erantzun nioken, lasai itxurak egiñaz. Baña nere barrenak etzeudeken lasai.

Gurutzeari agur bat egin nioken, biotz-biotzetik «erruki zaite» bat esanaz, eta aien eskuetara jarri niñun. Gela batzun aurretik igaro niñun eskallerak beera, aietako bat aurretik, espexeko giltza aundi ura eskuan zeramala, bestea bere pusilla galtzarpean atzetik, balkoiatik ez nezan jauzi egin, beste arek bezela.

Lenen deitu niñutela, baneramaken itxaropen pixar bat; baña ez asko. Aurrekoak, bi lenengo deituak biurtu itun beren geletara. Baña nork zekiken ez ote giñuzten laurok iltzera eramango?

Espexeko begien bistatik ezkutatu giñanean, pañuelo batean bildua neraman duro zillarra kendu zidaken, pañueloa eskuetara emanaz, eta erruki aundi gabe ala esan zidaken:

–To au; orren bearrean arkitu aiz-ta.

Ate aundi baten aurrera iritxi giñanean, zabaldu ta bultzada bat emanaz sartu nioteken. Ixil-ixilik eta buru-makur an azaldu niñun, gure

negar zotiñen garratzasunera begiak ase nai zizutzen aundizki batzuen aurrera. An ere, bat, zoritxarrez, ongi ezaguna nin; gure aideetakoa gañera.

Etzeukateken nolanaiko beldurra. Lau guardiazibil zeudeken, betiko beren arma zikin oiek eskuetan zituztela, erdian zegon mai baten bi aldeetara. Mai artan, txutik zegoken gure epaille kiolaria. Bere ondoan, itzultzalle egiten zuen mikeleteen kabo gex ura. Onen atzean, gure babesle egin zuen kapitan xar, aul, bibote aundi ura. Jakiña, auek beren lekuan zeudeken.

Baña baitun amar bat geiago, an zer egiñik etzeukatenak. Auen artean, nere aide egiten zuen ura. Garai artan zer egiten ziteken aiek? Gure bizkar par egin besterik ez.

Tristea uan ura benetan. Ni bezelaxe, gizonak izaki; Jainkoak elkar maitatzeko egiñak; arrazoia zutenak, ez abere utsak; berak ziotenez, katoliko ta kristauak...

Aien artera, lasai ta atsegiñez eguneroko gertaerak kontatuz ordu bete elkar-izketara joan bearrean, katamotzaren aurrean bat-batean sartuta baño izutuago azaldu bear, anaiak nitun aien aurrera. Eriotzara neramateken eta nere negarrak ikusteko pozean urbildu itun ara. Kristauak baziran, ulertzen al ziteken aiek Ebanjelioa, asi ta buka elkar maitatzeko agintzen diguna? Iñor ez iltzeko agindu ori ere, ondo zapaldua zeukateken.

*Homo homini lupus* esan zuenak, bazekiken, nik orain arte ez bezela, gizonen griñaren berri. Neri ere ederki erakutsi zidatek orain.

Nere pausoan maiera iritxi nintzanean, «*buenas noches*» esan nieken. Lepa-luzeka jarri zitzaizkidaken atzeko aundizki billau aiek. Baña iñork etzidaken erantzun, epaille igar arek bestek.

Orduan, epaille agerlariak paper batetik irakurri zizkidaken gu lauron pekatuak. Ondoren:

–*Condenado a cadena perpetua.*

Ortarako deitu al niñuten alako misterioz, biotz gabeko aien aurrera? Bereala antz eman nioken besteren bat ere salbatuko zala, baña norbaitzuk an geratuko zirala.

Ondoren, paper bat luzatu zidaken izenpetzeko. Gure babesle egin zuen kapitanari galdetu nioken ea izenpetuko al nuen.

Baietz, baietz, bestela bi lekukok egingo zutela.

Izenpetu dezatela, bada. Nik ez nuela merezi gabeko zigorrik izenpetuko; eta egiten zutenak izango zirala iñoxente baten odolaren errudun.

Nik nerea bukatu nin. Aurki etorriko itun besteak.

–*Algún día Dios hará justicia!* –esan nie-nean, atzetik asi itun, an egon bear etzutenak zerbait erantzuten. Baña epailleak beatza jasoz:

–Ixo! –esan zieken–. Berekin darama naiko naigabea-ta.

Andik erten nintzanean, an neuzkaken zai jetxi niñutenak. Ez, noski, nere zai. Beste bat jexteko aginduko zietelakoan. Aiek etziteken usteko andik ertengo nintzanik. Alare, azaldu

nintzanean, kendu zidan duro zillarra eskura emanaz:

–*De buena has salvado la pelleja* –gaizki egi-ten bestetan etzekin arek.

Aien erdian, txuxenean nere gelara joan niñun. An ikusi nin, gero ilko zuten nere anaia, urduri txulotik begira. Ni gora ninjoala ikustean, zer pentsatu ote zuen? Gero, zaarrena joaten ikusi zuanean, gauz onik ez, noski.

Ondoren, zaarrena eraman ziteken. Andik bereala, au ere etorri uan gelara.

Antonio, nere ezkerretara zegona, eraman ziteken irugarrena. Andik unetxo batera, igo itun laugarrenaren billa. Baña anairik ez uan azaldu. Au ere ez uan geiago azaldu.

Aien ageritik gurera, ez-berdintasun au bakarra zegoken: aiek eskupetarekin ibilliak ziralaa. Guri betiko itzala ematen baziguten, ikusia zegoken aiei geiago emango zietela. Ortik gora, eriotz-pena besterik etzegoken.

Aiek biak kapillara joan itun, bada; eta goiza arte an edukiko zizkiteken, nai zuenak aitor-  
tu ta Jauna artu nai bazuen. Meza bertan ematen zieken, goizean seiretan pusillatzeko.

Nik ere arrats gaixtoa igaro nin. Jakiña, ez aiek bezelakoa. Goiza bitarte, iru errosario esan nizkin, eriotz-zai kapillan zeudenen alde.

Goizeko seiretan, orma bitarteko, il zizkiteken, espetxeko patioan bertan. Lenengo, oi-uak itun. Ondoren, tiro-otsak. Azkenik, karraxiak. Lau tiro banakako. Gero, ixilunea.

Beren sasoirik onenean, ogei ta zortzi ta ogeita bederatzi urterekin, joan itun erru gabe-



ko nere bi anaiak. Aiek bukatu zizkitekera mundu ontako eginkizunak. Etzitekera geiago oñazerik izango. Aiek ez baziran txuxen betiko atsedenera joan, ez dituk asko joango.

Neri, beñepin, sekulako sartu zidateken biotzera, lagunik maiteenarekin ere ezin litekela konfiantza geiegirik artu, komeni zaienean, atzea emango ditek-eta.

Orain asiko uan gure ordua. Amaika atzeraurrera egiteko geundenen. Noizbait etorriko giñun etxera. Ederrak ikusi ta gero, ordea. Amaika aldiz opa izan nioken nere buruari:

–Beste anaiakin batean joan baintzan, ez uan asko galduko.

Baña nere burua ondatzeko asmorik edo zirikaldirik ez nin sekula eduki. Beti, zetorrena zetorrela, Jaungoikoaren borondatera makurtu niñun.

Guk gure larruan supritu genin dena. Baña gure baserri txoko artan ere emango zin bere zarratara.

Orain galdetuko niokek nere aitari, ea gaixtoentzat bakarrentzat jaso ziran espetxeak.

Nere anaiak, zaarrenak, etzekiken Joxe Ramon il bazuten ere, goizean nerekin itzezin arte, bestearen susmurra bai-baizeukaken.

Baietz, biak il zituztela nik esan nionean, malkoak asi zitzaizkioken berrero, beti elkarrekin baserri-lanean jarduten ziranak baitziran.

–Baña ori ere il? Ez uan iñora ateratzen-ta!

Egi biribilla uan ori. Aingeru batek baño erru geiago etzeukaken arek. Baña orduko militarren epaiketa aietan etzegoken babesik.

Patiora joan giñanean, jendea alai zegoken. Lau egun bai-itun iñor etzutela atera. Ortan jarraituko zutela uste baizuten.

Gure lagun batzuk etorri itun beren naigabea agertzera. Beste gañerakoan, jendea oitua zegoken. Olakorik etzin aintzat artzen.

Baña bauan, erdalduna bera, nere anaia etzala patioan azaltzen-ta, nere ondora etorri-rik, ala galdetu zidana:

-*¿Dónde está el otro hermano?*

Goizeko deskarga aietan il zutela.

C batekin asten dan iseka gaixto bat esanaz, erantzun zidaken:

-*¿Qué mozo han matado!*

Polliki-polliki, gure naigabeak ere joan itun. Egun batzutarako, utsun ura bete uan. Erdi aztu uan, bada, gau triste ura; eta, andik aurrera, guk lasai egiten genin lo, ezeren arraixkurik gabe.

Baña itxaropen geiegi artu zuten aiek zebiltzaken orain larri, ezin etsia arturik. Sekula baño amorratuago asi itun berriro arratseroko banaketak. Nik ez nizkin ikusten. Oñaze ematen zidateken aiek, negarrez jexten ikusita.

Urriaren ogei ta zortzia uan egun ori, San Simon ta San Judas. Gogoangarria geroztik guretzat.

Etxean ere asi itun negarrak uzten. Baña, egindakoak egin, oraindik ez itun gure etsaiak asko errukitu. Etxean ainbesteko palta egiten zuen anaia eraman ziteken frentera. Etxean, amarretatik iru bakarrak geratu itun.

Guk noiznai izaten genizkin bixitak, etxe-

koak eta kanpokoak. Baña aita ez uan Ondarreta'n geiago azaldu. Lotu zitzaion korapilloa ezin askaturik zebileken.

Bein gure zigorra izenpetu ta lasaitu giñanean, lanera atera gaitziken, beste espetxeren batera deitu bitartean.

–Nola gertatu zan ori? –askok galdetu zidatek.

Liburu ontan argi xamar zegok. Baña garbiago erantzun nai ziot galdera orri.

Utziak izan giñalako, al zutenen partetik. Nai zutenak, berriz, ezin ziteken.

Errenderi'ko udaletxeak etzin ikasi ere, noski, gu espetxean geundenik. Ori uan ortako al guztiduna. Alkate zegona, gu gaztetxoak giñala, gure lengusu maitearekin maiz etortzen uan gure baserrira. Gurekin perretxikutan ibilli ere bai inguruko baso aietan. Egun aiek joan itun. Orain etzin gure bearrik.

Udaletxeak zer indar zeukan, Bergara'k erakutsi ziguken ederki. Lenengo udaletxea abertzalea uan. Baituak asko itun. Baña espetxeratuak, denak etxera etorri itun. Auek sartu ziranean, eskubitarrak igo itun. Asko baitu zizkitek. Baña etziteken bat bakarrik il.

Nai duenak ongi artu edo gaizki, Loiola'n egindako epaiketa bakarrik ere ez uan zuzen egindakorik izan. Benetako gizon-erailtzeak, itun. Orri, erderaz, *asesinato* esaten zaiok. Ori epai-maikoak zekitela edo zalantza gaixtoan beñepin. Bestela, ondo itxutuak zeudeken. Kontzientzi zuzena zeukanarentzat, iguingarriak.

Koroneletik asita goragokoren bat ez bazan

babesle, gaizki ibilliko itun. *Consejo* oiek denak babesik gabe egiñak itun, gurea bezela. Bi egun lenago berak aukeratu ziguteken. *Consejo de guerra* asi arte, arek etzin gurekin itzegin. Zer zekiken arek gure berri?

Alare, danetan okerrena, jarri baño len autsi genitula legeak. Len eskubide osoz eginda-koak, lege berrien arauera zigortzen zizkiteken. Amaika baitun, botoa eman zutelako illak.

*Justicia militar* ziotek askok. Ori bada *justicia militar*, bejondeiela. Baña gorde dezatela berentzat. Gure kristau kontzientzirako pekatua dek ori.



Orduan, militar askotxoren artean etzegen zuzentasun-izpirik. Epai-maikoak, gure babesa egin zuena eta salatari edo fiskala, denak gure etsai amorratuak itun. Beren etsaiak epaitzerakoan, zer zuzentasun eskatu bear diek oiei? Egin zutena besterik ez.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).  
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).  
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).  
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).  
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).  
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).  
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.  
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).  
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).  
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten zirria. (*Aitua*).  
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.  
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).  
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).  
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.  
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).  
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.  
123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.  
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.  
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.  
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.  
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).  
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).  
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).  
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).  
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.  
134. *J.M. Arrizabalo* – *A. Zavala*: Baso-mutillak.  
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.  
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.

- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA